

# berria

ARO  
BERRIKO  
BERRIA



Goitik behera berritua, gaurtik aurrera argiagoa eta erabiltzeko errazagoa izango da BERRIA, paperean eta sarean.

HARIAN | 2-3



**Javier Milei**  
Argentinako presidente hautatua  
**Begirada berria**  
ideia zaharrentzat

MUNDUA | 16-17

Javier Milei, Argentinako presidentetzarako hauteskundeak irabazi osteko agerraldian. JUAN IGNACIO RONCONI/ EFE

## «Legegintzaldi honek gure zigilua izango du»

→ **Mertxe Aizpuruak** esan du EH Bilduk «akordio oso onak» lortu dituela Madrilen eta legegintzaldi luzea izan litekeela.

→ «Eskuinari ateak ixtea» lorpenzat dauka, eta nabarmendu du hori ez dela «babesa hutsaren truke ematea».

EUSKAL HERRIA | 12

«Zaintza kultura eraldatzen ari gara, zer eraiki nahi dugun definitzen»

**AINHOA OLASO**  
**ETA MARIANA URCUYO**  
Mugimendu feministako kideak

Azaroaren 30eko greba feministari begira, zaintzaren ulkerera zabaldu eta bidegabekeriak azaleratu izana azpimarratu dute.



Ainhoa Olaso eta Mariana Urcuyo. MARISOL RAMIREZ / FOKU

EUSKAL HERRIA | 8-9

**Hezkuntzarako** euskarazko eredu orokortua eskatu du Kontseiluak legebiltzarrean

EUSKAL HERRIA | 5



Elma Saiz izango da Espainiako Gizarte Segurantzako ministroa

MUNDUA | 20

Enpresa handiei eta pertsona aberatsei **zergak igotzeko** eskatu du Oxfamek

EKONOMIA | 15



**GAZAKO**  
**EGUNEROKOA (7)**

«Non izan da?», horixe galdera

MUNDUA | 18-19

# Goitik behera, BERRIA

**A**tzotik BERRIAren webguneko irakurleek eta BERRIAlagunek eta gaurtik papereko irakurleek azal berrituta sumatuko dute egunkaria. Ia bi urte iraun duen gogoeta eta lan prozesu baten emaitza da. Irakurleei eta babesleei zerbitzu informatibo hobea eman nahi die BERRIAk. Hogei urteko bidea egin du BERRIAk, eta goitik behera berritu da, baina ez du diseinua bakarrik berritu.

## Apustu digitala

- Euskarri digitaletan aurrerapauso bat egingo du BERRIAk: kudeaketa gunea, azpiegitura informatikoa eta oinarri teknologiko guztia berritu ditu erredakzioak, eta baita lan egiteko modua eta ordutegiak moldatu ere. Azken helburua euskaldunei sarean ere kalitatezko informazioa eskaintzea delako. Webguneak, itxura berria ez ezik, atal eta funtzionalitate berriak ere izango ditu, garai digitalei egokituagoak.

## Diseinu argiagoa.

- Diseinua berritu du BERRIAk, modu integralean, webgunean bezala papereko edizioan, eta Iruñeko Somos Errea estudioaren laguntza izan du lan horretan. Feature eta Graphik letra tipoak erabiliz eta espazio zuriei garrantzi handiagoa emanez, webguneko testuak eta atalak argitsuagoak izango dira, eta irakurterragoak. Irakurleen eta BERRIAlagunen esperientzia hobetu eta erraztu nahi du BERRIAk, eta diseinuak horretan lagunduko du.

## Egitura eta nabigazio argiagoa

- Webgunearen egitura erabat aldatu da: BERRIAren azalean sartzen denak hobeto antolatuta aurkituko ditu eguneko albisteak, aktualitatea hobeto erakusteko aukera emango duen egitura bategin. Azal berrian, esku-eskura egongo dira eguneko eduki berri nagusiak, webgunearen hasieran. Podcastak, buletinak, bideoak eta Iritzia, Kultura eta Kirola sailak ere nabarmenduta azalduko

zaizkio irakurleari. Gainera, BERRIAren ustez garrantzitsuak diren hiru gairen gaineko lanketa hobetuko du: feminismoak, ingurumenak eta Mendia kanalak leku bereziak izango dituzte azalean.

Azaleko egiturari behera jarraituta, herrialdeetako informazioek eta astean nabarmentzen diren gaiak atal berezi bana izango dute, eta edukiak sailka antolatuta agertuko dira azalaren bukaeran: Euskal Herria, Mundua, Ekonomia, Bizigiro eta Komunikazioa. Webgunearen bukaerandaude estilo liburua, jolasak eta BERRIAren beste webgune batzuk. Gainera, BERRIAlagunek hor izango dute PDFa irakurtzeko aukera, gauero, papereko edizioa argitaratu bezperan.

## Ezinbesteko menua

- Atzera-aurrera ibiltzeko eta edukiak, sailak zein atalak topatzeko bideak erraztuko ditu webgune berriak. Menua funtsezko tresna bihurtuko da BERRIAren webgune berrian, eduki guztietara azkar iristeko bide erraz bat emango duelako. Pantaila zabalera, webgunearen goiko ezkerreko aldean agertzen da menua; eskuko telefonoetan, azpiko barraren eskuinaldean.

Azken lau urteetan eskaintza asko zabaldu du kazeta honek, eta atal berri horien denon sarrak bideak egongo dira menuan: BERRIA Ikasgela, Mantangorri gehigarriaren webgunea, urteko liburu eta disko berrien ataria, Mendia kanala, Iker Markinezen errezetak, hilberriak, Euskaldundon Egunkaria-ren hemeroteca, Berbaxerka...



Gaur



Azken berriak




Entzun BERRIA



Nire Berria



Atalak



zendaria ...en  
gria Mujika Tolaretxipi

BERRIA argiagoa, garbiagoa izango da gaurtik aurrera. BERRIA praktikoagoa, erabiltzeko errazagoa. Webgunea eta diseinua goitik behera aldatu ditu, baina ez da itxura bakarrik aldatuko.

### Bilatzailea

● Bilatzailea ere eguneratu du BERRIAk, webguneko edukiak errazago topatzeko. Menuaren aldameneko luparen ikonotik sar liteke bilatzailea. Eta, botoi horren aldamenean, hiru ikono berri ere topatuko ditu erabiltzaileak. Webgunearen hiru berrikuntza nagusietara iritsiko dira ikono horien bidez: *Azken berriak*, *Entzun Berria* eta *Nire Berria*.

### 'Azken berriak'

● Erloju itxurako ikonoak Azken berriak atala irekitzen du. BERRIAk azken 24 orduetan sortutako eduki guztiak zerrendatuta eta laburtutako agertuko dira hor. Azken berriak atalean sortu ahala agertuko dira albisteak eta artikulak, eta irakurleak egunaren haria aise jarraitzeko tresna berri bat izango du.

### 'Entzun Berria'

● Entzungailuaren edo aurikularren ikonoak atal berri batera eramango du irakurlea: Entzun Berria. Kasu honetan, entzulea esan beharko litzateke agian, atal horretan BERRIA entzuteko aukera izango baitu erabiltzaileak. Orrialde berezi horretan, BERRIAren podcast guztiak entzuteko aukera izango da, baina baita eguneko albiste eta iritzi nabarmenenak aditzeko aukera ere. Aurki tresna berriak izango ditu atal horrek, audioa entzuteko esperientzia hobetzeko.

Gainera, podcast berri bat jarri du martxan BERRIAk gaur bertan. Berriketaren izena du, eta Iker Tubia kazetariak gidatuko du: gai esanguratsuen gakoak emango di-

tuzte saio horretan, entzuleek gai horiei buruzko azalpen samurrak jaso ditzaten. Horretaz aparte, podcast berri gehiago lantzeko asmoa du BERRIAk.

### 'Nire Berria'

● Izarraren ikonoak, berriz, norberaren azala diseinatzeko aukera emango dio irakurleari. Nahi dituen gaiak edo egileak aukeratu, eta horiekin atondutako azala agertuko zaio atal berri horretan. Zerbitzu hori erabiltzeko aukera izango dute BERRIAlagunek, baina baita erregistratzen diren irakurleek ere. Izan ere, erregistratuta nabigatzen duten irakurleek zenbait abantaila izango dituzte aurrerantzean. Webgunearen goiko eskuinaldeko aldean dute erregistratzeko aukera.

### Irakurle aurreratuak

● Izena emanda nabigatzen duten irakurleak eta BERRIAlagunek, Nire Berria atala baliatzeaz aparte, aukera izango dute bai artikulak gorde eta geroago irakurtzeko, bai gai edo egile jakinen artikulak eskuratzeko. BERRIAlagun egin nahi dutenek, berriz, Babestu Berria botoian klikatu, eta hor izango dituzte diru ekarpenak egiteko proposamenak.

### BERRIALagunen abantailak

● BERRIALagunek abantaila gehiago izango dituzte horietaz gain. Zozketetan eta BERRIAren esperientzietan parte hartzeko modua dute, hainbat abantaila eta deskontu jasotzekoa ere bai, eta, horrez gain, PDFan irakur dezakete BERRIA guztia, paperean argitaratu bezperan. Gainera, BERRIA babesten duen komunitatearekin harremanak sendotzeko asmoa du egunkariak hemendik aurrera, eta parte hartzeko aukera berriak ere sortuko ditu.

BERRIAren papereko harpidetza dutenek eta BERRIALagun digitalen baliatu ahalko dituzte aukera horiek guztiak. Eta horiek, webgunearen goiko eskuineko aldean agertzen den ikonoan izena emanda nabigatu behar dute.

Aldaketa osoa eta maila askotakoa abiatu du BERRIAk jaurtik aurrera, eta denbora beharko du webguneko atal guztiak doitzeko. BERRIArekin harremanetan jarri nahi izanez gero, idatzi *laguna@berria.eus* helbidea. ●

## ANALISIA

# Herritarron bultzada, herritarrona den proiektuarentzat



Amagoia Mujika Tolaretxipi

BERRIAko zuzendaria

**A**tef Abu Saif Palestinako Kultura ministro eta idazle paregabearen egunerokoa jaso genuen erredakzioan, duela hamar egun; Gazako gerraren erretratu gordina lehen pertsona. Ez da besterik gabe heldu BERRIARA, gure kolaboratzaile Orsola Casagranderen eskutik baizik. Palestinan, Kurdistanen edota beste txoko zapaldu batzuetan begirada eta bihotza jarriak dauzka urte askoan; ezagutza eta kontaktuak jartzen ditu egunkari honen zerbitzura, pasioz eta grinaz, injustiziaz azaleratu beharrez, eta, bere egiteko moduak gure proiektuan ikusten duelako lekua, askatasun osoz.

Informazioa erredakzioaren esku utzi zuen, baina horrekin zer egin erabaki behar zen, lehenbailehen, Gazaren kontrako krudelkeria erakusten duen primerako lekukotza zen eta. Kalitatezkoa, fidagarria, irakurteraza, eta gertuko, gerren desinformazioa eta deshumanizazioa apurtzeko ezin egokiagoa.

Euskara taldearekin egin beharra zegoen kontrastea, lehenik eta behin, itzulpenak lan erantsi handi bat zekarkion-eta taldearen egunerokoari; irakurleek lehenbailehen

jaso zezaten, egunero egun bat gerran, egun batetik bestera tarterik utzi gabe. Ez zuen zalantza izpirik izan euskara taldeak: lehentasuneko behar zuen, eta berehala jarri ziren taldekide guztiak lanean. Erredakzioak bideratu zituen gainerakoak; paperean eta webgunean nola erakutsi, Eider Eibarri ilustrazioa eskatu, diseinatzaile taldearekin forma eman... Materiala ostegun gauetz heldu, eta gau hartan bertan erabaki genuen. Ostiralean makineria martxan jarri, eta asteartean ematen hasi ginen, gaur duela aste bete.

Pasioz bizi ditugulako erronkak, irakurlea aseko duen mamia ematea gusztatzen zaigulako, horrelakoek egiten dutelako hobia egunkari bat. Ez dugu beti ongi egiten, eta beste batzuetan, asmatu arren, ez dugu behar besteko oihartzunik izaten, txikiak garelako gure handitasunean. Baina horretan saiatzen gara BERRIAN, egunero, duela hogeitun urtetik. Izan dira tartean lan bikain batzuk, etxeko profesional ausart eta paregabei esker, eta baita BERRIA bere etxetzat daukaten kolaboratzaile bikainen-gatik ere. Aldian aldiak modu erakargarri eta eraginkorrez kontatzeko helburua izan da beti gure taldearen pasioa, bertatik bertara, guretik mundura eta mundutik gurera, aldi bakoitza, aldian.

Garai bakoitzak izan du berea eta berezkoa. Eta aldi honek ere bai. Ikusten ari gara nola egiten diren gerrak demokrazia distorsionatu bat defendatzeko. Nola demokrazia deitzen dioten horri diktadura eta estatu kolpe deitzen dioten hegemoniak dardarka hasten direnean. Nola migratzaile batzuei osasun

arreta debekatzeko erabaki parlamentarioek inor gutxi aztoratzen duen. Nola politikaren judizializazioa hainbat lerroburutara iritsi berri den eskandalo berri bat balitz bezala. Mundu zoro honen injustiziaz ez du mugarik, akaberarik ez duen bezala injustizia horiek kontatzeko, esplikatzeko eta salatzen dugun egitekoak, kazetaritza ona eginez.

Azken hilabeteok ezohikoak izan dira BERRIAren erredakzioan. Egiten duguna egiten jarraitu nahi dugulako –eta, ahal bada, hobeto– atzera egiterik ez duen bide batean sartu gara. Sekula egin dugun aldaketarik handiena baita hau. Orduak joan zaizkigu informazioa nola eman eta nola antolatu adosten, nola egin egunkari argi, irakurteraz eta bikaina. Taldeen funtzionamenduak jardun gara, lanaren antolaketaz; tresna berriak erabiltzen hasteko ikastaroak egin ditugu; sistemaren garapenari buruzko korapiloak askatzeko saioak; edizio sistema bera euskaratzen eta gurera ekartzen lan mardula; diseinatzaileek izerdia egin dute maketazio sistema guztia eta maketak birsortzen, eta beste hamaika xehetasun berregiten eta eguneratzen; teknikoak buru-belarri, gutxi ulertzen dituzten tripa ordenatzen...

Lan horren emaitza izango duzu gaurtik aurrera webgunean eta paperean. Aldaketa integrala, norabide batean, eta nortasunarekin. Mundua zertan ari den kontatzeko. Eta gaurtik aurrera ere zure laguntza beharko dugu, zu bezalako 3.000 babesle gehiagorena gutxienez, independentziaritzeko beste modurik ez daukagu eta: herritarron bultzada behar dugu herritarrona den proiektu honentzat. ●

# 'Hitza'-k eta BERRIAk harpidetza kanpaina egingen dute Iparraldean, EEPk lagunduta

→ 'Hitza'-ko urteko harpidetza sei euroan egiten ahalko da, eta BERRIALagun izaten ahalko da 25 euroren truke.

## Oihana Teyseyre Koskarat

BAIONA— Ipar Euskal Herriko *Hitza*-k eta BERRIAk harpidetza kanpaina berezia egingen dute EEP Euskararen Erakunde Publikoa-ekin partaidetzan. Atzo aurkeztu

zuten egitasmoa Iñaki Etxeleku *Hitza*-ko zuzendariak eta Maider Behotegi EEPko lehendakariak. Harpidetza berriak erakartzeko, diru laguntza emanen die EEPk: *Hitza*-ko urteko harpidetza sei euroren truke egiten ahalko da, 2024ko ekainera arte. Egun, 24 euro kostatzen da, baina, datozen hilabeteetan, EEPk bere gain hartuko du kostuaren %75. Denbora berean, BERRIALagun izateko kanpaina ere egingen dute: urteko harpidetza 25 eurokoa izanen da Ipar Euskal Herrian, 100 eurokoa izan ordez. Zehaztu dute BERRIALagun bilakatuz gero *Hitza*-ko harpidetza barne izanen dela.



Etxelekuren ustez, «euskararen egoera ikusirik» euskarazko hedabideen lana «funtsezkoa» da. Bide horretan, erran du kanpainaren helburua dela gero eta herritar gehiago «euskaraz irakurtzera bultzatzea egunerokoan». Haren arabera, euskarazko hedabideek «ezinbesteko betekizuna» dute euskararen normalizazioan eta biziberritzean.

Behotegik erran duenez, 2022ko inkesta soziolinguistikoak erakutsi du «euskararen erabilerrari begira erronka handia» zela, eta, alde horretatik, berretsi du EEPk euskarazko hedabideak laguntzeko borondatea duela.

**Leku publikoak helburu**  
Harpidetza kopurua emendatzeko xedez, leku publikoetan, mer-

Iñaki Etxeleku  
eta Maider  
Behotegi, atzo,  
EEPren egoitzan.

GUILLAUME FAUVEAU

kataritzan eta harrera tokia duten gunetan «bereziki» landuko dute harpidetzaren hedatzea. «Euskarazko prentsari ikusgaitasuna emateko eta gune horietako erabiltzaile edo bezero euskaldunei zerbitzu hobea eskaintzeko saskonduko dugu *Hitza*-ren presentzia leku horietan». Behotegiren arabera, gaur egun euskararen presentzia ez da «nahikoa» leku publikoetan, eta uste du hori hobetzeko urrats bat izan daitekeela kanpaina.

Etxelekuren ustez, astekaria leku publikoetan presente egonda, herritarrek parada izanen dute hura ezagutzeko, irakurtzeko, «eta, zergatik ez, harpidetzeko». Kanpaina Ipar Euskal Herriko «eragile eta komunitate engeiatuari» buruz zuzenduko dute, nagusiki. Azkenik, *Hitza* ere berritu dela erran dute, «irakurleei edukietan eta diseinuan zerbitzu hobea» emateko. ●

Zuk **non** nahi...  
Han jarriko dizugu

Banaketa, marketin zuzena, garraio zerbitzuak...

**bidera**  
banaketa

[www.bidera.eus](http://www.bidera.eus) berria Taldearen zerbitzu enpresa • 943-303 555 / 607-787 304 • bidera@bidera.eus

# Kontseiluak euskarazko eredu orokortua eskatu du Eusko Legebiltzarrean

→ EAEko Hezkuntza Legea onartzeko azken txanparen atarian, euskaltzaleen erakundeak jakinarazi du 20.000 sinaduratik gora jaso dituela euskarazko ikasereduaren alde.

**Arantxa Iraola-  
Edurne Begiristain**

GASTEIZ— Eusko Legebiltzarre-  
ra joan zen atzo Euskalgintzaren  
Kontseilua, eta idazkari nagusi  
Idurre Eskisabelek eskaera gutun  
bat helarazi zien legebiltzarkide  
guztiei. EAEko Hezkuntza Lege  
berriak euskarazko ikaseredua  
orokortzea, horixe eskea. Jaki-  
narazi zuen Kontseiluak 20.348  
herritarren sostengua jaso duela  
eske horren alde egin duen kan-  
painan.

Aparteko esanahia dute eskea  
egiteko tokiak eta egunak. Izan  
ere, azken txanpan dago EAEko  
Hezkuntza Legea. Gaur eztabai-  
datuko dituzte lege proiektuari  
jarritako azken zuzenketak, eta  
onartzeko bidean izango da pun-  
tu arazotsuenetako bat: EAJk eta  
PSE-EEK, hizkuntza ereduak aipa-  
tuz eta Euskararen Legeak ezarri-  
tako markoari ere erreferentzia  
eginez legearen zioen adierazpe-  
nean egindako zuzenketa. Kon-  
tseiluak ezinegonan adierazi du.

Ingelesa, euskara eta gaztelania  
irakas-hizkuntza izateko zuzenke-  
ta bat ere badago mahai gainean,  
eta, oro har, horiek eragindako  
«kezka larria» gogoratu du Kon-  
tseiluak. Idurre Eskisabel idaz-  
kari nagusiak ohartarazi du mi-  
laka haur eta gazteri euskararen  
ezagutza nahikoa lortzea ukatzen  
dieten ereduak «oztopo handia»  
direla euskararen normalizazioan  
aurrera egiteko, eta, ondorioz, gi-  
zarte kohesioan eta bizikidetzan  
sakontzeko. Gogorarazi du Kon-  
tseiluak lege proiektuari jarritako  
zuzenketetan eskatu zuela ere-  
duen sistema gainditu eta «eus-  
kara ardatz duen eredu orokortu  
eta inklusiboa» ezartzeko.

Ez da bide hasi berria: lan-  
keta osoa egin du Kontseiluak  
eskearen inguruan. Abenduan,  
hezkuntzaren, kulturaren eta  
euskararen munduko 211 adituk  
eta profesionalak proposamen  
bat plazaratu zuten, eta, hartan,  
lege berriak bete beharreko hiru  
irizpide zehaztu zituzten: eus-  
karazko ikaseredua orokortzea,  
euskal kultura ardatz izango  
duen curriculuma ezartzea, eta  
hezkuntza ez-arautua osorik eus-  
karaz garatzea.

Orain eskea berritu dute, lor-  
tutako sinaduren babesarekin,  
eta legebiltzarkideei mintzatu  
zaizkie: «Eskatzen dugu aintzat  
hartzeko ikasle euskaldun elea-  
niztunak sortzeko ezinbestekoa  
dela bide horretan arrakastatsue-  
na izan den eredutik abiatzea, hau  
da, euskara ikas eta irakas-hiz-  
kuntza duen eredutik».

**ELA: «Ez onartu lege hau»**  
Kontseiluaren agerraldiaren  
aurretik, ELAk Hezkuntza Le-

gearen aurkako protesta egin du  
ganberako atarian, eta zera es-  
katu die legea eztabaidatzen ari  
diren alderdiei: ez dezatela onetsi  
Hezkuntza Legea. Izan ere, Miren  
Zubizarreta ELAko Hezkuntza  
arduradunak salatu duenez, lege  
proiektuak «orokorkeriak» beste-  
rik ez du jasotzen, helburua baita  
«egungo hezkuntza sistemaren  
muina betikotzea».

Hizkuntza ereduari buruzko  
eztabaida ere horren adibide  
dela uste du Zubizarretak: «Al-



**«Alderdiek aspaldi egin  
diote uko bi hizkuntza  
ofizialak jakiteko aukera  
ematen duen eredu  
orokortzeari»**

**MIREN ZUBIZARRETA**

ELAren hezkuntza arduraduna

derdiek aspaldi egin diote uko  
bi hizkuntza ofizialak jakiteko  
aukera ematen duen hizkuntza  
eredua orokortzeari, euskaraz-  
ko murgiltze ereduari, alegia». Horren ordez, egungo hizkuntza  
eredua iraunarazten duen zu-  
zenketa onartu dutela deitoratu  
du ELAko ordezkariak: «Are, D  
ereduan euskararen presentzia  
murriztu dezakete gaztelaren  
eta ingelesaren alde». Erantsi du  
legeak ez dituela ikasleak elebi-  
dun egingo. ●



**SINADURAK** Idurre Eskisabel sinadurak entregatzen, atzo, Eusko Legebiltzarrean. EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

## Bezperara arte auzitan



Arantxa Iraola

**I**ragarritakoa konplizen  
bada, gaur onartuko dira  
EAEko Hezkuntza Lege  
proiektuaren gaineko azken  
zuzenketak, eta behin betiko  
testua onesteko bidea hasi.  
PSE-EEK eta jeltzaleek udazken  
honetan mahai gainean jarri  
dituzten zuzenketek kezka era-  
gin dute. Euskarak izango duen  
tokiarekin lotutakoek bereziki.  
Batetik, hizkuntza ereduak  
propio aipatzea ebatzi dutelako.  
Bestetik, Euskararen Legea ere  
berriaz aipatuta araudi horrek  
1982an ezarri zuen lege espa-  
rriuari atxiki, eta bideak ezar-  
ditzakeelako gurasoek hizkun-  
tza hautatzeko duten eskubidea  
lehenets dadin. Hirugarrenik,

hiru irakas-hizkuntza aipatu  
dituztenez, euskarak indarra  
gal dezakeelako eskolek ondu  
behar dituzten hizkuntza  
proiektuetan, nahiz eta euskara  
lehenetsi behar den horietan.  
Kezka horiek agerian geratu  
ziren atzo Kontseiluak eta ELA  
sindikatuak Eusko Legebiltza-  
rrean egindako agerraldietan.

Baina horiek ez dira izan  
legea onartu bezperako kritika  
bakarrak. Ezta kritikarako zio  
bakarrak ere. Asteburu honetan  
bertan Euskal Eskola Publikoaz  
Harro plataformak esan du  
lege berria «iruzurra» dela, eta  
hezkuntza «pribatizatzea» duela  
helburu. Antzeko kritika gehia-  
go ere izan dira. Eta legearen

gaineko adostasuna mehartuz  
joan da. Iazko apirilean, Eusko  
Legebiltzarreko talde politiko  
ia denek lortu zuten legearen  
ernamun behar zuen itunaren  
inguruan bat egitea: PP eta Vox  
bakarrak geratu ziren kanpo.  
Ondo ahuldu da akordioa or-  
dutik. Elkarrekin Podemos-IUK  
alde egin zuen aurrena. Eta EH  
Bildu ere aldendu da, berezi-  
ki PSE-EEK eta EAJk hizkuntza  
ereduei buruzko aldaketak  
hitzartu ostean. Azkeneko bi  
talde horiek badute indarra  
legea aurrera ateratzeko. Baina  
bezperako kritika ozenok en-  
tzunda, duda handiak daude, ea  
legeak zenbateko sendotasuna  
izango duen. ●

# EHUko ikasleen erdiek ikasten dute euskaraz, eskaintza ia elebiduna bada ere

→ Euskal Herriko Unibertsitateak euskararen garapenean duen eragina azaldu dute, Euskararen Nazioarteko Egunaren kariatara.

Ion Orzaiz

Datua ez da nolanhikoa: 1980. urtean sortu zenetik, EHU Euskal Herriko Unibertsitateak 130.000 profesional trebatu ditu euskaraz. Zentroko euskara arloko ardura-dunek uste dute unibertsitate publikoa «erreferente» bihurtu dela, eta horrek euskararen hedapenean izandako eragina nabarmendu zuten atzo. «EHU gabe, ezin izango litzateke azaldu euskararen garapena hizkuntza zientifiko bezala, ezta euskararen hedapena hezkuntzaren, osasunaren, ekonomia-aren, zuzenbidearen eta kazetaritzaren eremuetan ere», esan zuen Eva Ferreira errektoreak, Bilbon eginiko agerraldian. Harekin batera, EHUK euskara-

ren alorrean izandako bilakaerari buruzko datuak eman zituzten Junkal Gutierrezek, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, eta Itziar Lakak, Euskara Sustatzeko zuzendariak.

EHUK euskaraz eskaintzen dituen gradu eta graduondoko ikasketei dagokienez, «aurrera-pen esanguratsua» nabarmendu du Ferreira. Izan ere, 2013an, kredituen %75 ematen ziren euskaraz; gaur egun, ia denak dira: %95. Graduon doko eskaintza ia osoa euskaraz izanagatik, nabarmen apalagoa da euskarazko matrikulen ehunekoa: graduon ikasleen %54 matrikulatu dira euskaraz 2023-2024 ikasturtean, eta koska bat txikiagoa da gradu amaierako lana euskaraz egiten dutenen kopurua: %41. Hazkuntza nabari da ikasketak euskaraz egiten dituztenen ehunekoan, baina mantsoagoa: 2005ean, ikasleen %36 ziren; 2015ean, %47; eta gaur egun, erdiak baino pixka bat gehiago. Graduondoko ikasketetan, euskarazko eskaintza askoz murriztagoa da —kredituen %25—, eta ikasleen %23 matrikulatzen dira euskaraz. Tesiei dagokienez, azkenik, 62 euskarazko tesi egin ziren iaz. «Egun, euskaraz egiten diren tesi guztien %90 EHUn egiten dira», azaldu dute unibertsitateko arduradunek.

Irakasleei erreparatuta, euskaldunak dira %66. Errektorearen irudiko, «esanguratsua» da alor



AURKEZPENA. Ezkerretik eskuinera, Gutierrez, Ferreira eta Laka, atzo, Bizkaia aretoan. M.R./FOKU

horretan izandako goranzkoa ere, 2010ean irakasle eta ikertzaile elebidunak %45en bueltan zebiltzalako; eta 1998an, %23 ziren. Gainerako langileei dagokienez, berriz, datuak apalagoak dira. EHUK errektoreak aurkeztutako txostenaren arabera, euskaldunak dira administrazioko, zerbitzuetako eta kudeaketako langileen eta teknikarien %42. 2010ean, hirutik bat ere ez ziren.

Argitalpenen eta material didaktikoen ekoizpenaren atalean, Ferreira esanetan, EHU da «euskarazko argitalpen akademiko gehien ekoizten eta argitaratzen duen eragilea». Iaz, 1.048 eskuliburu eta monografia argitaratu zituzten euskaraz, eta halako bi izan ziren euskaraz argitaratutako artikuluz zientifikoak (2.203). ●

## Junkal Gutierrez

EHUKo Euskara, Kultura eta Nazioartekotze arloko errektoreordea

«Euskararen alorrean, itzela da EHUK gizarteari eginiko ekarpena»



EHUK euskara sustatzeko eginiko «ahalegin itzela» nabarmendu du Junkal Gutierrezek, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen alorretako errektoreordeak.

Nolako eragina du EHUK euskararen garapenean?

Itzela, eta eragin hori ez da mugatzen unibertsitate barrura: kanpora begira ere nabari da. 130.000 profesional bako bako gehiagok jaso dute euskarazko prestakuntza EHUn.

Asko aldatu da unibertsitatea euskararen presentziari dagokionez?

Lehen urratsak gogorak izan ziren. Oso eskola gutxi ematen ziren euskaraz, eta irakasleek ahal zuten moduan egiten zuten beren lana, ez baitzegoen materialik. Aparteko lanordu asko eskatu zuen horrek, eta irakasle askok borondatez

egiten zuten lan. Berrogei urte aurrera eginda, egoera oso bestelakoa da: EHUn eskaintzen diren kredituen %95 euskaraz dira, ikasleen %54k erabakitzen dute gradua euskaraz egitea.

Aldea nabari da hor: euskaraz dago eskaintza ia osoa, baina ikasleen erdiak matrikulatzen dira euskaraz...

Askotarikoak dira ikasle batzuek gradua euskaraz ez egiteko izan ditzaketen motiboak. Gero eta gehiagok aukeratzen dute, adibidez, ikasketak ingelesez edo beste hizkuntza batean egitea, aukera hori ere eskaintzen baita. Kontuan izan behar dugu EAetik kanpoko eta atzerriko ikasle asko ditugula, eta zaila dela horiek euskarara jotzea. Gure helburua da euskarazko matrikuletan gora egitea, baina, gaur egun, ikasleen erdiek baino gehiagok euskara hautatzea, niretzat, datu oso ona da.

EHUn euskarazko ekoizpena ere nabarmendu duzue.

Oso adierazle esanguratsua da. Jakintzaren alor guztietan ditugu monografiak, eskuliburuak, hiztegiak... Miresgarria da. Konpromisoa dugu euskarazko materialak sortzeko, eta horretarako prestakuntza eta laguntzak ematen ditugu. Etenik gabeko ekoizpena da, eta, gainera, material hori ez da EHUn soilik erabiltzen. ●



# %66

**IRAKASLEAK.** Gaur egun, euskaldunak dira Euskal Herriko Unibertsitateko hiru irakasletik bi (%66). 2010ean, irakasle eta ikertzaile elebidunak %45en bueltan zebiltzan; eta 1998an, %23 ziren.

## Herribixi Koop. Elkarte Txikia sozietatea desegiteari eta likidatzeari buruzkoa.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, hau jakinarazten da, jende guztiak jakin dezan: 2023ko Irailak 15ean egindako ezohiko batzar orokorrean, aho batez erabaki zela Herribixi Koop. Elkarte Txikia sozietatea desegitea eta likidatzea, likidazio-balantzea eta sozietatearen ondasunak banatzeko proiektua onartu ostean.

Kooperatibaren desegiteari eta likidazioari buruzko dokumentazioa interesdunen eskura dago sozietatearen egoitzan.

Markina-Xemein-en, 2023ko irailak 15  
LIKIDATZAILIAK  
Eneko Arrate Sololuze

## PASAIA-LEZO LIZEOA IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAREN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Kooperatibaren Estatutu Sozialen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak PASAIA-LEZO LIZEOA IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAREN OHIKO Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2023 urteko abenduaren 13an egingo da, arratsaldeko 17:00etan lehen deialdian, 17:30ean bigarren deialdian eta 18:00etan hirugarren deialdian, Pasaia Larrabide bidea, 5ean kokatuta dagoen eraikin nagusiko liburutegian.

Gai ordena hauze izango da:

1. Presidentearen agurra
2. 2022/23 ikasturteko jarduera pedagogikoa eta ekonomikoaren balantzea
3. 2023/24 ikasturteko proiektu pedagogikoak eta aurrekontu ekonomikoak.
4. Artezkaritza Kontseiluko kideen berritzea
5. Galderak eta iradokizunak

# Zozketak

BERRIA ekonomikoki babesten duen komunitatearentzako zozketak

PARTE HARTZEKO: igandetik asteartera

**Berria.eus/komunitatea**

edo **943-30 43 47**

Parte hartzeko azken eguna, **urriaren 10a**, asteartera  
SARIDUNAK **ostegunean** argitaratuko dira.



## La Perla

Hiru lagunentzako  
bina sarrera



## Zugan

Aurpegiko garbiketa  
oxigenatzailea eta bi indiba saio



nekatur

## Nekatur

Bi lagunentzako  
gaua eta gosaria



## Iñauti jatetxea

Bi lagunentzako otordua  
aste barruan



## Antsotegi jatetxea

Bi lagunentzako otordua



## Hotel Urduña Plaza

Bi lagunentzako zirkuitu  
termala eta gosaria



## Oiartzungo Elorsoro kiroldegia

Bi lagunentzako bina sarrera  
eremu termoludikorako



## Hotel Balneario Areatza

Bi lagunentzako  
zirkuitu termala

# Sarrerak



## Kortxoaren dilema

Sarrera bikoitz bat

Azaroak 23 • 20:30 • Serantes aretoa • SANTURTZI



## Kortxoaren dilema

Sarrera bikoitz bat

Azaroak 24 • 20:00 • Bastero kulturegunea • ANDOAIN



## Bizkaiko bertsolari txapelketa

Sarrera bikoitz bat

Azaroak 25 • 17:00 • Udal kiroldegia • LEMOA



## Ez dok ero desentxufatua

Sarrera bikoitz bat

Azaroak 25 • 19:30 • Bil lekua gela • DOMINTXINE



## Ez dok hiru

Sarrera bikoitz bat

Azaroak 26 • 17:00 • Itsas Mendi zinema • URRUÑA



## Hondamendia

Sarrera bikoitz bat

Azaroak 26 • 19:30 • Pilotalekua • BERRIATUA



MARISOL RAMIREZ / FOKU

### Maite Asensio Lozano

BILBO— Nekatuta eta urduri, baina emozionatuta daude Ainhoa Olaso (Durango, Bizkaia, 1996) eta Mariana Urcuyo (Leon, Nikaragua, 1977), greba feminista orokorrerako egun gutxi falta diren honetan. Azaroaren 30ekoari begira, lan handia egiten ari dira biak: TND Trabajadoras No Domesticadas (Etxekotu Gabeko Langileak) taldeko kide da Urcuyo, eta berriki LAB sindikatuan hasi da, etxeko langileen sailean; Olaso, berriz, Bilgune Feministako kidea da, eta grebaren koordinazio nazionalen parte hartzen ari da. Prozesu aberatsa dela nabarmendu dute bietan. «Politizatzailea da», adierazi du Olasok. «Hilaren 30ean ez da ezer amaituko: gauza batzuk orduan hasiko dira», ohartarazi du Urcuyok. **Apustu handia da zaintza eskubidearen inguruan greba orokor batera deitzea, baina une edo inguru batzuetan arrotza ere izan**

**da. Zergatik dauka zaintzaren auziak halako deialdi bat egiteko dimentsioa?**

**MARIANA URCUYO:** Oso ohituta gaude zaintzaileak eta zaintza beharra ikusezin uztera; normalizatuta daukagu emakumeok geure bizi proiektuak geroratzea zaintzeko... Zaintza gure bizitzaren parte da, eta, batez ere emakumeoi eragiten digunez, ez dugu lehen lerroan jarri. Auzi handi bat da, eta merezi du gabeziak ikusaraztea eta emakumeok lehen lerroan jartzea. Andre guztiok izan baitugu premia honi buruz hitz egiteko, adierazteko zein nekatuta gauden zaintzeaz, ez gure erabakiz, baizik eta derriortuta.

**AINHOA OLASO:** Prozesu honen giltzarrietako bat da zaintzari eman diogun integritasuna. Aldarrikapen asko egin ditugu kolapsatuen eta prekarioen daudenen –batez ere, zaintza sektoreko langileen– inguruan, baina mugimendu feministak, sindikatuekin

eta eragileekin batera, lortu du zaintzaren ulerkera zabaltea. Alde batetik, zaintzak prekarizatu egiten du, ezin dugunean aukeratu nola zaindu; baina, beste alde batetik, zaintzak potentzialtasun handia hartzen du aldarrikatzen dugunean zaintza bizi osoan nahi dugula pertsona guztientzat, eskubide zein konpromiso gisa, eta erabaki nahi dugula nor eta nola zaindu modu askatzaileagoan. Mendekotasunaz eta enpleguez harago ere begiratu behar diogu zaintzari, eta, ikuspegi zabalago horretatik, iruditeria aldatzen ari gara, zaintza kultura eraldatzen, zer eraiki nahi dugun definitzen. Hortik dator greba orokorrerako deia: denon ardura da.

**Greba hau sindikatuekin planteatzea ba al da, nolabait, haiek urteetan sektore feminizatuetan egindako lana aitortzeko modu bat?**

**OLASO:** Bai, baina ez da lehen aldia: 2018ko eta 2019ko greba feministetan ere aliantzak estutu



«Pribatizazioa salatzen ari gara, eta gobernuak ez dutela borondaterik zerbitzu gehiago sortzeko»

«Mendekotasunaz eta enpleguez harago begiratu behar diogu zaintzari; iruditeria aldatzen ari gara»

**AINHOA OLASO**  
Mugimendu feministako kidea

genituen. Azken urteetan, sindikatu asko borroka, aldarrikapen eta praktika feministak txertatzen ari dira euren funtzionamenduan, eta mugimendu feminista ere grebaren tresna erabiltzen ari da, historikoki sindikatuena eta langileen borrokarena izandakoa. Elkarren aitortza bat da, eta elkarren beharra ere badugu.

**URCUYO:** Sindikatuek eta mugimendu feministak borroka molde diferenteak ditugu, baina interes komunak: pertsonen eta langile klasearen bizia hobetzea. Izan ere, sindikatuen egitekoa lan baldintzez harago doa: langile baten soldata agian ez da hain garrantzitsua ez badu ingurukoak zaintzeko baliabiderik. Ezin da langileez hitz egin soilik enpleguari erreparatuta. Esaten dugunean bizitzek erdigunean egon behar dutela, bizi aukerez ere ari gara: zainduta egotea, etxebizitza edukitzea, hautatu ahal izatea nola bizi...

**Hain justu, aldarrikapen taula ere oso zabala da...**



# «Jendea ohartzen ari da zaintza sistema duin baten premiaz»

**AINHOA OLASO eta  
MARIANA URUCYO**

*Mugimendu feministako kideak*

Azaroaren 30eko greba feminista orokorraz mintzatu dira Ainhoa Olaso eta Mariana Urcuyo. Prozesuan zehar zaintzaren ulerkera zabaldu eta bidegabekeriak azaleratu izana nabarmendu dute.

**URUCYO:** Aldarrikapen batzuk orokorrak dira, eta beste batzuk, sektorekoak, zaintzaileen ingurukoak. Emakume migratua naiz, etxeko langile jardun dut urte askoan, eta oraindik zaintzaile naiz, eta asko pozten nau aldarrikapenetan dimentsio horiek guztiak ikusteak. Hamazortzi lehentasunetatik hamar emakume migratu eta arrazializatuekin lotuta daude: Atzerritarren Legea baliogabetzea, zaintzaile egoiliarren erregimena desagerraraztea, erroldatzeko eskubidea... Erantzukidetasuna ere hor islatuta dago; loturagrametan, adibidez: aukera izan behar genuke lagunak zaintzeko, erabakitzeko nor zaindu nahi dugun.

**OLASO:** Aldarrikapenetan gauza askori buruz hitz egin nahi dugu. Batetik, pribatizazioa salatzen ari gara, eta gobernuak ez dutela borondaterik zerbitzu gehiago sortzeko; zaintza behar handiak daude, batez ere mendekotasuna dagoenean, baina zaintza horiek

modu prekarioan, ikusezinean, feminizatuan eta gero eta arrazializatuagoan gauzatzen dira. Beraz, pribatizazioa amaitzeak eta zaintza sistema publiko bidezko bat sortzeak berehalako lanak izan behar lukete. Bestetik, zaintza denontzako eskubidea izan dadin, denok izan behar dugu zaintzeko aukera eta denbora, baina egungo lan erritmoekin ezinezkoa da: lanaldia murriztu behar da, soldatak jaitsi gabe. Eta horrez gain, zaintzaren kultura ere aldatu behar da, lanen banaketa sexuala amaitu, emakumeok ez dezagun eraman zaintzaren motxila.

**TND taldean, lan berezia egin duzue etxeko langileekin, grebaren prozesuan parte har zezaten. Nolako izan da?**

**URUCYO:** Kolektiboan ditugun helburuetako bat jaso du grebak: etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraztea. Horregatik batu gara prozesura; gauzak aldatu nahi baditugu, aldaketa prozesuetan konprometitu behar



«Greba feminista denez, gizon askori kostatzen zaie ikustea ez dela haiek gu babesteko, baizik eta haiek ere parte hartzeko»

«Umiltasunez aitortu behar dugu prozesua ez dela perfektua izan. Ikasketa kolektibo bat izan da»

**MARIANA URUCYO**  
Mugimendu feministako kidea

dugu. Tira, lan handia egiten ari gara, eta badugu halako neke produktibo bat [barre artean]: nire neke honek balioko badu lankideek baldintza hobek izateko, merezi du. Etxeko langileen bizipenetatik abiatuta ari gara argudioak lantzen: beste inork ez dezala erreklamatu astean 70 edo 80 lanordu dituelako. Kideei esan nahi nieke batzeko grebara; edonon bizi izanda ere, gizakiak gara, emakumeak, eta ingurukoak sostengatzen ditugun bezala, guk ere sostengua behar dugu: bizi baldintza duinak izateko eskubidea propiotzat aldarrikatu behar dugu.

**Emakume migratu eta arrazializatuaren talde batzuek ez dute bat egin grebarekin, esanez haiek ez dutela lanuztea egiteko eskubiderik eta prozesutik kanporatuak sentitu direla. Nola hartu duzue hori?**

**URUCYO:** Tristeziak. Uste dut arduragabekeria handia dela egiten ari garen lanari balioa kentzea, jakinda kolektibo horietako batzuek gurekin egin duten lana ere tartean dela. Emakume migratuok oztupo ugari ditugu, ez genieke halako banaketarik gehitu behar. Gainera, ardura handia da talde hain zabal eta plural baten izenean hitz egitea. Besteak beste, emakume migratu askok ez dutelako kolektiboetan parte hartzen, ezin dutelako, ez dutelako astirik... Guk oso argi dugu gauzak aldatu behar direla; beste kontu bat da zer neurritan har dezakegun parte mugimendu batean, baina sistema seinalatu behar dugu, ez kideak.

**OLASO:** Ohartuta geunden grebaren tresnak kontraesan batzuk zituela, baina, kontzientzia horretatik abiatuz, prozesua aberasten saiatu gara, parte hartzeko beste modu batzuk bilatuz. Izan ere, greba hau ez da beste greba feministak edo orokorrak bezalakoa; esperimentu bat ere bada, probatzen ari gara... Eta espero dugu, greba egunean ez bada ere, prozesuaren beste etapa batzuetan parte hartu ahalko dutela talde horiek.

**URUCYO:** Eta umiltasunez aitortu beharra dugu prozesua ez dela perfektua izan. Ikasketa kolektibo bat izan da: pozez eta harro gogoratuko dugu greba hau martxan jarri izana. Baina ez da soilik azken bi hilabeteetan egindako zerbait: prozesu luzea izan da, besteen bizipenetatik eta errealitateetatik ikasteko aukera eman diguna... Eta, hala, lanuztea egin ezin dutenak ere gurekin egon ahalko dira, sinbolikoki, sare sozialen bidez, parkeetan... Denen bat egite hori da gure greba eredu.

**EAJko emakumezko hainbat ordezkari ere grebaren aurka mintzatu dira, nahiz eta zaintza sistema feminista eta komunitario bat aldarrikatzen ari diren. Non dago bi proposamenen arteko aldea?**

**OLASO:** 2018ko eta 2019ko greba feministek aukera eman ziguten zaintzaren auzia lantzeko, eta ezinbestekoak izan ziren. Oraingoan, analisia eta aldarrikapenak zehatzagoak dira: izen-abizenak jarri dizkiogu hainbat arazori, erabaki politiko jakin batzuek ekarri baikaituzte egungo egoera prekarizatura, eta argi baitugu gauzak bestela egin daitezkeela. Interpelazio argiagoak eta zuzenagoak dira; beraz, haien zuzenagoa da prozesu hau aipatzea bera; ikusi dugu hedabide askotan ere ez direla grebaren berri ematen ari. Aldi berean, gure gogoetatik datozen kontzeptuak erabiltzen dituzte, baina hitzez soilik: ez daukate ezer aldatzeko borondaterik.

**URUCYO:** Pertsona eta alderdi politiko askok hitz egiten dute zaintzaz, baina sarri oinarri sendorik gabe. Borondate politiko eta inplikazio falta oso agerikoa da: EAJk urte asko daramatza erakunde publikoetan. Eta esaten dugunean zaintzaren merkantilizazioa eta negozioa eta zaintzaileen prekarizazioa instituzioetan dauden alderdien erantzukidetasuna dela, ez dugu daturik edo ideiarik asmatzen. Ez zaie goitik erori: onartu egin dute.

**Gizonak ere deituta daude greba egitera. Zelan doa haiekiko lana?**

**URUCYO:** Greba orokorra ez ezik feminista ere badenez, gizon askori kostatzen zaie ikustea greba hau ez dela haiek gu babesteko, baizik eta haiek parte hartzeko, eta haien aldarrikapenak ere badaudela hemen. Proposamena erradikala eta konplexua da, eta denok elkarrekin eraiki dezakegu, feminismoetatik abiatuta.

**Zaintzari buruzko eztabaida as-tintzea da grebaren helburuetako bat. Nabaritzen ari zarete?**

**OLASO:** Oro har, bidegabekeria bat ikusten dugunean aktibatzen gara, eta, nire ustez, zaintzarekin lotutako hainbat egoera bidegabe jarri ditugu mahai gainean: zer garestia den zaindua izatea, zer leku gutxi dauden zahar etxetan, zer baldintza txarrak dituzten zaintzaileek, ondorioz zein arreta eskasa jasotzen duten zainduak... Eta bai, jendea ohartzen ari da zaintza sistema duin baten premia: osasunean eta hezkuntzan baditugu erreferentziak –hor ere ahulguneak izan arren–, baina ez zaintzan, eta gero eta beharrezkoagoa da. ●



**Bi hamarraldi.  
Milaka aldi.**



**aldi hau**  
*kontatzeko*  
**berria**

Orain, aldi berria dator. Zure aldia.  
2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu  
iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure ekarpena**



# Bortxa matxista ororen aurka mobilizatzen deitu dute feministek

- Larunbatean, manifestazioak egingo dituzte Euskal Herriko bost hiriburutan eta beste hainbat herritan.
- Azaroaren 30ean kaleak hartzeko deia ere egin dute.

koaren «lehen lerroan» jartzeko. «Zuriketa morea» ere kritikatu dute: «Nazkatuta gaude feminismoen diskurtsoaz jabetu, hitz politekin jarri, azaleko proposamenak egin eta ezertarako balio ez duten argazki instituzionalekin». «Aski» dela argi uzteko, Euskal Herriko Mugimendu Feministak manifestazioak egingo ditu larunbatean bost hiriburutan. Donostian, Bulebarretik abiatuko da manifestazioa, 12:00etan. Gasteizen, 12:30ean hasiko dute protesta, San Antonen. Baionan, Askatasun plazatik hasiko dira 17:00etan. Iruñean, Gazteluko plazan ekingo diote mobilizazioari, 18:00etan. Eta Bilbon, berri, Jesusen Bihotza plazan, ordu berean. Adierazi dute gainontzeko herrietako eta auzoetako deialdiara adi egoteko.

## Olatz Silva Rodrigo

BILBO— Lau emakume eta haur bat erail dituzte aurten Euskal Herrian. Hala gogoratu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak, Bilbon egin duen agerraldian. «Nazkatuta eta oso haserre gaude», nabarmendu dute Amaia Zubieta eta Marijo Martinez ki-deek. Babesa adierazi diete emakumeen eta haurren senideei eta lagunei. Eta gogoratu dute gertakari «latz» horiek indarkeria matxistaren «muturreko ondorio» direla: «Emakume, trans eta bollerok egunero pairatzen dugu indarkeria hori; lantokietan, kalean, etxean, eskolan, lagun artean». Azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, indarkeria matxista ororen aurka mobilizatzen deitu dute, *Indarkeriarik gabeko bizitzak! Bizirik, libre eta antolatuta* lelopean.

Zubietak eta Martinezek ohartarazi dutenez, «emakume, trans eta bollerok» pairatzen duten bortizkeria ez da «ausaz» gertatzen den zerbait. Izan ere, «ezinbesteko» tresna da sistema «kapitalista, heteropatriarkal eta arrazistari» eusteko. «Sistemak indarkeria hori erabiltzen du askotariko zapalkuntzak sortu eta bere horretan mantentzeko», azaldu dute.

Egoera horren jakitun, erakundeek exijitu diete dagokien arduraren hartzeko eta gaia agenda politi-



Mugimendu Feministaren agerraldia. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

Azaroaren 30eko greba feminista orokorra gogoratzeko ere baliatu dute gaurko agerraldia. Izan ere, hamar egun falta dira zaintza sistema publiko komunitarioa aldarrikatuko duen grebarako. Zubietak eta Martinezek argi utzi dutenez, grebak lotura zuzena izango du azaroaren 25arekin: «Prekaritatea, lan baldintza miserableak eta emakumeok egiten dugun lanari, zaintza lanei, baliorik ez ematea ere indarkeria da, egiturazko indarkeria». Azaroaren 25ean egingo duten bezala, hilaren azken egunean kaleak hartzeraz deitu dute.

kumeok egiten dugun lanari, zaintza lanei, baliorik ez ematea ere indarkeria da, egiturazko indarkeria». Azaroaren 25ean egingo duten bezala, hilaren azken egunean kaleak hartzeraz deitu dute.

## Beldur Barik kanpaina

Atzo aurkeztu zuen Emakunde indarkeria matxista prebenitze-

## Espetxe zigorra gizon bati, alabari sexu erasoak egiteagatik

● Gizon bati bederatzirteko espetxe zigorra ezarri diote, bere alabari sexu erasoak egiteagatik. Era berean, epaileak debekatu egin dio hamabost urtez alabarengana gerturatzea eta harekin harremanetan jartzea. Eragindako kalteengatik, konpentsazio gisa, 40.000 euro eta ordutik gehitutako interes tasak ordaintzera behartzen du. Halaber, guraso ahala kendu diote zortzi urterako.

Gertaerak duela hamar urte gertatu ziren, eta iragan urriaren 25ean egin zen epaiketa, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Lehen Aretoran.

ko Beldur Barik topaketen programa. Beasainen (Gipuzkoa) izanen dira aurten, abenduaren 1ean. Ikus-entzunezko lehiaketa da ekintza nagusietako bat. 12 eta 20 urte bitarteko gazteek egindako adierazpen artistikoak saritzen ditu, berdintasun ezari Beldur Barik jarrerarekin nola aurre egiten dieten erakusten dutenak. 300 lan inguru jasoko dituzte. ●

## Transei «tratu bortitza» ematea egotzi dio Gehituk Gurutzetako ospitaleari

### Maite Asensio

Trans Memoriaren Egunean harira Gurutzetako ospitaleko (Barakaldo, Bizkaia) Genero Identitatearen Unitatearen jarduna kritikatu du Gehituk elkarteak. Transei eta ez-binarioei «tratu bortitza» ematea egotzi dio LGTBI taldeak erietxeari, eta eskatu du pertsona horiek ez daitezela protokolo bideratu psikiatria sailera. Unitatean dituzten irizpideak ere auzitan jarri ditu.

EAEn transexualak artatzen dituen unitate bakarra da Gurutzetako. Bertatik igaro diren hamazortzi laguni inkesta bat egin die Gehituk, eta hortik ondorioztatu dute unitatera iristen diren «persona guztiak derrigortuta» daudela psikiatria sailetik igarotzera, «hormonazioa, sexua alda-

tzeko ebakuntza edo antzeko prozesuak aurrera eraman nahi badituzte».

Psikiatraren jarrera ere kritikatu dute. Esaten omen du badela «trans moda bat», eta bere gain hartzen omen du «trans errealak bereizteko» ahalmena; hala, bertara joandakoak «gezurtizat» hartu izan dituela salatu dute, eta haien identitateak «kapritxotzat edo nahasmentzat» jo dituela. Era berean, salatu dute endokrinologia zerbitzuan hormonak hartzea «eragozten» dietela lodiari, eta presioa egiten dietela argal daitezela.

Gehituk eskatu du Gurutzetako unitate horretan lan egiten dutenek trebakuntza berariazkoa izan dezatela, transexualen, ez-binarioen eta intersexualen errealitateen berri izan dezaten. ●

**Deusto**  
Deustuko Unibertsitatea

**INFORMAZIO SAIOAK**  
Aurrez aurre eta online

Azaroaren 6tik abenduaren 14ra

**Gradu eta gradu bikoitzak** honako ezagutza-arlo hauetan:

- zuzenbidea
- enpresa
- ingeniariaritzak
- hizkuntzak
- komunikazioa
- politika eta nazioarteko harremanak
- gizarte
- osasuna
- hezkuntza eta kirola

**Nor izan nahi duzu?**

Kontsultatu datak eta ordutegia

Iosu Alberdi

DONOSTIA— Espainiako gober-nuburu Pedro Sanchezen inbestiduraren ostean, legealdiari forma ematen hasteko garaia heldu da. Hartan, bere «zigilua» utzi nahi du EH Bilduk, koalizioaren Espainiako Kongresuko eledun Mertxe Aizpurua (Usurbil, Gipuzkoa, 1960) azaldu duenez. Horretarako, aurrekontuen inguruko negoziazioa da lehen urratsa, eta EH Bildu jada hasi da gaiaz hitz egiten PSOEko ordezkariekin.

### Gai ikusten duzue Espainiako Gobernua lau urteko legealdi baterako?

Uste dut baietz. Sanchezek berak horretarako borondatea adierazi du. Hurrengo sei hilabeteak erabakigarriak izango dira: gobernu mantentzen bada, eta uste dut horrela izango dela, legegintzaldi luze batera joango gara. Ez da erraza izango, bistakoa baita eskuinak presio handia egingo duela.

### Argitu dira ministroen izenak. Kontinuista da PSOEko kideei dagokionez, eta ez da Podemosko ordezkariarik.

Kontinuista da hainbat ministeriotan, baina beste batzuk berriak dira. Lurralde arazoari dagokionez, pertsona berri bat [Angel Víctor Torres] sartu dute Lurralde Politikarako, eta [Presidentetza eta Justizia ministro Felix] Bolaños izango da gizon indartsua. Printzipioz, ondo ikusten dugu, baina ibilian ikusiko da ea benetan asmatzen ari diren. Eta Sumarren eta Podemosen arteko kontua distorsio faktore bat izango da, bai. Ez da kudeaketa on bat egin, eta triste da berriro ikustea Espainiako ezkerrek ez duela jakin neurriak hartzen momentu erabakigarrietan.

### EH Bilduri kritikatu zaio akordiorik ez sinatu izana inbestidura babesteko. Zergatik hartu zenuten erabaki hori?

Uste dut batzuek erabili egin nahi dutela erabaki hori. Politika konbentzionalak badu joera bat beti zerbaiten truke gauzak egitekoa, eta lehian sartzekoa, «nik hau lortu dut eta zuk baino gehiago lortu dut» esanez. Baina konbentzituta nago: erabaki honek ez du jendea harritu. Hasieratik esan genuen emango genizkiola botoak es-

# «Eskuinari ateak ixtea ez da babesaren hutsaren truke ematea»

## MERTXE AIZPURUA

EH Bilduren eleduna Espainiako Kongresuan

Sanchezen inbestidura babestea defendatu du Aizpurua, eta uste du badela aukera legealdia luzea izateko: «Hurrengo sei hilabeteak erabakigarriak izango dira»



GORKA RUBIO / FOKU

kuina geratzearen truke, eta eskuinari ateak ixtea ez da babesaren hutsaren truke ematea. Aurreko legegintzaldian ere, inbestidura saioan ez genuen akordio bat egin, eta abstenitu egin ginen. Geroa etorri da euskal herritarrentzat oparoa izan den legealdi bat. Akordio oso onak lortu ditugu, eta legegintzaldi honek ere gure zigilua izango du.

Asko hitz egin da inbestidura saioaren ostean gertuago egongo ote den zentsura mozio bat Iruñeko Udalean. Gaia hizpide izan da? Ez. Iruñekoa tamalgarria da; PSOERI esker eskuineko gobernu bat egotea, funtzionatzen ez duena. Hemendik aurrera, ikusiko da zer joera hartzen duen, eta logikoena litzateke herritarrek esandakoari kasu egitea.

Sanchezek konpromisoa hartu du «lurralde ereduari buruzko» eztabaidari heltzeko, baina zehaztuta konstituzioaren esparruan egin behar dela hori. Aldaketa bat bazegoen Sanchezen erantzunean. Lurralde arazoari heltzeko borondate osoa erakutsi zuen. Eta egia da konstituzioa aipatu zuela, baina modu ezberdin batean. Esan zuen egoerari eta denborei egokitu behar direla interpretazioak. Bada aldaketa bat, funtsezkoa. Beraz, ontzat jotzen dugu, eta hemendik aurrera denon ardura da hori egia bihurtzea. Ekiten hasteko prest ikusten duzue?

Egia da bultzatu egin behar dela. Baina, hemizikloaren argazkiari begiratuta, ez dauka beste erremediorik. Pedagogia demokratiakoaren bidean asko dago lantzeko, eta, segur aski, PSOEk ere egin beharko du lan bere hautesleekin eta militantziarekin.

PSOEn eta EAJren arteko akordioan, elkarren arteko ituna jarri dute estatutu berri baterako urratsen erdigunean. Nola jorratu nahi du gaia EH Bilduk?

Uste dut herri itun bat egin behar dela. Eta hemen bai, denok batera joan behar dugu, bestela hankamotz geratuko da eta. Garrantzitsua da indarra erakustea, eta sendotasun hori bertako akordio batek emango du. Batak bestearekin egindako akordioek ez dute ibilbiderik egingo ez badaude Euskal Herrian bertan ondo sustatuta. Lanketa hori egin beharra dago, eta abertzaleen eta erabakitzeko eskubidearen alde posionatu diren alderdien ardura ere bada. Akordioa hemen lortu behar da, eta hortik aurrera Madrileran eraman.

Gogoratu zenuen zuek ez zenuela bat egin lan erreformare-

kin. Hura egokitzeko eskatuko duzue?

Bide horretan jarraituko dugu. Mahai gainean jarriko ditugu zintzilik geratu ziren hainbat gai. Lan erreformari dagokionez, egia da ez zela bete esandakoa. Horregatik bidali genuen bidalitako mezua inbestidura saioan.

Azken legegintzaldian, blokeko alderdi guztiak ez ziren beharrezkoak legeak onartzeko. Orain ez da hala izango.

Ez, baina erretratatu beharko dira aurrerapen sozialei ezezkoa ematen dietenak. Aritmetikak hor daude, eta ezkerreko babes handiagoa da eskuinekoa edo zentrokua baino. Gure zigilua izango dute hainbat legek, eta bestela ez dira aterako, mozal legearekin gertatu zen bezala. Denok gara garrantzitsuak, baina batzuk beste batzuk baino gehiago.

Hurrengo urratsa aurrekontuak dira. Ari zarete hitz egiten?

Hartu-emanak martxan dira. Abiada bizian hasiko da orain dena, adierazi baitigute euren nahia dela azkar egitea. Hainbat lorpen ekarri ditugu euskal herritarren onurarako, eta orain ere hortik joango gara. Ez dugu sorpresarako



«Akordio oso onak lortu ditugu, eta legegintzaldi honek ere gure zigilua izango du»

«Aritmetikak hor daude, eta ezkerreko babes handiagoa da eskuinekoa edo zentrokua baino»

tarte handirik utziko. Alde batetik, lortu ezin izan ziren hainbat gai ekarriko ditugu hizpidera. Bestetik, eskubide sozialak areagotzea eta ongizatea bermatzea euskal herritar guztiei.

Beste kontu garrantzitsu bat izango da laster: Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak. Hasi zarete horretan lanean?

Lana etengabe egiten da hauteskunde guztiei begira. Bagatotez bide bat eginez, eta bide horretan babes handiagoa lortzen ari gara. Erakundeetan egiten dugun lanak babesten gaitu, eta konbentzituta nago oso emaitza onak aterako ditugula. Hauteskundeak irabaztera goaz. Egiteko erak aldatu behar dira hainbat alorretan. ●

### PINTURAS MELO, S. COOP.

kooperatibak jakinarazten du bere helbide soziala aldatzea erabaki duela eta aurrerantzean Andoainean, Kaletxiki 26-3.ean izango duela.

## Otegi berriro aurkeztuko da EH Bilduko koordinatzaile nagusi kargura

EH Bilduko koordinatzaile nagusi Arnaldo Otegi esana zuen «erabakitzeko eskubidea irabazia» zuela koalizioko lehendakariagaia bera izango ote zen edo ez. Eta, atzo, berretsi zuen EH Bilduko koordinatzaile gisa jarraitzeko hautagaitza aurkeztuko duela, baita erabaki bat hartu duela lehendakariagaia izatearen inguruan ere. Datorren astelehenean emango du horren berri, EH Bilduren Mahai Politikoan.

Otegi zehaztu zuen hariturik duen erabaki hori lotua dagoela «famiaren aldagaierekin». Hilabete gutxi barru egingo diren Eusko Legebiltzarrerako bozei begira, Mahai Politikoak hartuko du azken erabakia, dena den: «EH Bilduko lehendakariagaia izan behar badut, hala izango naiz».

2016an, espetxetik atera berritan, Otegi lehendakariagaia izan zen, baina inhabilitazioak zapuztu zuen hautagaitza hori. Orain ez dago betorik. Hala ere, orain arte ez da gertatu Eusko Jaurlaritzako lehendakariagaia eta EH Bilduko koordinatzaile nagusia pertsona bera izatea, eta ikusteko dago joera hori hautsiko den ala ez.

Kontuak kontu, hautagaia izendatzeko prozesuan urratsak egingo ditu koalizioak datozen asteetan. Lehen mugarrria, hilaren 27ko Mahai Politiko izango du. Otegi bere erabakiaren berri emango du foro horretan, eta horren arabera jorratuko du gaia Mahai Politikoak. Aurreratu zuen, ordea, EH Bilduren Batzar Nagusia datorren urteko irailera aurreratuko dela. ●

# «Egindakoaren aitortpen publikoa» eskatu diete estatuaren biktimek arduradun politikoei

→ Egiari Zor fundazioak Santiago Brouard eta Josu Muguruza gogoratu ditu, haiek hil zituzteneko urtemugan.



OMENALDIA. Brouarden eta Muguruzaren senideak, Bilbon egindako ekitaldian. M. RAMIREZ / FOKU

### Gotzon Hermosilla

BILBO—Egiari Zor fundazioak «egindakoaren aitortpen publikoa» eskatu die «estatuaren erakundeek, Poliziari eta erantzule politikoei», eta «horren ondoriozko erantzukizunak beren gain» har ditzatela galdegin: «Ez dugu horren inguruko gaitzespen orokorrik behar». Estatuaren indarkeriaren biktimek Santiago Brouard ezker abertzaleko buru-

zagi historikoaren hilketaren 39. urteurrenean egin dituzte adierazpen horiek, Josu Muguruza HBko parlamentaria hil zutenetik 34 urte bete direnean.

Ohi bezala, ekitaldi bikoitza egin zuten Bilbon, Brouard eta Muguruzaren omenez, hil zituzteneko urteurrenean. Lehenbizi, lore eskaintza eta ekitaldi politikoa egin zituzten Ametzolako parkean, Brouarden omenezko oroitariaren ondoan. Gero, par-

te hartzaileak oinez joan ziren Errekalde auzoraino, eta han, Muguruza oroitzeko margolanaren azpian, bertso saioa, musika emanaldia eta ekitaldi politikoa egin zituzten.

Egiari Zor fundazioaren ize-nean Pilar Garaialde mintzatu zen, Triple A erakundeak hildako Paulo Garaialderen alaba. Garaialdek «urrats bat egiteko» eskatu zien «estatuaren estrategiari babes politikoa eta mediati-

koa eman ziotenei, isiltasun ituna sinatu zuten eta haien adostasunaz terrorismoa estatuaren beste tresna bat bihurtzeko modua eman zuten».

### «Tratu asimetrikoa»

Biktimei «tratu asimetrikoa» ematen zaiela salatu zuen Garaialdek, eta zenbait adibide eman, horren adierazgarri: esaterako, gogorarazi zuen Txabi Etxebarrieta eta Jon Urzelai «ustezko exekuzio estrajudizialen biktime» izan zirela, eta Bilboko alkate Juan Maria Aburto eskatu zion beste kasu batzuetan erakutsitako «prestasun berberaz» jokatu dezala, eta abian jar ditzala «kasu horiek argitzeko dokumentazioa eskuratzeko mekanismoak».

Garaialdek ahotan hartu zuen ekainaren 26an Eusko Jaurlaritzak torturaren biktimek aintzat hartzeko egindako ekitaldia ere. Esan zuenez, ekitaldi hartako adierazpen instituzionalean biktimen eskaera eta aldarrikapen batzuk jaso zituzten estreinako aldiz, eta Egiari Zor elkarteak «positibotzat» eta «eskertzeko modukotzat» jo zuen hori. Hala ere, deitoratu zuten ekitaldi hartan lehendakariak parte hartu ez izana, hara joateko beren-beregi eskatu zioten arren: «Erantzun zuen prozesu hau amaitzean agertuko dela. Noiz? Zazpi urte barru? Hamar urte barru?».

Biktimen ustez, Jaurlaritzak ere urratsak egin behar ditu «Ertzaintzak eragindako kaltearen aitortpenari dagokionez», eta gogorarazi zuten ekainaren 26ko ekitaldian ofizialki onartutako 66 biktimeko baten kasuan Ertzaintzari egozten diotela eskubide urraketa.

Ekainaren 26a Estatuaren Biktimek Oroitzeko Eguna izendatzea nahi du Egiari Zor-ek, eta Garaialdek itxaropena agertu zuen, «laster» egun horri dagokion ekitaldia egin ahal izango dutelakoan Donostiako La Cumbre jauregian, «Estatuaren Biktimen Memoria Gune gisa eraldatu beharreko horretan». ●

bertako  
igogailuak | ascensores

# -REKIN BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA  
943 903 450

BIZKAIA  
946 523 935

ARABA  
945 712 822

NAFARROA  
848 870 917

www.bertako.eus



UEMAren azken batzarreko talde argazkia, irailean, Ataunen. MAIALEN ANDRES / FOKU

## Iragarri dute Hondarribia UEMAn sartuko dela

→ Hondarribiko EH Bilduk egin du jakinarazpena

→ Erabakia aste honetan bertan hartuko dutela esan dute

### Arantxa Iraola

«Hilabeteak dira jada Hondarribiko EH Bilduk bultzatuta prozesua martxan jarri zuela udalak, eta ostegun honetan onartuko da udalbatzan Hondarribia UEMako kide izatea». Hondarribiko EH Bilduk (Gipuzkoa) atzo eman zuen albistea: Hondarribia udalerrri euskaldunen mankomunitate UEMako 104. udala izango da.

«UEMAk gaur egun hainbat ildo eta zerbitzu ditu euskaraz bizi nahi duten udalerrien beharrei erantzuteko», gogoratu du koalizio abertzaleak. Alde horretatik, uste du mankomunitatean sartzeak lanak erraztu egiten dituela «euskaraz bizitzeko» eta «euskarak behar duen arnagune

izateko bidean», eta «tresnak» ere emango dizkiela udalei eta herri-tarrei bide horretan egin beharreko urratsak samurtzeko. Beraz, positiboa iruditzen zaie bertan sartzea: «Herriko euskararen normalizazioan pauso garrantzitsua dela deritzogu».

### Lezo ere bai

Mankomunitateak aditzera eman duenez, beste herri bat ere sartzeko bidean da. Gipuzkoakoa da hau ere: Lezo. Heldu den asteko udalbatzarrean egingo dute gaiari buruzko bozketa: hilaren 29an.

Bizkaian ere indartzen ari da mankomunitatea. Mendexako Udalak hilaren 2an erabaki zuen UEMAn sartzea. EH Bilduko bost ordezkarien eta EAJko bi ordezkarien

karien aldeko botoekin hartu zen erabakia, aho batez, osoko ohiko bilkuran. Aurrez, irailaren 21ean, Zeanuri sartu zen. Aho batez hartu zen han ere erabakia, EH Bilduko bost ordezkarien eta EAJko lau ordezkarien aldeko botoekin.

Martxoan ospatu zuen UEMAK ehun udalerrien langa gainditu izana, Azpeitian egindako bilkura batean. Orduan mankomunitateko ordezkariak nabarmendu zuten «mantendu» egin behar direla euskararen arnagune diren udalerririk; «euskararen biziberritzean ezinbestekoak» direla gogoratu zuten. Hizkuntzaren «ezagutzaren eta erabilezaren arteko arrakala» leuntzea ere bada mankomunitatearen lehentasunen artean. ●

## HITZ GUTXITAN

### Altzürüküko gizon bat hil da Balaitusetik erorita, 12 urteko semearekin zegoela

**BAIONA**— Altzürüküko (Zuberoa) aita-semeak Balaituseko tontorrera (Aragoi, Espainia, 3.144 metro) zihoazen herenegun eguerdian. Aitak kranpoi bat galdu zuen eta mendian behera erori zen, *Sud Ouest* egunkariaren arabera. 12 urteko semea, telefonoz deitu ahal izateko seinalerik gabe, laguntza bila abiatu zen. Bi mendizale aurkitu zituen, jaisten lagundu zioten eta jendarmeei deitu zieten. Aita, 47 urtekoa, hilik aurkitu zuten.

### Bilboko ehiztari bat hil da Burgosen, 25 metroko amildegi batetik erorita

**BURGOS**— Bilboko ehiztari bat 25 metroko amildegi batetik erori sen herenegun Burgosko (Espainia) Cantonad tontorrean (963 metro), basurde ehizean ari zela. Gizonak 46 urte zituen eta sortzez Burgosko Sopeñana herrikoa zen. Larrialdietako langileek 16:15 aldera jaso zuten ehiztariak izandako istripuaren abisua, eta herenegun 19:40 aldera aurkitu zuten haren gorpua, leku malkartsu batean.

### Bere burua entregatu du ustez ertzain bati Barakaldon pistola lapurtu zion gizonak

**BARAKALDO**— Larunbatetik ari zen Ertzaintza Barakaldon (Bizkaia) gertatutako lapurreta bat ikertzen. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburu Josu Erkorekak atzo Radio Euskadin azaldu zuenez, gizona bat ertzain baten etxean sartu zen, eta bizkar zorro bat eraman zuen. Haren barruan zegoen ertzainaren arma. Erkorekaren arabera, identifikatu zuten ustezko lapurra. Indarkeria matxistaren biktima da ustezko lapurraren bikotekidea, eta zaintza berezia jarri zioten. Pistolaren ustezko lapurrak bere burua entregatu zuen atzo arratsaldean, Ertzaintzaren Deustuko (Bilbo) polizia etxean, *EITB.eus*-en arabera. Atxilotu egin zuten.

### Erasotzaileak Santi Cocaren bila joan zirela esan du haren anaiak epaiketan

**DONOSTIA**— «Erasotzaileak propio joan ziren haren bila», esan zuen Iker Cocak, Santi Cocaren anaiak, atzo, epaiketan. Santi Coca 2019ko apirilean hil zuten, Donostiako dantzaleku bateko kanpoko aldean, jipoituta. Egunotan egiten ari dira ustez Santi Coca jipoitu zuten bost gazteren kontrako epaiketa —seigarren akusatatu batek ihes egin zuen—. Iker Cocak atzo ziurtatu zuen akusatuetako bat dantzalekuaren kanpoko aldean zegoela, baina ezin izan zuen zehaztu jipoian parte hartu zuen. Iker Cocaren arabera, hamar edo hamabi lagun ikusi zituen bere anaiari ukabildakadak eta ostikoak ematen.



### Mikel Zuazabeitia Errasti

Agur eta ohore gure zuzendari,  
tristura dugu nabari,  
baina jarraituko dugu  
zuk erakutsitako kantar kantari.  
Hori izango da gure omenaldi!

**OLAGARRO Abesbatza**

HONDARRIBIAN, 2023ko azaroaren 19an

## Eskelak

(0034) 943-30 40 30 • [eskelak@bidera.eus](mailto:eskelak@bidera.eus)

**Berria.eus/eskelak**

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak



DIRUDUNAK. Aberats baten yatea, Dominikar Errepublikan. ORLANDO BARRIA/EFE

# Enpresa eta dirudun handiei zergak igotzeko eskatu du Oxfamek

- Munduan 6,4 bilioi dolar gehiago bilduko liratekeela kalkulatu du erakundeak.
- Energia berriztagarriak finantzatzen lagunduko lukeela uste du.

## Iñaut Matauko Rada

Oxfam Intermon GKE gobernu kanpoko erakundeak karga fiskal handiagoa eskatu du enpresa handientzat eta munduko pertsonarik dirudunenentzat: munduko biztanleriaren %1 dirudunenari, 77 milioi pertsonari, %60ko zergak ezartzea proposatu du. Du-baiko (Arabiar Emirerri Batuak) COP28 goi bileraren atarian egin du eskaera erakundeak.

«Gehien kutsatzen dutenek kostua bere egin behar dute», adierazi du Lourdes Benavidek, GKEko Klima Justizia arduradunak. Izan ere, SEI Stockholmgo

Ingurumen Institutuak egindako ikerketa baten arabera, munduko biztanleriaren %1 dirudunena 2019ko karbono emisio guztien %16en erantzule izan zen; errepideko garraio guztiek urtebetean eginiko emisioak baino gehiago dira.

Dirudunen karbono isuriei neurria hartzeko argitaratu ditu datuak Oxfamek. Europako Batasunean, %1 dirudunenek batez beste txiroenen %50ek kutsatzen dutena halako hamalau kutsatzen dute. Munduko %1 dirudunenak, berriz, karbono isuri guztien erdien erantzule izan ziren.

Egoera ikusita, Oxfamek uste du enpresa handiei eta dirudunenei zergak handituta trantsizio ekologikoa bizkortzeko inbertsioa handituko litzatekeela, eta horrek energia iturri berriztagarriak bultzatzea ekarriko lukeela. Zehazki, kalkulatu du zergak handituta mundu osoan 6,4 bilioi dolar gehiago bilduko liratekeela: «Dirudunenei zergak aplikatzeak berdintasunik eza eta klima larrialdia borrokatzeko aukerak handitzen ditu. Bilioika dolar daude jokoan, eta diru hori ezinbestekoa da desberdinkeria txikitzeko eta ingurumenean duen

## Bi graduko igoera gainditu du munduko tenperaturak

- Europako Batasuneko Copernicus behatokiak egindako neurketaren arabera, munduko batez besteko tenperaturak estreinakoz gainditu du bi graduko igoera, egun batez. Azaroaren 17an, 2,07 gradu beroagoa izan zen airearen tenperatura, industria aurreko aroarekin alderatuta (1850-1900). Eta larunbatean, berriz, 2,06 beroagoa. Geroztik, jaisten hasi da termometroa, iturri beraren arabera, eta bi graduko langaren azpitik jarri da harrezkero. Ez da 2023ak utzitako marka bakarra: uztaila inoizko hilabeterik beroena izan zen.

eragina murrizteko», adierazi du Benavidek.

Energia berriztagarrietan inbertsioa handitzeaz gain, zerga horiek zerbitzu publikoak hobetzen ere lagunduko dutela adierazi du Oxfamek. Dirudunen karga fiskala handitzeaz gain, beste eskari batzuk ere egin dizkie gobernuei: aberastasunaren banaketa justuago bat bermatuko duten neurriak hartzea, erregai fosilak ahalik eta lasterrena alboratzea, eta biztanleriaren eta planetaren ongizatea lehenestea, besteak beste.

## Kalteak txiroenetan

Oxfamen ustez, dirudunen karbono isuri handiek txiroenengan eta periferiako herrialdeetako biztanleengan dute eraginik handiena. Tenperaturaren igoeraz gain, klima aldaketa zikloi handiak, desertifikazioa eta uholdeak eragiten ari da munduko hainbat txokotan, eta desberdinkeria handiko herrialdeek pairatzen dute gehien hori guztia. GKEak adierazitakoaren arabera, uholdeen ondorioz hildakoak zazpi aldiz gehiago dira desberdinkeria handiagoko herrialdeetan.

Kalkulatu dute gehiegizko isurien eta beroaren eraginez 1,3 milioi pertsona hilko direla, gehienak 2020 eta 2030 bitartean. «Klima aldaketaren ondorioek gehiago eragingo diete ardura txikien dutenei: pobreak direnei eta baztertuta daudenei, eta etorkizuneko belaunaldiei. Egungo ekonomia eta kontsumo ereduak jasanezina da. Praktika suntsikorak amaitu behar dira, eta soluzio jasangarriak hartu», esan du Benavidesek.

Azaroaren 30ean hasiko da COP28 klima aldaketari buruzko Nazio Batuen Erakundearen konferentzia, Arabiar Emirerri Batuetan, Dubain. Petrolio ekoizlerik handienetarikoa da emirerria, zerrendan zazpigarren postuan baitago. *Batu. Ekin. Bete* da goi bileraren izena, eta deskarbonizazioarako bidea alde guztiek batera egitea dute helburu, petrolio industriak barne, Simon Stiell NBEko Klima Aldaketaren idazkari exekutiboak azaldu zuen moduan.

2022an onartutako Galeren eta Kalteen Funtsa indartzea izango da konferentziaren helburuetako bat. Funts hori klima aldaketaren ondorioak gehien pairatzen dituztenak konpentsatzeko da. Bestalde, trantsizio ekologikoa eta energia iturri berriztagarrien zabalpena azkartzeko helburua ere badute. Horrez gain, zortzi urteren ostean, 2015eko Parisko Hitzarmenak izan duen eragina ere aztertuko dute. ●

## HITZ GUTXITAN

### Jantzi dendetako langileen protesta bateratua

DONOSTIA— Hego Euskal Herriko arropa eta oinetako denda handietako langileek manifestazioa egin zuten atzo Gasteizen, sektorearen «estatalizazioa» salatzen. Hainbat multinazionalen ARTE patronala sortu zuten iaz eta Espainiako sindikatu nagusiekin lan hitzarmen bat adosteko mahaia osatu dute.

### Mercabilbaoko greba «ontzat» jo du ELAK

BILBO— Atzo eta herenegun lanuzteak egin zituzten Mercabilbao banaketa zentroko fruta eta barazki arloetan, eta ELAK balorazio «positiboa» egin du, ehun langile inguruk parte hartu baitute. «Argi utzi dute ez daudela ados patronalaren proposamenekin eta soldatak KPIaren arabera eguneratu behar direla»

## KOPURUA

# 10

Eusko Jaurlaritzak hamar milioi euroren abal lerro bat jarriko du Euskal Finantza Institutuaren bidez, enpresek epe luzeko energia kontratuak egin ditzaten. Enpresa txiki eta ertainentzat da laguntza, ziurtatzeko ez direla enargiarik gabe geratuko.

### Igor Villarreal izendatu dute Mubileko buru

DONOSTIA— Igor Villarreal (Donostia, 1972) izendatu dute Gipuzkoako Mubil mugikortasun zentroaren zuzendari, Ane Insausti Ekonomia Sustapeneko foru diputatuaren hutsunea betetz. Zientzia kimikoetako lizentziaduna da, eta aurretik Ikerlan zentro teknologikoko ikertzailea izan da.

# Errezeta neoliberalak itzuliko dira Argentinara

- Ultraeskuineko hautagaiak irabazi ditu presidentetzarako bozak, bigarren itzulian, botoen %56 bilduta.
- Abenduaren 10ean hartuko du kargua.

Jon Ordoñez Garmendia  
Gorka Berasategi Otamendi

Argentinak «gizadiko lehenengo presidente liberal libertarioa» izango du, kargu hori hartuko duen Javier Mileik berak atzo adierazi zuenez. Hauteskuendean bigarren itzulia irabazita, aro berri baten abiapuntu gisa aurkeztu zuen bere burua, herenegun gauean, ultraeskuineko politikariak. Garaipenaren osteko lehenengo diskurtsoan, «aldaketa drastikoak» iragarri zituen. Jarraitzaileek pozik ospatu zuten peronismoa eta «kasta politikoa» gobernutik kendu izana; aldiz, beste asko kezkatuta daude herrialdeak egoera ezezagun batera jauzi egin duela iritzita.

Egia da Argentinak ez duela inoiz izan Mileiren gisako agintari disruptiborik, adierazpen polemikoak eta probokatzailak bata bestearen atzetik egiten dituen gobernuburu bat, erakunde publikoetan inolako esperientziarik gabea. Ezta LLA Askatasuna Aurrera Doa haren alderdiaren modukorik ere boterean; besteren artean, eskuin muturreko korronteak, libertaristak eta anarkokapitalistak biltzen dituen indar bat. Baina etiketatik harago, errezeta zaharrak dakartza Mileik: haren programa ekonomikoa bat dator, ia erabat, Argentinan beste gobernu batzuek ezarri dituzten programa neoliberalekin. Hala ondorioztatu du Celag Latinoamerikarako Geopolitika Zentro Estrategikoak; egindako

ikerketan baten arabera, neurrien %90 dira aurreko beste programa neoliberal batzuetako berberak. Aldi guzti horiek utzi dituzte krisi ekonomiko eta sozial sakonak.

Mileik abenduaren 10ean hartuko du Argentinako presidente kargua. Inkestek iragarria zuten Sergio Massa hautagai peronistari gailentzeko aukerak izango zituela, baina harridura eragin du herenegungo bozetan lortu zuen aldeak. Bigarren itzulian, botoen %55,7 jaso zituen LLAko hautagaiak, eta %44,3 Massak. Azken hori izan zen boto gehien bildu zituen lehena itzulian, eta horrek itxaropena piztu zuen haren Aberriaren Aldeko Batasuna koalizioan. Baina Mauricio Macri presidente ohiaren bultzada erabakigarria izan da Milei boterera hel dadin. Ultraeskuineko hautagaiaren aldeko botoa eskatu zuten, haren hautagai Patricia Bullrich lehiatik kanpo geratu zenean, lehena itzulian. 6,2 milioi boto jaso zituen Bullrichen lehena itzulian, eta hiru milioi botoren aldea ateratzen dio Mileik Massari azken bozketan.

## Aldaketa «azkarrak»

Hauteskuendean irabazi ondoren egindako lehen agerraldian, Mileik adierazi zuen Argentinaren «gainbehera amaitu» dela eta herrialdea «berriro eraikitzen» hasiko dela. «Amaitu da kastaren erredua. Askatasunaren ereduari heldu diogu gaur berriro, 35 urte barru munduko potentzia bat izateko berriro».



Aurretik Argentinan politika neoliberalak ezarri diren bezala —1970eko hamarkadan diktadura militarren eskutik, 1990eko hamarkadan menemismoarekin eta 2015-2019 artean, Macriekin—, gastu sozialari «motozerra» sartzearen alde egin du Mileik. «Gaur amaitu da nonahiko estatuaren eredu pobretzailea, soilik gutxi batzuei mesede egiten diena, argentinargehienek sufritzen duten bitartean. Gaur amaitzen da estatua politikoen eta beraien lagunen artean banatzeko altxor bat denaren ideia». Besteak beste, Hezkuntza eta Osasun ministerioak desegin nahi ditu, eta gizarte laguntzak murriztu.

Bozkatzeko garaian, Argentinako egoera ekonomikoa izan da herritarren kezkarik handiena; bereziki, inflazioa. Argentinan %140ko igoera izan dute prezioek iazko urritik. Mileik berehalako esku hartzeak agindu ditu, eta boto emaileek saritu egin dute promesa hori. «Ez dago erdibideetarako tarterik», adierazi zuen presidente hautatuak, eta «aldaketa estruktural azkarrak» iraga-

Javier Milei ultraeskuineko hautagaia, bozen emaitzak jakin ostean. JUAN IGNACIO RONCORONI / EFE



«Gaur amaitu da nonahiko estatuaren eredu pobretzailea, soilik gutxi batzuei mesede egiten diena»

«Askatasunaren ereduari heldu diogu gaur berriro, 35 urte barru munduko potentzia bat izateko berriro»

JAVIER MILEI  
Argentinako presidentea

rri ditu, Argentinaren «historiako krisirik larriena» eragozteko.

Horrez gain, Mileik hitzeman du 2020an onartutako abortu legea indargabetuko duela, eta militarrei barne segurtasunean parte hartzea baimenduko die. Zalaparta handia eragin dute baita ere presidente hautatuak Argentinako diktadurari buruz kanpaina esandakoek: «gehiegikeriak» egin zirela, baina giza eskubideen erakundeek salatzen dituzten 30.000 desagertuak «aitzakia bat» besterik ez direla «lapurtzen jarraitzeko».

Garaipenak garaipen, Mileik ezin izango du bakarrik agindu, ez baitu gehiengorik izango Kongresuan. Guztira 350 eserleku daude, eta ganberan 38 diputatu izango ditu; Macriren alderdiak, berriz, 94. Beraz, azken horien beharra izango du ultraeskuinekoak aurrerantzean ere. Hala ere, eskuineko blokeak ez du gehiengo osorik, eta sakoneko erreformak onartzeko nahitaezkoa izango zaio Aberriaren Aldeko Batasuna koalizioarekin negoziatzea. Esaterako, herrialdeko ekonomia dolarizatzeke. ●



SOSLAIA

# Javier Milei

Argentinako presidentea

## Idea zaharrak, eldarnio berriak

Marcos Tedin-Uriburu Castro

**A**rgentinako dirua-  
ren balio galera  
eta inflazioa ezin-  
bestekoak izan  
dira Javier Milei  
(Buenos Aires,  
1970) anarkokapi-  
talista boterera  
heldu ahal izate-  
ko. Abenduaren  
10etik aurrera,  
lider ultraeskuin-  
dar, negazionista eta txakurzale  
bat izango du Hego Amerikako  
herrialdeak. Milei ekonomista da,  
eta ospe handia lortu zuen Argen-  
tinako telebista kateetan agertzen  
hasi zenean, 2014an. Besteak bes-  
te, jarrera haserrekorra zuela, ho-  
nako mehatxua egin zuen: «Segi



JUAN IGNACIO RONCORONI

ziztuan, gorri etxekalteok». Klase  
politikoaren aurka ere egin zuen,  
«kasta» izendatuta. Horrez gain,  
atezaina eta rock musikaria ere  
izan zela kontatzen zuen.

Eztabaida «filosofikoak» izaten  
zituen hainbat saiotan. Akademi-  
kotzat jotzen du bere burua, eta,  
«dogmatikoa» dela aitzakia erabi-  
lita, ezin zuen erantzun haurren  
edo organoen salmentaren aur-  
ka zegoenik. Ezin zuen erantzun,  
ezta ere, demokraziaren alde  
zegoenik. Izan ere, Argentinako  
azken diktadura militarra defen-  
datu zuen (1976-1983): «Gehie-  
gikeria batzuk egin ziren». Milei  
pertsonei erakargarria eta berria  
zela iruditu zitzaizkien argentinari.

Berria iruditu arren, ideologia  
zaharren nahasketa bat da Milei.  
Alde batetik, eskola austriarra-  
ren jarraitzaile sutsua da; XIX.  
mendean sortutako pentsamen-  
du eskola horrek merkatu librea  
goraipatzen du, eta azaltzen du  
estatua ahalik eta gehien txikia-  
gotu behar dela. Mileiren ustez,  
kapitalismoaren logika ardura-  
tuko da gaur egun estatuak ku-  
deatzen duenaz. Adibidez, herri  
txiki batek hiri batekin konekta-  
tzeko errepide bat behar izanez  
gero, nork eraikiko luke? Zera  
erantzun zuen Milei: «Sektore  
pribatuarentzat errentagarria ez  
bada, gizartearentzat desiraga-  
rria ez delako da». Beste aldetik,  
kontserbadore amorratua da:  
abortuaren eta heziketa sexua-  
laren aurka dago, eta Argentina-

ko azken diktaduraren eta klima  
aldaketaren negazionista da.  
Bere ustez, kontu horiek guztiak  
«marxismo kulturalak» sortuta-  
ko gezurrak edo sozialismoaren  
asmakizunak dira.

Idea horiek zaharrak izan  
arren, Milei nobedade gisa sar-  
tu zen Argentinako politikan,  
2021ean. «Zerbait berria probatu  
nahi dugu», entzuten zen Argen-  
tinako kaleetan, egoera ekono-  
mikoaz nekatutak. Ekonomista  
trebea izan da azken urteotan  
horretaz aprobetxatu, eta etenga-  
beko gorakada izateko. Telebista-  
ko saio guztietatik igarotzen zen,  
«kasta beldur da» oihukatzen,  
klase politikoa mehatxatzen.

Estrategia horrek balio izan  
zion presidentetzarako hautes-  
kundeetako kanpainako lehenen-  
go fasean. Gobernuaz eta egoera  
ekonomikoaz nekatuta zeudenek  
berhala egin zuten bat LLA Aska-  
tasuna Aurrera Doa plataformare-  
kin. Horrez gain, ultraeskuindar  
guztiak ere batu ziren mugimen-  
duarekin: bai diktaduran parte  
hartu zuten torturatzailerak, bai-  
ta nazismoa goraipatzen dutenak  
ere.

Hala ere, azken hilabeteetan,  
eta batez ere bozen lehenengo  
itzuliko emaitzen ostean, Mileik  
lasaitu behar izan du bere jarrera,  
berak kritikatzeko zuten kastaren  
—eta batez ere Mauricio Macri  
presidente ohiaren (2015-2019)—  
babesa lortzeko. Ekonomistak  
berak proposatu zituen neurriak  
ukatu behar izan ditu: osasuna eta  
hezkuntzaren pribatizazioa, do-  
larizazioa eta banku zentralaren  
itxiera. Macrik, kontserbadoreen  
erreferenteak, hautagai ultraes-  
kuindarra bozkatzeko eskatu zien  
argentinari, esaldi bitxi batekin:  
«Lasai, ez ditu egingo gustatzen ez  
zaizkizun gauzak».

Herriarrek Mileirekiko di-  
tuzten mesfidantza eta beldurra  
ulertzeko, bere bizitza pertso-  
nalan eta publikoan izan duen  
jarrera ezagutu behar da. Pole-  
mika ugari izan ditu azken hila-  
beteetan; besteak beste, leporatu  
diote bere arrebarekin txortan  
egiten duela, quarteto musika —  
Argentinako musika estilo eza-  
guna— gorroto duela eta arazo  
psikologikoak dituela. Hori dena  
ukatu egin zuen, Instagram sare  
sozialaren bidez.

Mileik esana du gurasoak, be-  
rarentzat, «hilda» daudela, bere  
bizitza zoritxarreko bihurtu ziole-  
lako. Bere aholkularirik gertuena  
Conan da, 2017an hil zen eta bost  
aldiz klonatu zuen txakurra; bera-  
rekin hitz egiten du medium ba-  
ten bitartez. Horrek ere laguntzen  
du ekonomistaren osasun menta-  
laren inguruan dauden zalantzak  
ulertzeko. ●

## Kaosaren terapiarekin, Argentina berri bat pizteko promesa egin du Mileik

Iruñe Lasa

Motozerrarekin jo eta su  
hasiko da Javier Milei, minis-  
terioak, banku zentrala eta  
pesoa eraisten? Edota behin  
boterea lortuta, pragma-  
tismora joko du, eskuin ez  
horren muturrekoarekin  
—Mauricio Macri presidente  
ohiaren (2015-2019) jen-  
dearekin— eskutik helduta?  
Eskuin ofizial-tradizionala  
ultrarradikalak baretzeko gai  
dela dioen kondaira berriz  
ere proban jarriko da, nore-  
kin eta Mileirekin, non eta  
Argentinan.

%142ko inflazioarekin da-  
goeneko ahituta dagoen he-  
rrialdeko ekonomiak bide  
izugarri malkartsua du aurre-  
tik. Lehen konbultsio handia  
berhala espero da: pesoaren  
beste debaluazio bat. Argen-

tinako Banku Zentralak ez du  
nazioarteko erreserbarik pe-  
soaren balioari eusteko, eta  
Mileiren garaipenak piztutako  
zalantzak areagotu egin dira  
dibisa merkatuetan.

Horrek beste argudio bat  
eskain diezairoke presidente  
berriari Argentinako ekono-  
miaren dolarizaziorako. Zerbaitegatik jardun da Milei  
azken hilabeteetan, «excre-  
mento» (gorotza) deitzen pe-  
soari. Dolarizazioak, haren  
promesa arranditsuenak, or-  
dea, itxaron egin beharko due-  
la uste dute analista gehienek;  
presidente berriak zailtasun  
handiak izango dituelako Kon-  
gresuan babesak lortzeko; bai-  
na, batez ere, banku zentralak  
dolarrik ez duelako 622.000  
milioi dolarreko (570.000  
milioi euro) ekonomia dolari-  
zatzeko.

Dolarrak pesoa ordezkat-  
zea, eta horrekin Argenti-  
nako banku zentralari dirua  
inprimatzeko aukera kentzea  
da Mileiren promesa handia  
inflazioa galgatzeko. Baina  
hura iritsi artean, inflazioa  
makurtzeko bidea, ziurrenez,  
gastu publikoa murriztea eta  
gerrikoa are gehiago estutzea  
izango da, %40ko pobrezia  
tasa duen Argentinan. Lehen  
aizkorakadak laster iritsiko  
dira, Sergio Massa Ekonomia  
ministro eta hautagai peronis-  
tak presidentetzarako hautes-  
kundeetara begira ezarritako  
laguntza gehienek iraungipen  
data iristear dutelako.

Ultraeskuindarrak dena  
hankaz gora jartzeko prome-  
sarekin bereganatu ditu argen-  
tinarrak, shock terapiarekin  
Argentina pizteko. Arriskua,  
dena den, hortxe dago. ●

# Israelgo armadak esan du Gazako operazio militarra «zabaldu» duela

- Militarrek azaldu dute zerrendako «beste auzo batzuetara» hedatuko dutela inbasioa.
- NBERen arabera, 1,7 milioi herritar baino gehiago lekualdatu dira.

Ander Perez Zala

Israelgo armadaren operazio militarra, hau da, Gazaren inbasioa, oraingo, eremu horren iparraldera mugatu dute militarrek. Iragan aste hasieran, ordea, hurrengo pausoen lehen zantzuak eman zituzten, zeharka izan bazen ere, eta herenegun bertan armadak plan horiei buruzko baieztapen moduko bat egin zuten: esan zuten erasoaldia «zabaldu» egin duela «Gazako zerrendako beste auzo batzuetara».

Gaza hirian daude egun Israelgo militarrek, baina Jabaliako errefuxiatuen kanpalekuan dauden zibilei —zerrendako handiena da— eta inguruko kostaldean daudenei ebakuatzeko deia egin zieten herenegun militarrek. Hori aintzat harturik, eta, bestalde, armadak joan den astean eskuorriak bota zituela Khan Yunisen ekialdean dauden herritarrei mendebaldera joateko esanez, armadak aditzera eman du ofentsiba, pixkanaka bada ere, hegoaldera hedatzen ari dela.

Horren guztiaren beste zantzu bat larunbatekoa da: gutxienez 80 lagun hil zituzten Jabaliako iheslarien eremua bonbardatuta, bai eta beste hamabost lagun ere Khan Yunisko eraikin bati eraso egitean; Israelgo armadak orain arteko aitzakia berbera erabili du hori justifikatzeko: Hamasen ustezko azpiegituren kontra ari direla.

Atzo, gainera, Palestinako Wafa al-biste agentziak argitaratu zuten eremu horretatik gertu dagoen Indonesiar ospitaleari ere eraso ziotela eta, gutxienez, hamabi lagun hil zituztela; leku koen arabera, tankeak eraikin horren inguruan daude. Anas al-Xarif kazetaria han dago, esaterako, eta Al-Jazeera telebista kateari adierazi zionez, «dena jomugan dago» Israelgo armadarentzat. MSF Mugarik Gabeko Medikuen arabera, herenegun ere 70 lagunetik gora hil

zituzten Khan Yunisen, oster, Nasser ospitaletik kilometro ingurura.

Arlo politiko eta juridikoan, berriz, Israelgo Segurtasun Nazionalerako ministro Itamar Ben-Gvirrek —eskuin muturrekoa— lege proiektu bat proposatu zuen «terroristek» nahitaez heriotza zigorra aplikatzeko —kasu horretan, palestinarrez ari da—, eta atzo eramatekoa zen testu hori parlamentura. X sare sozialean idatzi zuenez, espero du diputatu guztiek babesa emango diotela; ikusteko dago zer gertatuko den, bahituen senideak ordezkar horiekin bildu baitziren atzo, eta eskatu baitzieten ezezkoa emateko.

Nazio Batuen Erakundeak atzo jakinarazitako eguneraketaren arabera, Gazako 1,7 milioi herritar baino lekualdatu behar izan dira asteotan; hau da, zerrendako biztanleen %77.

## Etenaldirako inizatiba

Nazioartean, herrialde arabiarrek eta islamikoek osatutako ordezkaritza bat Gazarako su etena lortzeko ahalegintan ari da. Bira diplomatiko bat hasi dute zenbait ministrok, eta lehen gertokia Txina izan zuten, atzo. «Hemen gaude seinale argi bat bidaltzeko: borroka eta hilketak berehala gelditu behar ditugu, eta berehala bidali behar ditugu baliabide humanitarioak Gazara», azaldu zuten Saudi Arabiako Atzerri ministro Faisal bin Farhan al-Saudek.

Su etenerako deiak ugaritzen ari diren honetan, Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu behin eta berriz esan du duela meniarik onartuko Gazako milizia palestinarrek bahituak askatzen dituzten arte. Hain justu, afera horretan bitartekaritza lanak egiten ari tu dira Qatar eta AEB Ameriketako Estatu Batuak asteotan; badirudi akordio bat gertu dagoela, «datozen egunetarako», *The Washington Post* egunkariaren arabera. ●



JABALIA. Jabaliako errefuxiatuentzako kanpalekua.  
MOHAMMED SABER

## Urriak 23, astelehena

**A**tzoko gaua izan da bortitzea. Seiehun bat lagun erail dituzte Gazako zerrendan han eta hemen egindako erasoetan. Gaueko hamaiak aldera, eztanda bat aditu nuen, hurbil. Betiko segidan: misil baten ziztua, ilunpean argia, eztanda gero. Koltxoian etzanda nengoela, gelaren erdialdean (leihoetatik urrun), ia anesthesiatu eta lo egin nahian, ohar-tu nintzen laino ilun kaltegarri batek hartua zuela kalea. Inor ez zebilen kanpoan, itxuraz. Zenbait anbulantziaren zalaparta aditu nuen, denak batean iritsiak baitziren. Eztulka hasi nintzen. Metala sutan, errautsa: horrena zen usaina. Ur pixka bat edan behar izan nuen. Sutan neukan eztarria. Denak esnatu ziren, eta leihotik begira hasi. Kea, gero eta trinkoagoa. Hamabi anbulantzia kontatu nituen, kale bukaera aldera, ekialdera.

Normalean, haxe izaten da gure galdera: Non izan da? Normalean, ordu erdiren buruan dator notizia: esaterako, Trans in-

guruan izan dela, Jabaliako esparruaren erdialdean. Orain badakit haxe gertatu zela Transen gerrako hirugarren egunean, 50 lagun baino gehiago hil zituzten egunean. Oraingo honetan, ordea, berriak iristerako egunak pasatzen dira, informazioa ezin eskuraturik. Gerrako gauzarik aztoragarrienetako bat zera da, misilak zuegan metro batzuetara erorita ere ez dakizula non erori den zehazki, ordu batzuk eta are egun batzuk igaro arte. Berririk gabe, Internetik, ateratzeko aukerarik gabe, espekulazioetan ibili besterik ezin da egin, hor jo ote du edo han jo ote du.

Egiatoko janariaren falta sumatzen dut. Egun gehienetan, falafela jaten dut eguerdian, eta falafela gauean. Duela bi egun, oirlasko pixka bat erosi, eta berehalaxe frijitu nuen, Mohammedek, nire seme Yasserrek eta hirurok zer jana izateko. Sekulako oturuntza izan zen guretzat. Zertxobait gorde nahi nuen hurrengo egunerako, baina Mohammedek barre egin zidan: «Bihar ustelduta egongo da eta!». Bazuen zentzua: hozkailua ez zebilen, argindarrak ez eta. Beraz, oilaskoa ontzi batean jarri, eta balkoira eraman nuen, gauean freskura pixka bat izango baitzen. Denok inprobisatzen dugu krisialdietan, jakina. Baina gaur esnatu, eta konturatu gara oilaskoa ustelduta zegoela, kiratsa zeriola. Orain ez daukagu ezertxo ere jateko; anaia Ibrahim-i deitu diot, ea falafel pixka bat erosiko digun negozioa itxi baino lehen. Ibrahim ostatuan hartu duen familiaren etxera iritsi, eta sandwich moduko batzuk egin ditugu falafelarekin. Zerbait jaten dudan aldiro, iruditzen zait sekula probatu dudan jakirik goxoena dela.



## SERIEA | *Gazako egunerokoa (7)*



URRIAK 23, ASTELEHENA

# «Non izan da?», horixe galdera»

Atef Abu Saif Palestinako Aginte Nazionalako Kultura ministroa eta idazlea da. Urriaren 7an Gazan zen, eta han gelditzea erabaki zuen Israelen eraso hasi zenean. Bertatik idazten ari den egunerokoa BERRIaren esku jarri du, eta egunez egun argitaratuko da.

Testua ATEF ABU SAIF

Itzulpena BERRIAKO EUSKARA TALDEA Ilustrazioa EIDER EIBAR

Neure artean horixe pentsatzen dut, jango dudana azkena izango dela akaso.

Goizean, sorpresa hartu dut bizartegi bat zabalik ikusita. Ezin sarturik geratu naiz, ordea, gizon gazte asko baitzeuden kanpoko ilaran. Hori ikusita, nire anaia Ibrahim-i galdetu diot ea moztuko didan ilea bere makina txikitxo horrekin. Gure anaia Naeem zenak ederki moztu zizun ilea. Lehen Intifadan, etxeratze agindua zegoen bakoitzean, eta batzuetan berrogei egun irauten zuen, Naeemek moztu zien ilea auzoko gizon gehienei. Orain, Ibrahimek ahal duena egingo du.

Goizean, aldaketaren baten irrika etsiaz esnatu naiz. Etsigarria da gerra non bukatuko zain egotea. Eta sekula bukatzen ez bada? Astebete igaro, eta ez da bukatu. Beharbada, hilabete igarota ere ez da bukatuko, edo urtebete igarota ere ez. Guk, gerraren jomuga garenok, ez daukagu gerraren geroaz ezer esateko ahotsik. Ohartu naiz luzera begirako estrategia bat behar dudala, zuhurrago planifikatu behar dudala nire bizitza hurrengo aste eta hilabeteetarako.

Jabalian geratuko naiz gaur. Horrek esan nahi du ez naizela joango ospitalera Wissam ikustera, eta ez naizela joango prentsaren eraikinerara. Wissamengana joate hutsak lur jota uzten nau. Uste baino ahulagoa naiz, nonbait. Eta, batzuetan, luzera begira zer den onena, bada, horixe egin behar da. Bihar Wissam ikustera joan ahal izateko, hobe dut gaur ez joan. Atsedena hartuko dut.

Arreba Eixari deitu diot, ea modurik izango lukeen otordu bero bat prestatze-

ko guri. Pozik prestatuko duela erantzun dit. Haren senar Maher ere adiskidea dut. Oilasko pare bat hiltzeko prest dago, lorategi txikiko oilategian dituen horietakoak.

Gaur ez dut autoa erabili nahi, erregai gutxi du eta. Eta gehiagorik ez, gainera, gasolindegietan. Astebetean ezin izan dugu gasolina botatu; beraz, kontuz ibili beharra daukagu. Erregaia da orain gazatarren buruhausteetako bat: autoa edukiz gero, hobe larrialdietan bakarrik erabiltzea. Batzuek sorgailuak dituzte, baina gasolina behar horiek ere. Horregatik, ohikoa da ehunka lagun ikustea ilaran gasolindegietan, bidoiak eskuan, sorgailuak martxan mantentzeko esperantzaz. Atzo gasolindegietan jabea ikusi nuen Jabaliako esparruko sarreran, etsi-etsian eztabaidan gasolindegi parean bildutako batzuekin, haiei ikusarazi nahian ez zegoela erregairik batere, alfer-alferrik zeudela ilaran. Joango zirelakoan baldin bazegoen, oker zebilen. Gizon bat garrasika hasi zen: «Gasolindegia eduki, eta gasolinarik ez?». Eta jabeak erantzun, sumindurik: «Galdeio gerrari».

Eixaren etxera noa, esparruko Tal Az-zatar auzora, oinez. Honetara ezker, ez hotz eta ez bero uzten naute nire inguruan hiria zulatzen duten leherketek, gehiegi baitira dagoeneko. Hamazazpi egun pasatu eta gero, ez du zentzurik bizitza gelditzen ibiltzek: bizitzak aurrera segitu behar du. Jendea kalean dabil ostera ere, bortizkeria baretu balitz bezala; halakorik ez, ordea. Nonahi daude hondakin pilak, eraikinak erdi erorian. Oinez noala, gero eta hutsarte gehiago ikusten ditut hirian. Lagunen etxeak, kaleotako topografian egokitutako eraikinak, guztia galdu da. Haietako batzuk mugarriak ziren eskualdean. Zer gertatuko ote zaigu guri?

Hemen hiltzen diren guztiak gaiztakeria hutsez edo zorte gaiztoz hiltzen dira. Une horretan misila eroritako toki horretantxe zeuden, hori besterik ez. Jende gehiena batera eta bestera dabil, hara eta hona, asmatu nahian hurrengoan non egongo diren seguru. Inor ez da inongo bizilagun luzarorako.

Badago kontsolagarri txiki bat: suziriaren ziztua aditzen duzunean, badakizu ez zaituela harrapatuko. Suziriaren jomuga zeu zarenean, ez duzu aditzen nola hurbiltzen zaizun. Herio da, besterik ez. Hil egiten zara, besterik ez. Eta, hala ere, ametsetan herio ikusten dut, patxadaz dator, ezagutzeko moduan. Haren pausoak aditzen ditut. Hortzak ikusten dizkiot.

Eta gizaki gisa, espezie gisa ikasi dugun ezerk ez digu balio halako garaietan. Gelditu beharra daukat, momentutxo bat, eta artzain bati pasatzen utzi, kalea gurutzatu behar du-eta artaldearekin. Ehunka ardi eta ahuntz pasatu dira nire aurretik. Nekatuta daudela dirudi. Egunak eta egunak bazkatu gabe. Artegia husteru behartuko zuten, eta horregatik ibiliko da artzaina kalean, nik uste. Ez daki non sartu abereak, halaxe esan dit, eta kalean dauzka, batetik bestera. «Eta gauean?», galdetu diot. «Non tokatu, han lo, bai nik eta bai abereek».

Eixaren etxera iritsi, eta betiko galdera buruan: seguru ote gaude hemen? Hortxe dago beti segurtasunaren galdera, baina erantzunik ez. ●

HITZ  
GUTXITAN**Zelenskik lehentasuntzat jo du datorren urtean nazioarteko babesari eustea**

**KIEV**— «Datorren urtean ere Ukrainak nahikoa babes duela bermatzea da gakoa orain». Horixe esan zuen herenegun gauean Ukrainako presidente Volodimir Zelenskik, nazioari buruzko hitzaldian. Lehentasuntzat jo zuen 2024an ere Ukrainak orain arteko laguntzak jasoko dituela bermatzea; hain justu, AEBetako Alderdi Errepublikanoak hainbat kide Ukrainara bideratutako laguntza murriztearen alde egiten ari diren honetan.

**Gutxienez 32 lagun hil dira Hego Sudango armadaren eta milizien arteko borroketan**

**JUBA**— Gutxienez 32 pertsona hil eta beste hogeitazuritu zituzten atzo, Hego Sudango armadaren eta herrialdeko zenbait milizietako kideen arteko borroketan. Hego Sudango Abye eskualedean izan ziren liskarrak, Sudanekin mugan dagoen eremu batean. Eskualdeko agintarien arabera, liskarrak hasi ziren miliziek Alal eta Rumamer herrixkei eraso egin zuelako. Atzokoa, dena den, ez zen lehen liskarra izan; azken lau egunotan hainbat borroka izan dira hor, eta 70 lagunetik gora hil dira.

**Sonko inhabilitatuta, oposizioak Diumaye Faye hautatu du Senegalgo presidentegai**

**DAKAR**— Diumaye Faye izango da Senegalgo oposizioaren presidentegai, Lanaren, Etikaren eta Senidetasunaren Aldeko Senegalgo Abertzale Afrikarrak alderdiak atzo iragarri zuenez. Osmane Sonko zen oposizioaren lehen aukera, baina Senegalgo Auzitegi Gorenak ebatzi zuen ezin dela hauteskundera aurkeztu, «difamazioa» leporatuta. Horren harira, mezu irmoa helarazi nahi izan die oposizioak haren jarraitzailei: «Diumayeren alde egitea Sonkoren alde egitea da».



Alexander Lukashenko. PAVEL BEDNYAKOV / EFE

**Bielorrusian otsailaren 25ean egingo dituzte parlamenturako hauteskundeak**

**MINSK**— Bielorrusiako presidente Alexander Lukashenkok atzo iragarri zuenez, datorren otsailaren 25ean egingo dituzte parlamenturako hauteskundeak; eta apirilaren 4an, berriz, senaturako hauteskundeak egingo dituzte. 2020an presidentetzarako bozak egin zituztenetik, lehenengo hauteskundera izango da honakoa. Azkenaldi hartan manifestazio jendetsuak izan ziren han. Lukashenko da gobernu buru 1994. urtetik.



Montero (ezkerrean) eta Bolaños Kongresuan, aurreko martxoan. KIKO HUESCA / EFE

**Pisu handieneko ministerioak berdin utzi ditu Sanchezek**

→ Kabinetearen «profil politiko nabarmena» azpimarratu du Espainiako presidentek.

→ Sumarrek bost ministerio edukiko ditu, eta bakar bat ere ez du Podemosek zuzenduko.

**Igor Susaeta**

Pedro Sanchezek bere kabinete berriaren «profil politiko handia» aldarrikatu zuen atzo, eta nabarmendu ministro talde horrek «egonkortasuna» emango diola legegintzaldiari. PSOEkoa joan den ostegunean izendatu zuten Espainiako Gobernuako presidente, eta atzo jakinarazi zituen ministroen izenak, Moncloa jauregian irakurritako adierazpen batean. Gobernuak 22 ministerio edukiko ditu, hamabi emakumeek zuzenduko dituzte, eta bederatzi pertsona aurrenekoz izango dira ministro.

Aintzat hartuta inbestidurarako botoak eman dizkion blokea transbertsala dela oso, Sanchezek ez du aldaketarik egin pisurik handiena duten ministerioetan — estatu ministerioak esaten zaien horietan—, edo horietan konfiantzazko jendea jartzea. Esaterako, Fernando Grande-Marlaskak (Barne), Jose Manuel Albaresek (Atzerri) eta Margarita Roblesek (Defentsa) beren karguan jarraituko dute, baita Yolanda Diazek (Lan eta bigarren presidenteordea), Nadia Calviñok (Ekonomia eta lehen presidenteordea) eta Teresa Riberak ere (Trantsizio Ekologikoa eta hirugarren presidenteordea). Oscar Puente, presidentearen kabineteburua, Garraio Ministerioako burua izango da.

Berritasun nabarmeneneta-

ko bat da Felix Bolaños Justizia ministro izango dela. Azken kabinetearen Sanchezen konfiantzazko pertsonetako bat izan da, Esquerra Republicanarekin eta Junts Per Catalunyaekin inbestidura desblokeatu duen testua negoziatu dutenetako bat. Bide batez, Presidentetza ministroa izaten segituko du. Bestalde, gobernuak laugarren presidenteordea bat edukiko du, eta Maria Jesus Montero 2018az geroztiko Ogasun ministroak izango du ho-

rren ardura. Ana Redondok, berriz, Irene Montero ordezkaturako Berdintasun ministro gisa. Sumarrek, bestalde, UP Unidas Podemosek 2020-2023ko legegintzaldian bezala, bost ministerio zuzenduko ditu.

Espainiako Gobernuak bozeramaile berri bat izango du: Pilar Alegria. Gainera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministroa izango da aurrerantzean ere, eta Isabel Rodriguez ordezkaturako du eledun karguan. ●

**Elma Saiz, ustekabeen Espainiako Gizarte Segurantzako ministro****Joxerra Senar**

Bigarren aldiz, Elma Saizek Iruñeko Udala utziko du. Duela lau urte, Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun kontseilari izateko egin zion uko karguari, eta, orainoan, Espainiako Gobernuaren Gizarte Segurantzako ministro izateko. Ustekabean iritsi da albistea, Pedro Sanchezen gobernu osatuko duten ministro hautagaien zerrendetan eta kineletan ez baitzen ageri haren izena. Gobernu kideen artean den euskal herritar bakarra da; Ione Belarra

nafarrari hartuko dio lekukoa. Maria Txibiteren ondoren, PSNren barruan kapital politiko handieneko emakumea da Saiz. Horregatik izan zen Iruñeko hautagai, baina, alkate izateko helburutik urrun geratuta, orain Madrilerako bidea hartu du. Ziurrenik, Santos Cerdanek, PSOEko Lurralde Antolamenduko idazkari eta Sanchezen konfiantzazko gizonak, zerikusituzena izan du erabakian. Haren alde jokatuko du iragan legegintzaldian lau aurrekontu aurrera ateratzeko gai izateak, Nafarroako Gobernu gutxiengoan izanik ere. ●

## De Rerum Natura

@zaldieroa



# Iritzia

## Motozerra



**HITZETZANAK**  
Andoni Egaña

**E**dozein berriketalditan, gaia edozein dela ere –Israel eta Palestina, ekonomia krisia, autonomia eskumenak, preso politikoak, lapurreten gorakada...–, «nik hau aitaren batean konponduko nitek» esaten duenari adi jartzen natzaio beti. Entzutekoak izaten dira haren esanak, umorez hartzeko hobeak serio hartzekoak baino. Populistaren definizioa: ertz asko dituen arazoari erantzun borobilegia ematen dakiena.

Horrelakoak kalean, tabernan edo futbol zelaietan aurkitzen zenituen lehen. Aginte karguetan ezagutu ditugu gerora. Jesus Gil y Gil, Kantabriako presidentea, Bolsonaro, Donald Trump... Kalean,

blagan eta marmarrean, grazia egiten zutenak desgrazia bihurtzen dira gehiengan agintera iristean. Eta orain Javier Milei argentinarren presidente!

Motozerra batekin azaldu izan da hauteskunde kanpainako mitinetara; pribatizazioen alde dago; gure lehen ondasuna gure gorputza dela aitortzen du, baina abortatzeko eskubidearen kontra dago; klima aldaketarekiko negazionista da; garrantzia kentzen die diktadura garaiko tortura, erailketa eta desagerketei; orain lau txakur ditu, baina lehen bat bazuen –Conan–, orain zendua. Hark argitzen omen dio bidea ilunaldietan. Puf! Datuon bilketa eginda, hemen ere ez lebilke arrakastatik urruti. ●

## Motozerra Argentinan



**DERRADAN, BIDENABAR**  
Martxelo Otamendi

**A**rgentinaren batek peronismoa zer den azaldu badizu eta ulertu badizu, seinale gaizki azaldu dizula». Aspaldiko txantxa da.

Aise irabazi zituen herenegun hauteskundeak Javier Mileik tangoaren –eta beste gauza askoren– herrialdean: botoen %56 eskuratu zituen Mileik, eta %44 Sergio Massa ofizialistak. Azken urteotan ezkerretara jo duten herrialdeek osatutako itsasoan (Txile, Brasil, Kolonia...) muturreko eskuinaren uhartea izatea erabaki zuten igandean argentinarek. Estatuaren oinarritzko zerbitzuen publikotasuna (hezkuntza, osasuna...) mitinetan eskuetan erakusten zuten motozerrarekin ebakitzea agindu zuen presidente berriak kanpainan.

Beldurraren botoak bere alde jokatu zuen esperantzarekin irten zen igandean etxetik Massa peronista. Alferrik.

**Eskertza:** Esku artean daukagun egunkari berritzailea –diseinuan eta edukien proposamenean– azken hilabeteotan lantzen jardun duen BERRIAko lantaldeari, emaitza bikaina delako.

**Aitortza:** Zutabe honi izenburu generikoa eman dion esapidea, *Derradan, bidenabar*, Xalbador Garmendia euskara jasoaren zaleak erabili zuen 2003an, Anoetan (Gipuzkoa), BERRIAren aldeko ekitaldi batean. Orduz geroztik eduki dut gordeta, erabiltzeko egokiera topatu zain. ●

## Istripuak



**LARREPETIT**  
Goizalde Landabaso

**I**stripua. Horrela esan dio Joel Guerriau Frantziako Horizons alderdiko kide eta senatariaren abokatuak *jazoerari*. Joan den asteartean Guerriauk bere Pariseko apartamentura gonbidatu zuen ordura arte adiskide zen Sandrine Josso diputatua. Guerriauk (ustez, noski) droga sartu zion edarian. Helburua, Josso bortxatzea (ustez, berriz ere). Diputatua, baina, txarto sentitu zen. Gertatutakoaz jabetu, eta ahal izan zuen moduan atera zen apartamentutik. Ospitale batera heldu, jazotakoa esan, eta probak egin zizkieten. Analiakiak argiak izan ziren: odolean extasia zuen. Sandrine Jossok salaketa jarri zuen lagun ohiaren kontra. Poliziak Guerriau-ren etxea arakatu, extasia aurkitu, eta senatariari droga analisia egin zion. Bere odolak opiaseo, *cannabis*, anfetamina, kokaina, eta extasi zantzuak zituen. *Istri-*

*pua* diotson abokatuak Guerriau gizon zintzoa dela dio.

Gordan Grlic Radman-ek ere istripuztat jo zuen. Europako atzerri ministroen batzarra egin zen Berlinen, eta argazkia ateratzeko orduan, Kroaziako ministroa (Gordan Grlic Radman) Annalena Baerbock Alemaniako ministroa alboan, agurtzera joan eta (zer istripu izango ote zuen buruan!) ezpainetan musu emateko keinua egin zuen hamaika hedabideren aurrean. Alemaniako atzerri ministroak burua biratu zuen txunditurik. Istripua izan zela esan zuen.

Klinika pribatu batean langile bat 82 urteko emakume bati proba batzuk egiten ari zitzaion, eta ohetxoan etzanda zegoelarik andrea, zutiturik zuen zakila eskuetan jarri zion, behin eta bigarrenez. Istripua hori ere. Epaitua izan da.

Zenbat istripu, gero. ●

# Publikoa da bidea eta etorkizuna

Arkaitz Aburto

EHIGEko presidentea

**H**ezkuntza Ituna, 2022ko martxoan sinatutakoa, euskal herritarrei eta hezkuntza-eragileei euskal hezkuntzak dituen arazoak konpontzeko balio estrategiko handiko aurrerapen gisa saldu bazitzaieen ere, Jaurilaritzak eskola-plangintzari, itunpeko ikastetxeen finantzaketari eta abarri buruz hartutako lehen neurriek kritika gogorak eragin dituzte hezkuntza- eta gizarte-sektore garrantzitsuen aldetik.

Alderdi politikoek jendaurrean orain akordioak gero desadostasunak antzetzen dituzten bitartean, Euskal Eskola Publikoaren hobekuntza baldintzatzan ari diren arazo nagusiak konpondu gabe daude oraindik, eta, are okerrago, arreta jaso gabe.

Ia hamarkada bat igaro da Uriarte sailburuak Heziberri 2020ren helburuak eta arazo sistemikoak konponduko zituzten «bost ildo estrategiko» opes- tsuak hezkuntza-eragileei aurkeztu zizkigunetik. Prozesu hori hezkuntza-lege berri batean amaituko zen. Hala ere, Europar parekorik ez duen erradikalizatutako gure hezkuntza-sistema publiko-pribatutik eratorritako ekitate-arazoez, maila sozioekonomikoaren eta eskola-arrakastaren arteko harreman estuak, hizkuntza-ereduen mugek eta agortzeak, eskola publikorako gobernantza deszentralizatu berri baten faltak eta abarrek zaildu egiten dute Euskal Eskola Publikoa euskal hezkuntza-sistemaren ardatz egiturazaila eta sare nagusia izateko helburu estrategikoa.

EHIGE eta HEIZE bezalako elkarteek, Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar proiektuaren bitartez, bi hamarkada baino gehiago daramatzagu euskal gizarte justuagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeke proposamenak aurkezten hezkuntza-agintariei. Hezkuntza-eragile gisa dugun zeregina bete dugu, eta hezkuntza-agintariei antolatu dituzten kontsulta-prozesu guztietan parte hartu dugu, ekarpen ondo arrazoituak eta zehatzak eginez, eta gure eskola-komunitateen barne-prozesu parte-hartzaileetan onartu diren jarrerak eta estrategiak defendatuz.

Hainbeste denbora igaro denean eskola publikoa euskal hezkuntza-sistemaren aurrerapenaren alde lanean ari denetik, eta datozen hamarkadetan euskal hezkuntza arautuko duen Hezkuntza Legea berehala onartu nahi denez, kezka-iturri batzuk aipatu nahi ditugu:

- Ekitatearen eta hezkuntza-kalitatea hobetzearen alde lan egiten jarraituko dugu, gurea bezalako hezkuntza-sistema dual erradikalizatu batek sortzen dituen ondorio negatiboak ezabatuz. Ildo horretan, ez ditugu bultzatuko sare pribatua

indartzea sustatzen duten politikak, eta ez ditugu babestuko arlo publikoaren esanahia desnaturalizatzen saiatzen diren helburuak. Ez ditugu babestuko sare pribatua eskola publikoaren lehentasun eta estatus sozial maila berean jartzen saiatzen diren politikarik eskola-postuen plangintza-prozesuetan, finantzaketan, hezkuntza-berrikuntzako inbertsioetan eta abarretan.

- Parte hartuko dugu kontsulta- eta eztabaida-prozesuetan, titulartasun pribatuko ikastetxeak sare publikoan integratzeko arau-esparru bat sortzen laguntzeko.

- Euskal Eskola Publikoak hezkuntza-sistemaren sare nagusi eta egiturazaila bihurtuko duen plan estrategiko bat behar du. Plan horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: oinarri ideologikoak, hezkuntza-printzipioak, finantzaketa, euskalduntzea, izaera publikoko eskola-plazzen plangintza, kudeaketa eta sorrera, eskola publikoaren autonomia eta gobernantza eta komunitatearen eta gizarte-ingurunearen parte-hartzea, hezkuntza-guneen pedagogia- eta antolaketa-baliabideak, eskola-curriculum sozio-kritikoa garatzea, hezkuntza-berrikuntza soziala, giza baliabideen hornidura eta egonkortasuna, etab. Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoa eskola publikoaren inertiak eta prozesu burokratikoak gainditu beharko ditu, eta hezkuntza publikoaren elementu eraldatzaile bihurtu.

Hezkuntza-agintariei eta arduradun politikoek ziurtatu behar dute plana ikastetxeetako hezkuntza-komunitateen partaidetza- eta eztabaida-prozesu baten emaitza dela, eta ez eskolatik kanpoko proposamen baten baliozkotzea.

- Euskal Eskola Publikoak Eusko Jaurilaritzaren kontsultarako eta aholkularitzarako kontseilu propioa izan behar du, autonomoa, eskola publikoa defendatu eta babestuko duena, Plan Estrategikoaren garapena eta jarraipena kudeatuko duena, eta sare publikorako hezkuntza arloko ikerketa- eta hobekuntza-proiektuak zehaztu eta bultzatuko dituen.

Eskola publikoak hezkuntza-eragileen eta hezkuntza-arduradunen arteko harreman-eredu bat eskatzen du. Kontsultatuak izatetik soilik (interesatzen denean), familiak negoziazio-erakunde gisa errekonozitu behar dira. Eskola publikoaren eskaerak hezkuntza-politika bihurtu behar dira, itunpeko irakaskuntzako patronalen eskaerekin egiten den bezala.

Bada garaia arduradun politikoek Euskal Eskola Publikotik aspalditik egin dizkiegun eskaerei erantzuteko. Euskal Eskola Publiko indartsu, prestigiodun eta erakargarria eraikitzea euskal familia guztientzat, maila sozioekonomikoa edozein dela ere, lehentasunezkoa izango da guretzat eta euskal gizarte justu eta kohesionatua ziurtatzeko.

Lege honi ez. Publikoa da bidea! ●

## Torlojuak



**JIRA**  
Maialen Akizu

**H**asieran ezezkoa esan nuen. Nola, ba, egunero kontatze korrik, eguraldiak ere ez. Uxa-uxa, ez dakit zeren tankera hartu didazuen, baina ni ez naiz hori.

Proposamena, ordea, kilkerren pare gogortu zitzaidan belarri atzean, eta honetan aritutakoei hasi nintzen galdezka: nola egiten duzue? Nola idazten da egunero zutabe bat? Zer behar da horretarako? Bizitzari adi egon, besteek esandakoari tamainan erreparatu, izan zeure buruan konfiantza. Halakoak esan zizkidaten. Eta oso ondo, baina nik egia entzun nahi nuen. Zutabeak egiteko benetako truko bat: jarri goizean goiz ezkerreko hankaren gainean, ipini buruan liburu bat parez pare zabaldua, itxi begiak, eta egin *atxis*. Tatxan: hortxe zutabea. Adibidez. Horrelakoak egiten imajinatzen nituen egunkaria hartu eta plazerez irakurri ditudanak. Baina inork ez dit halakorik aitortu.

Kafearen bukaeran hortz artetik ihes egin zion bati: «Bueno, gomendio bat emango dizut: torlojuak egin behar dituzu, ez diamanteak; torlojuak». Lanaren ikuskera bati egiten dio men aholkuak, baina lagundu zidala uste dut: ordutik torlojuak pijamako poltsikoan sartuta egiten dut lo. ●

## 'Beraskoitze'-ko berri



**BIRA**  
Ainize Madariaga

**H**azkurri urria duten substratuen gainean egokitze gaitasun izugarria du likenak. Gainera, muturreko tenperatura eta argi baldintza estremoak jasateko kapable da. Duela 419.200.000 urte ukan zuen likenak bere burua agertzeko merezimendua, bizitzari berari muzin egiten zion ikatz giroko paisaia. Baina hortik jalgi zitzaizkien arrainei hankak, eta iratzeak utzi zion bere baitan kiribilkatzeari, eta planetako izaki bizidunik gorenak zerua desafiatu nahi izan zuen: zuhaitzak, argira bidean, berdinen arteko lehian.

Paisaia horretan edeki zituen bortak Beskoitzeko ikastolak ere duela hamar urte pasa, likenak ukan zuen ausardia eta indar beraz. Baina, Beskoitzen, euskarak ez ditu merezi prefabrikatu zaharkituak baizik. Herriko etxeak deliberatu du itsuki eta itsuski ikastolari hankak ebakitzea, argirat buruz altxatzen utzi gabe: zernahi poxelu eman baitizkio, eta solasa errotik ukatu, eraitsiz eraikitzeke proiektua. Jantokitik uxatu ere egin ditu bizpahiru urteko ikasleñoak. Leizarraga bere tonban itzulikatzeke heinekoa da herriko etxearen politika-eskola eskoila. Parean izan gaitzezen liken. ●

# Akordiorik errazena



ARKUPEAN  
Iñaki Galdos Irazabal

**G**auza arraroa —ohiz kanpoko erabat— gertatu zen Vox alderdiaren fundazioak urriaren 29an Madrilan antolatutako manifestazioarekin. Denon harridurarako, PSOEren esku dagoen Gobernu Ordezkaritzak eta eskuin muturreko antolatzaileek parte-hartzaile zenbaki bera zabaldu zuten ekitaldia bukatu eta berehala: 100.000. Hori ikusita, bozkarioz, Abascalen akolitoez supituan bikoiztu egin zuten kopurua, hedabideei emandako prentsa-oharreen. Bistan omen zen ez zela hainbeste jende egon, baina hurrengo eguneko *El País* egunkariako azalean ulertu genuen Espainiako Gobernuaren eskuzabaltasunaren zergati maltzurra: hilabete lehenago PPK bildutako jende kopurua barregarri uztea.

Ehun milarena kopuru magikoa izan da historikoki mobilizazio politikoetan. *Deia* egunkariarentzat hori zen Alderdi Egun jendetsuenetako garaietan eman beharreko zenbakia, gehiegi puzten ari zirela nabarmen geratu zen arte. *Egin* egunkaria izan zen garai batean parte-hartzaileak kontaktzeko sistema bat asmatu zuena, sinesgarritasuna lortuz gainera. Baina Juan Mari Arregik, *Daniel Udalaiz* firma historikoak, plazaratua du egunkariko orduko administrazio kontseiluko presidentearen eskutik jasotako presioa, Ezker Abertzalearen manifestazio baten ondoren eman nahi zuten kopuruaren inguruan. Bere kaleratzea ere gai horri egotzi izan dio durangarrak neurri handi batean.

Berriki, eztabaida harrigarriak ere jarraitu izan ditugu sare sozialetan, Mugimendu Sozialistaren bueltako erakundeek deitutako zenbait manifestazio eta ekitaldi hipzide. Antolatzaileek emandako zifrak errefusatu nahian, izan da argazkiak handitu eta banaka-banaka pertsonak kontaktzen aritu izan denik ere. Bitxikeriak bitxikeria, garbi dago inoiz konponduko ez den kontu baten aurrean gaudela, zenbaketa lanak (ustez) egiten dituztenen interes politikoa delako guztia

baldintzatzen duena. Onar dezagun, gainera, ez dela lan erraza kaleetan egiten diren ekitaldietan asmatzea. Horregatik proposatzen zuen ironikoki Juan Mari Arregik, garai hartan, manifestazioak San Mamesen buka zitezela.

Sektore publikoko greben jarraitpenaren inguruan gertatzen dena da onartezina. Amorragarria ere bai, sindikatuek eta erakundeek ematen dituzten zenbakien artean dagoen diferentzia ikaragarria izan ohi delako. XXI. mendean, esku artean dauzkagun baliabide guztiekin, hau etengabe gertatu izanaren arrazoi bakarra garbia da: elkarren arteko xextra honetan ez dute interesik formula bat adosteko, oso agerian geratuko lirakeelako batzuen zein besteen unean uneko porrot eta arrakastak. Nahiago dute bakoitzak bere egia kontatu, norberaren jarraitzaileek itsu-itsuan sinetsiko dietelakoan. Bitartean, jende asko txundituta.

Administrazio publikoak erabili izan duen datu objektibo nagusia greba egunari dagokion soldata kobratuko ez duten langileena da. Bada zerbaite, eskertzekoa gainera. Baina ez du azaltzen, gutxienezko zerbitzuak direla-eta behartuta lanean dagoen

jende kopurua zenbatekoa den. Nola ez dagoen jakiterik aukera izanez gero horietako zenbatek egingo luketen greba, askoz ere argigarriagoa litzateke zehaztea zenbat diren greba egin dutenak, baina greba egin zezaketenen artean. Argitzen hasita, sindikatuek ere argitu beharko lukete ea grebalarien artean kontaktzen dituzten egun horretan lanera joan ez direnak, baina baja hartu dutelako edota dagokien egun libreteko bat. Izan ere, badago langile kopuru bat sarri horrela jokatzen duena, benetak grebalari askoren haserrerako. Aibilezia dutenak, gainera, batzuei greban daudela eta beste batzuei ez daudela sinetsarazteko.

Euren artean dituzten etengabeko eztabaida guztietatik, hau da lor dezaketen akordiorik errazena. Eskertu ez ezik, exijitu ere egin beharko luke gizarteak hori. Iraingarria baita batzuek esatea greba bat hamarretik bi langilek egin dutela, eta besteek erantzutea hamarretik zazpik jarraitu dutela deialdia. Hau guztia txikikeria dela esango dute askok, baina premiazko kontua iruditzen zait niri, arazoan benetako tenperatura ezagutzen asko lagunduko ligukeelako. Besteak beste. ●

## Sinplifikazio estilistikoa: galdu ote dugu geure identitatea?

Patricia Barron

Doktoretza aurreko ikertzailea EHU, sare sozialen alorrean

**G**ero eta interkonektatuagoa den mundu honetan, markek, arkitekturak eta modak neutraltasun bideari jarraitu diote «gustu on» unibertsalaren bila. Tipografian, arkitekturan eta modan azken urteetan ikusi dugunaren emaitza da sinplifikazio prozesu hori, eta zergatik ez esan, globalizazioaren ondorio zuzena ere bai. Hala, galdera garrantzitsu bat azalarazten du auziak: ororen nortasuna sakrifikatzen ari al gara uniformetasunaren mesedetan?

Egunoa ulertzeko, urte batzuk atzera jo behar dugu, estilo tipografikoaren zergatiak ezagutzera heldu arte, horretan baitago gure garaia pairatzen

ari den ezinegonaren hazia. Antzina, marka bakoitzak argi identifikatu nahi zuen bere negozioaren eta produktuaren nortasuna (alegia, izaera zen aldagai nagusia). Denok gogoratu ditugu zenbait marka klasikoren logotipo intrintsekoak, haiekin oso argia eta erraza zen bereiztea; adibidez, enpresa teknologiko baten tipografia eta erloju enpresa batena. Egun, ordea, Samsung (elektronika) eta Swatch (erloju) markak aldaketa honen eredu ditugu: sans-serif letra berbera erabiltzen dute haien logotipoetarako, eta hori askoren arteko kasu soil bat da.

Egiari zor, sinpletasunaren alde egin dugu azken aldian. Globalizazioak kultura eta hizkuntza mugak lausotu ditu; hori dela eta, hizkuntza unibertsal era-kosten duen estetika bilatzeari ekin diote markek ere; hots, zenbat eta tipografia bakunagoa, orduan eta eskuragarriagoa da

publiko guztientzat. Nahiz eta ikuspegi horrek marken izaera identitarioa ezabatzen duen. Bestela esanda, marka guztiek estrategia bera jarraituz gero, euren artean nabarmentzeko helburua ez lukete beteko, eta hori alferrik egindako ahalegina litzateke. Bada, nora doa publikitatearen benetako xedea? Inora ez.

Besteak beste, arkitekturaren munduan ere, estilo minimalistak lekua hartu du, eta garai bateko diseinu xehatuak baztertu. Produktu marken logoek bezala, egun, egitura garaikideek funtzionaltasunera jotzen dute; esaterako, arkitekturaren apainketa bereizgarriak lerro garbietara eta diseinu neutroetara pasatu dira. Alegia, hiri modernoak gero eta homogeneousagoak dira estetika-karen aldetik, guztion gusturako izatekotan; bide batez, bakoitzaren nortasuna galtzen ari da. Mundua, globalizazioaren pode-

rioz, gero eta berdina da; beste garai batzuetako distantziak murriztu dira (komunikazioaren arloan zer esanik ez). Horrek, jakina, abantaila izugarriak ekarri eta eskaini dizkigu; halaber, alde txarrak eta, batik bat, galera kulturalak ere bai. Herriek —eta horren barnean, hiriek— aspaldian eduki zezaketan ikonografia ahuldu dute; egokitu zaigun garai honek dena bihurtu nahi duelako salgai, hiriburuak batez ere. Denetan ikus ditzakegu negozio berdinak, bai kalean eta baita barneko egituretan ere, hala nola kafetegi multinazionalak eta arropa denda masiboak... Kasuak kasu, fenomeno bera da, eta horren aieru gorena marken ikurretan aise topa dezakegu.

Joera honekin bat egin du moda industriak ere; hots, joera minimalistadun «kapsula armarua» kontzeptuaren bitartez, hain zuzen ere. Horren bidez, oinarritzko eta erabilera anitzeko

arropa kopuru mugatua bultzatzen da; hamaika konbinazio izan ditzakeena. Praktiko eta jasangarria bada ere, sinpletasun horrek gure adierazpen pertsonala murrizten du. Ondorioz, jantzien aniztasuna eta sormena bigarren mailan geratzen dira, jendeak joera baitu «gustu oneko» estandar orokorrera egokitutako arropak aukeratzeko.

Oro har, aipatutako ohitura aldaketa horiek iradokitzen dute bai uniformetasunak zein sinpletasunak gure aroa definitzen dituztela, geure nortasunaren galbidean uzten gaituzte joera horiek guztiak. Horregatik da gure erronka sinpletasun unibertsal eta banakako adierazpena orekatzea; izan ere, hegemonia horiek unean uneko galdera erabakigarria egiten digute: prest al gaude nortasuna sakrifikatzeke usteko gustu global onaren izenean? ●

# Euskara dohakabearen lasaitua

Koldo Izagirre

Idazlea

**E**z da oraingo kontua, beti erantsi izan didate burlatxoren bat edo biga frantsesak eta gaztelaniak. Bekaitzez amorratuak bizi dira, ezin onez eraman euskaldunek berek amestu eta asmatu izana ni. Konplexuz beteak, latin lizundu hauek.

Egun, aldiz, ez naizela edo natzailea aski sexi enteratu naute euskaldunek.

Gaztelaniari ez diote halakorik leporatuko.

Frantsesari ez diote halakorik muskatuko.

Ingelesari ez diote halakorik bizkarretatuko.

Ni ez eta horiek bai, horiek bai sexi. Baina, erranen ote dit nehorik zerengatik sexi mintzaira horiek, zerengatik, eta bereziki non eta noiz eta nola diren sexi?

Etxeparek gizonezkoa banintz bezala oihi plazatik, Txirritak amona xaharra banintz bezala kantutik, Lizardik eme gazte poematik. Denek maite ninduten, anitzek abandonatzen. Denek maite nindutelako leloa lelokeria zelakotz.

Sexi izan behar dudalako leloa bezain lerdoki.

Maitagarria izan naiz mendez mende maite nindutenendako sexi izan behar gabetarik, bestenaz ez nuen edo nintzen hain luze biziren. Orain,

maitagarria ez baina, sexi izan behar? Durduzakizun garratz bat igarri dut edo diet hor: seximena landu behar dudala erranik, hiztun horiek baldintzak ezartzen dizkirate bizirik iraun truke. Hitztunei zor diet bizia, bai. Bortz mila urteren buruan ezin bizi sexualizatu barik? Eta, oroz gain, zerengatik ote naiz edo natzaizue sexi bilakatu beharra?

Horra malgua zabala erraza originala eta gazta gaztea izatearen saria.

Psikoanalista euskaldunarenera jo dut edo diot.

– Arazoa ez zara zu, arazoa ulertzen ez zaituztenena da.

– Sexi izan behar dudala euskaldunek berek erran didate barren!

– Hizkuntza bat hitz egin liteke ulertu gabe. Beldurra ematen die zu konprenitzeak, sentimena eraiki behar dugulakotz ulertuko bazaitugu. Azken finean, objektu eroso bat bihurtu nahi zaituzte.

Deserosoa naiz natzaizue beraz. Sexitasuna ulermenaren baztertze. Panpina puzgarri zapuzgarri bat. Izan liteke. Ordea, zerengatik beldurtzen ditu pentsamenduaren eraikitzeak?

Errak, Lizardi, ze iduritzen zaik?

Psikoanalista erdaldunarenera jo dut edo diot.

– Baina zer dela eta izan nahi duzu sexi?

– Hitztunek hala behar naute.

– Egizu kontu izan litekeen hizkuntzarik erakargarriena hizkuntza zanpazutitu bat dela. Oker ez banago, hemen, zu.

– Erdaldunendako ausaz bai, euskaldunendako ez.

– Zer duzu euskaldunen aurka?

Psikoanalista erdaldunen arabera, hala ere, onuragarria nuke edo genuke hiztun ergel zientoka batzuk galtzea. Nik berriz ez dut nehor abandonatutaren, neureganatu magaleratu altzora- egin nahi ditut edo nituzke, prest nago aita ama maitale izateko.

Errak, Etxepare, ze iduritzen zaik?

Sexiatra euskaldunarenera arribatu naiz edo naute.

– Ez genezake terapia bera erabili

hiztunak oro artatzeko. Desiren munda arrunt konplexua duzu.

– Ni hirurehun molde desberdinetan inklima edo deklina ninteke hiztun horiek denak banan-banan xarmatzeko.

– Hitztunak sedukzioaren gramatika ikasi behar du, berak seduzitu behar zaitu!

– Hitztunak ni? Ba ote?

– Bai, zirkuitu berriak aurkitu behar ditu garunean bilingue izateko!

Errak, Txirrita, ze iduritzen zaik?

Sexiatra erdaldunarenera arribatu naiz neurez edo neuraz.

Etzateko sofán lasai, itzaltzeko begiak.

– Entzun... Nire inguruko guztiak ikasi zaituzte, baina nik ez, nik ez nuen zu ikasi nahi, nik deskubritu egin nahi zintudan.

– Deskubritu?

– Hitzez hitz, zokoz zoko, kantuz kantu, bertsoz bertso, ximurrez ximur zure zorabio horretan nire bizia osatu, gozatu...

Begiak piztu ditut edo dizkit.

Sexiatra erdalduna besaulkian prentsa irakurtzen, marmarka...

– Castellano vaya mierda, français trou du cul...!

*El País* eta *Le Monde Diplomatique* harrika jaurti ditu, zutitu da...

– Zu bai, zu bai sexi!

Pikutara Etxepare Txirrita Lizardi guztiak!

Azken bi mila urteotan egin gogo nuen ahokada jalgi zait edo dut zozo zoro honi esker: Fuck you euskaldunak, fuck you bastards! ●

## Zuzendaritari



**Berria** irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta **Berria**k mozteko eskubidea du.

● Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita:

**Berria Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain.**

● Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: [iritzia@berria.eus](mailto:iritzia@berria.eus)

### Itasari kiratsa dario

Badira hamar urtetik gora Andoaingo Sorabilla auzoan kokaturik dagoen Itasa lantegiak, 24 orduz sortzen duen zarataz gain, sekulako kiratsa eskaintzen digula bertako bizilagunei. Gure inguruko belardi eta baratzeetan zabaltzen den ximaurrari ere usaina dario, baina horrek ez gaitu kezkatzen; hori badakigu zer den, eta lurrari on eginez gero, onartua dugu beharrezkoa dela.

Itasako keari darion kiratsak, aldiz, asko kezkatzen gaitu. Ez dakigu zehazki zeren ondorio den, eta usaina oso kimikoa denez, nazka, beldurra, ondoeza eta azkenaldian ezinegona sortu du inguruan bizi garenengan.

Itasak eskaintzen dituen produktuen katalogoa begiratu

gero aurkitzen diren produktuek nahiko inozoak dirudite: elikatze-enbalajeak, linersak, zinta itsaskorrak, Kraft papera, pegatina papera...

Eta produktu horiek ekoizteko erabiltzen diren osagaiak binil kloruroa, beira, silikonak... badirudi egunerokotasunean esku artean erabiltzen ditugunak direla.

Bai, esku artean erabiltzea ondo dago, aukera bat da, baina osagai horiek norberaren gorputzera sartzea ez da gauza bera; gure inguruko airea osagai horietaz kargaturik dagoela sentitzea eta hori arnasten ari garela jakitea ez da gauza samurra.

Norberaren etxeko leihoa irekitzen ausartzen ez denik ere badago gurean. Irudikatzen al duzue zuen etxeko leihoa ireki

aurretik inguruan usain eraso-korra dagoen ala ez ikuskatu beharrean bizitzea?

Ba horrela gabilta azken hamarkadan Sorabillako plazako biztanleak.

Eta ez da izango kolore ezberdineko udal agintariekin elkartu eta gure arazoa luzatu ez diegulako, ez. Ez da izango, ezta ere, udaletxeko Ingurumen teknikariak gai honi buruz ezer ez dakielako, ez. Beraiekin izan baititugu bilerak auzotarrok eta Auzo Elkarteak ere bai; usaina dagoen egun gehienetan mezuak helarazten dizkiegulako, eta hainbatetan udaltzainak ere bertaratu izan direlako usainaren parte hartzera.

Badakigu gaur egungo Andoaingo alkate den Andoni Alvarez irailaren 26an bildu zela Itasa enpresarekin, gai hau

tratatzeke, eta enpresak dioela lantegiko ekoizpen zehatz baten ondorioz isurtzen dituztela usain hauek. Badirudi bileraren ondoren udala Eusko Jaurlaritzarekin jarriko dela harremanetan, hau guztia aztertu eta zein konponbide jarri daitekeen aztertuko dutela. Noiz? Nola? Ez dakigu...

Dakiguna da Itasari oso ondo doakiola negozioa, etekin ekonomiko ederrak ateratzen dituela eta orain gainera Estatu Batuetako kapitala dagoela bertan inbertitua.

Horren aurrean zer gara gu? Babesik gabeko herritar xume batzuk baino ez... Badakizue, gainera, hego haize goxoetan izaten ditugula usainik handienak? Ba horietatik Sorabillako berriak, lagunak.

**Arantza Etxeberria**  
*Andoain*



# KINKA

KLIMA ETA NATURA KRISIAN



Podcasta eta buletina,  
**hamabostero**

HARPIDETU ZAITEZ  
BULETINERA

[Berria.eus/kinka](http://Berria.eus/kinka)

**aldi hau**  
*kontatzeko*

**berria**



Beñat Mujika Telleria

Estalpeko Munduko Trial Txapelketan bigarren postua eskuratu berri du Jaime Busto gidariak (Gorliz, Bizkaia, 1997). Goiz utzi zuen Euskal Herria, eta Kataluniarra joan zen bere ametsaren atzetik. Oso gazte zela, emaitza bikainak eskuratu zituen, eta urteak daramatza goi mailan. Estalpeko Munduko Trial Txapelketan Toni Bou soilik izan du aurretik, eta hura garaitzea du erronketako bat. Sasoi amaitu berri du, baina dagoeneko hurrengo denboraldia prestatzen ari da Katalunian. Han dela erantzun du telefono deia.

**Bigarren postuan sailkatu zara Estalpeko Munduko Trial Txapelketan. Zer hausnarketa egiten duzu hori lortu eta gero?**

Ikaragarria izan da, baina ez azken emaitza hori bakarrik. Esango nuke denboraldi osoa izan dela bikaina. Sasoi hasi aurretik ez nuen inondik inora pentsatuko lortu dudan guztia lortuko nuenik. Geure buruan, motor berriari egokitzeko urtea zen: pixkanaka-pixkanaka hobeto sentitu, eta ikusi nora hel gitezkeen. Baina emaitzak hasieratik iritsi ziren, eta urte ikaragarria izan da. Oso pozik nago egin dudanarekin.

**Gas Gas taldera itzuli zara aurreten. Horregatik uste zenuen egokitzeko urtea izango zela?**

Bai, hori da. Talde berri batera joaten zarenean, ez da erraza irudikatzen non egon zaitezkeen txapelketetan. Lehen esan bezala, egokitzapen bat beharko nuela pentsatzen nuen. Motor berrira egokitu, gauza guztiak niri gustatzen zaizkidan erara jarri... baina espero nuenaren guztiz kontrakoa izan da denboraldia. Lehen lasterketan oso denbora gutxi neraman motor berriarekin, baina oso gustura aritu nintzen; neure burua oso ondo ikusi nuen, oso seguru. Eta hasiera-hasieratik emaitza onak lortzeak ere hauspotu egin ninduen. Aurreten, gehiena positiboa izan da. Aurreko sasoiarekin alderatuta, ia denean hobetu dut. Askoz erregularragoa izan naiz denbora luzean, eta denbora asko neraman horren bila. Erregularitasuna lortzea oso zaila da; nik denbora asko behar izan dut erregular aritzeko, baina behin lortutakoan asebetegituen zaitu. Sasoi oso positiboa izan da alor pertsonalean, eta, orain, bide beretik jarraitu behar dut; hori da hurrengo erronka.

**Askotan azpimarratu izan duzu erregularitasunarena. Hori da zure poztasunaren arrazoi nagusietako bat, ezta?**

Zalantzarik gabe. Lanean modu irregularrean aritzea izan da nire gabeziak. Azken sasoi hau

# «Sasoi hasi aurretik ez nuen uste lortu dudan guztia lortuko nuenik»

JAIME BUSTO

*Trial gidaria*

Estalpeko Munduko Trial Txapelketan bigarren sailkatu da Jaime Busto gidari bizkaitarra. Espainiako txapelduna eta nazioen txapelketako irabazlea ere izan da aurreten. «Oso pozik» dago denboraldian lortutakoarekin.

hasi arte, pare bat lasterketa kas-kateatzen nituen beti beste lasterketa txukun baten ostean. Banekien zaila zela, eta bila eta bila aritu naiz. Azkenean oreka hori lortu dudala esango nuke, eta ez naiz podiumetik jaitsi lasterketa bakar batean ere. Hori lorpen pertsonal handia da niretzat.

**Zein izan da erregularra izateko gakoa?**

Zaila da entrenamendua ez den arrazoi bat bilatzen. Aurreten entrenamendua hasi genituen, hori zen helburuetako bat. Entrenamenduetatik hasita erregularrak izatea; horrela, lasterketa bakoitzeko esparru guztietan bete-betean aritzeko. Lan horrek fruituak eman ditu, eta oso pozik nago.

**Zuen txapelketak jardunalditan banatzen dira. Hortaz, erregularrena da irabazlea. Ez du ezertarako balio bi egun on izateak...**

Bai, hala da. Egia da kirol honetan zaila dela sasoi osoan ondo aritzea eta inoiz ez erortzea. Lortu dugun, baina gauza asko ditugu hobetzeko oraindik. Hori da pozgarriena, hobetzeko gauzak daukela, eta nik ere horiek hobetzeko gai ikusten dudala neure burua.

**Orain, merezitako atsedena hartu, eta zertan hobetu daitezkeen erabaki beharko duzue, ezta?**

Bai, hobetzen jarraitu nahi dut, eta honezkero egin ditugu zenbait aldaketa helburu horrekin. Nire gidatzeko erara ahalik eta ondoen egokitzeko, aldaketaxo batzuk egin ditugu. Betiere datorren urteari begira, eta garaipen lehian egoteko asmoz. Eta, zergatik ez, Munduko Txapelketan lehiatzeko.

**Luze gabe edo luzera begira, badiuzu buruan helburu berriak?**

Egia esateko, bai. Gogor entrenatzen hasiak gara, sasoi berriari ahalik eta modurik egokienean ekiteko, eta lehenengo lasterketan hutsik ez egiteko. Lasterketaz lasterketa joatea baina garaipenak kateatzea da asmoa.

**Hala ere, ondokoa oso ondo aritzen bada, zaila da garaipenak lortzea. Toni Bouk estalpeko txapelketan egin diren zazpi jardunaldietatik sei irabazi ditu, eta 34. garaipena eskuratu du azken horrekin.**

Dudarik gabe. Toni oso indartsu dago. Erreferente bat da kirol honetan hasten den edonorentzat. Aspalditik da munduko onena,



«Geure buruan, motor berriari egokitzeko urtea zen: pixkanaka hobeto sentitu, eta ikusi nora heldu gitezkeen»

«Aurreko sasoiarekin alderatuta, ia denean hobetu dut. Askoz erregularragoa izan naiz denbora luzean»

«[Toni Bou] Aspalditik da munduko onena, eta behin eta berriro erakusten du oso ondo aritzen dela»

«Trialak sona handiagoa izatea gustatuko litzaidake. Oso kirol polita da praktikatzeko eta ikusteko»

eta behin eta berriro erakusten du oso ondo aritzen dela. Zaila da hura berdintzen. Hala ere, hura aurrean edukitzea motibazio bat da niretzat. Toniri irabaztea izugarria izango litzateke, eta horretarako ari gara entrenatzen.

**Aurkariak zarete, baina hark askotan aipatu du zu izango zarela haren ondorengoa. Hori erronka bat izango da, baina presioa ere bai, akaso?**

Ez nuke esango presioa denik. Munduko onenak hitz horiek esatea ederra da. Baina nik nirean aritu behar dut. Horretarako ematen dut nire onena, noizbait munduko onena izateko.

**Erronka bat da Bouri irabaztea?**

Bai. Nik daukadan erronka pertsonal bat da. Lehenbailehen irabazi nahi dut zerbait, baina hura aurrean izanda. Asko gustatuko litzaidake hark erretiroa hartu aurretik irabaztea, eta urteak egitea elkarren aurkari moduan. Finean, aurkari on batek hobeto aritzera behartzen zaitu, eta lasterketa ederrak izango lirateke, lehia sanoan betiere.

**Estalian lortu dituzu azken lorpenak, baina mendian ere aritzen zarete. Zein dira desberdin-**





GAS GAS

### tasun teknikoak? Eta zein duzu nahiago?

Oso desberdinak dira. Estalikoa askoz teknikoagoa da. Zehaztasuna eskatzen du, eta esfortzu motzak eta azkarrak egiten dira, bost minutukoak. Aire zabalekoa askoz luzeagoa izaten da, eta fisiokoak garrantzi handia du. Jardunaldi berean bi modalitateei egin behar izaten diegu aurre. Eremu batzuetan irrist egiten du motorrak, beste batzuetan gurpilak hobeto heltzen du... desberdinak dira. Ni mendian hobeto aritzen naizela uste dut, baina biak ditut gogoko.

**Gaur egun, teknikak ez ezik, fisiokoak ere garrantzi handia dauka kirol guztietan. Egiten dituzun entrenamenduetan zenbat eskaintzen diozu teknikari, eta zenbat fisikoari?**

Ni oso motorzalea naiz, eta motor gainean entrenatzea gustatzen zait. Gimnasioko lana ere egiten dugu, nola ez, baina, hain kirol tekniko izanda, teknika lantzea gustatzen zait, eta hori motorraren soilik landu daiteke. Ehunekoetan esanda, entrenamenduen %80 motorraren, eta %20 gimnasioan.

**Ondo jateak ere geroz eta garrantzi handiagoa du goi mailako kirolean. Zuk asko zaintzen duzu hori?**

Egia esan, alor horretan asko daukat ikasteko. Nire inguruko gidari ugari garrantzi handia ematen diote elikadurari. Ni desastre samarra naiz horretarako, baina, hala ere, ahalik eta ondoena jaten ahalegintzen naiz.

**Nola iritsi zen triala zure bizitzara?**

Aita trialean aritzen zen, eta etxetik datorkit. Hasieran inolako helbururik gabe hasi nintzen. Haurrek gauza desberdinak probatzen dituzte, ondo pasatzeko intentzioarekin, eta ni ere halaxe hasi nintzen. Gero, lasterketa gutxi batzuetan hartu nuen parte, eta horietako asko irabazi egin nituen. Orduan hasi nintzen pentsatzen, lehen aldiz, ondo egin nezakeela.

**Gaur egun zenbat motor dituzu eskura? Eta nola aukeratzen dituzu?**

Lau ditugu garajeon, baina, normalean, azken orduko arazorik ez badago, beti motor bera erabiltzen dugu. Finean, konfiantza bilatzen dugu, eta betikoak ematen



## Lorpenak

**Nazioen Trialeko txapel-dun estalpean:** 2016an, 2017an, 2019an eta 2022an.

**Nazioen Trialeko txapel-dun aire zabalean:** 2017an, 2018an, 2021ean eta 2023an.

**Espainiako txapel-dun:** 2021ean, 2022an eta 2023an.

**Estalpeko Munduko Trial Txapelketan bigarren:** 2023an.

ten dizu hori. Dena den, lau motor berdin ditugu, badaezpada.

**Goi mailara iristeko, sakrifizioak egin behar izaten dira. Zu oso gazte joan zinen Bartzelonara bizitzera. Iruditzen zaizu zure adinekoek egiten dituzten gauzak egiteko aukera galdu duzula?**

Ez nuke hori esango. Egia da nire lagunak askoz gehiago ikusten dutela elkar, eta elkarrekin planak egiteko aukera gehiago daukate. Nik oso gutxitan ikusten ditut, eta triste da. Baina nik trialaren aldeko apustua egin nuen. Nire erabakia izan da, eta, txikitatik, gustuko dudana kirolek bizitzeko aukera daukat. Oso jende gutxi ematen saiatzen naiz. Ez nuke sakrifizio hitza ere erabiliko; oso pozik nago.

**Diru aldetik, berriz, gaur egun hainbat markarekin lan egiten duzuen arren, hasieran oso kirol garestia izango da, ezta?**

Agian nire gurasoak aproposagoak dira galdera horri erantzuteko... [barrez]. Antzeko kirolekin alderatuta, ez da hain garestia. Kartinga eta horrelako kirolak askoz garestiagoak dira. Baina,

noski, ez da kirol merkea, eta dirua behar da. Motor bat behar duzu; hura puskatzen bada, ordezko bat izan behar duzu, hori ere prestatu egin beharra dago... gauza asko dira.

**Nola dago triala? Haur askok probatu nahi dute kirol hori? Zale asko ditu?**

Triala ez da oso kirol ezaguna. Niri gustatuko litzaidake sona handiagoa izatea, oso kirol polita baita, bai praktikatzeko, baita ikusteko ere. Baina gaur egun oso zaila da. Mendian aritzeko eragozpen ugari jartzen dituzte. Katalunian, adibidez, bide gehiagotan aritu gaitzke. Nire ustez, kirol ezagunagoa izango balitz, jendeak asko gozatu luke trialarekin.

**Horregatik joan zinen txikitik Kataluniara?**

Bai. Katalunian errazagoa da kirol hau praktikatzeko. Mendian ibiltzeko bide gehiago daude, oso gazte zarenetik lehiatzeko aukera daukazu, eta, gainera, dena eskura daukazu; taldeak eta fabrikak hain daude, eta, edozein arazo gertatzen dela ere, oso gertu gaude. Taldearekin entrenatzeko eta probak egiteko biderik errazena da. ●

# Emozioak eta esaldiak



**Hirukotik**  
Mikel Reina

**N**ever too high, never too low» (Inoiz ez goregi, inoiz ez behegi). Ricky Rubiok famatu egin zuen esaldia, eta orain askok eta askok errepikatzen dutena. Diego Pablo Simeoneren «Partidaz partida» bezalako. Ibon Navarrok lehendabizikoa erabili zuen, Unicajak Real Madrili irabazi osteko adierazpenetan. Madrildarren lehendabiziko porrota da sasoi honetan. Saskibaloiari dagokionez, emozioz beteriko asteburua izan da.

**Lezioa.** Gernikan, adibidez, Adimen Urritasuneko Bizkaiko Saskibaloia Liga irekitzeko eguna ospatu zen. Zortzi taldek eta ia ehun jokalarik bizitzaz eta saskibaloiar gozatzeko bestelako modu bat erakutsi ziguten egun osoan. Irakasgaien eguna izan zen, bata bestearen atzetik. Helburua ondo pasatzea zen, eta parte hartzaileek hori helarazi zieten han bildutakoei. Benetan ahaztezina izan zen eguna gurtzat eta batez ere, haien zati. Merezite dute. Era berean, tristea izan daiteke horrelako ekintzak egin behar izatea begiak zabaltzeko eta dugun horri balioa emateko. Egun osoko jaia izan zen. Gutxitan egon dira Santanape kiroldegiko harmailak hain beteta. Herritarrek bikain erantzun zuten. Emaitzak gutxienez izan ziren, inork ez die erreparatu. Beste asko



**DUSKO IVANOVIC.** Baskoniako teknikaria aginduak ematen. L. RICO / EFE

zegoen ikusteko eta gozatzeko. Horregatik, lehendabiziko emozioak haiek transmititu zituzten. Emakumezkoen Ligako jokalariekin dantzan amaitu zuten. Hilabete askoren ostean, ostegunean dantza egin zutenak Araskiko jokalaria izan ziren, Kanaria Handiaren aurka Mendizorrotzan irabazi eta gero. Lehen aldiz araskizaleekin dantzatu ziren. Hori gutxi ez, eta igandean irabazi egin zuten Gironan.

**Ulergaitza.** Oso bestelakoak izan ziren Bilbo Basketeko zaleek bizitako emozioak: etsipenarenak. Haiena ere birala izan da sare sozialetan. Ez da gutxiagorako. Norbaitek egon behar zuen beste aldean, eta bilbotarrei tokatu zaie. Ez dakit zer den ulergaitzagoa: minutu baten faltan zazpi punturen alde izan arren partida galtzea, edo 20 metrotxirrinaren hotsarekin hiruko bat sartzea. Ulertezinak biak ala biak. Probabilitatean ere, ez dakit zein den zailagoa. Argi dagoena da Bilbo Basketek arazo larriak dituela amaiera

estuko partidetan. Obradoiroren eta Anwilen partidak kenduta, gainontzeko denak galdu ditu. Egoera oso desberdina izango litzateke baten bat irabazi irabazi izan balute. Zeharo desberdina. Orain bost porrot daramatzate jarraian ligan. Europako garaipenek ez dute ezer askorako balio, ez dira inolako kontsolamendua. Jakitun dira Europako laugarren txapelketak duen mailaz, are gehiago gaur egungo egoerarekin. Dagoeneko sailkatuta daude hurrengo faserako. Egutegiak ere ez du laguntzen. Eskoziara egingo dute bidaia, Europako ligaxkako azken jardunaldia jokatzeko, eta, ACB ligan, Unicaja eta Valentziaren aurka jokatu dute, hurrenez hurren.

**Iraultza.** Askotan ez badirudi ere, Dusko Ivanovicek baditu haserreaz bestelako emozioak. Aste biribila osatu dute gasteiztarrek. Euroligako bi partida jokatu dituzten aste batean izan da, gainera. Bartzelona espero baino errazago hartu zuten mendean.

Hasi eta buka, erabat nagusi izan ziren. Frantziar gogotik egin behar izan zuten lan. Asvelek ere entrentzailea aldatu du, eta beste talde bat dirudi. Gianmarco Pozzocok zerbait baldin badu, emozioak transmititzeko gaitasuna da. Baskoniak ere bere zigilu propioa du, aro berriarekin batera. Partidak iraultzeko gaitasun harrigarria erakutsi zuen taldeak beste behin. Hainbeste emozioekin, Ivanovicek ere izan zuen bereak azaleratzeko tartea. Duela bi urte, azaroaren 15ean, Baskoniak Montenegroko entrentzailea kaleratu zuen. Hilabete berean anaia hil zitzaion. Hari eskaini nahi izan zion igandeko Valentziaren aurkako garaipena; baita jokalariei ere. Baskoniak izan ohi duen izaera berreskuratu dute. «Inoiz amore ematen ez duen talde bat gara, beti sinesten duena eta sufritzen gozaten duena». Askok gogora ekarri zuten Ivanovicen esaldi famatuenetako bat: «Sufrimenduak zentzua duenean, motibazio bilakatzen da». ●



Beste behin  
mila esker  
**txikitasuna handi**  
egiten duzuen guztiei



SOSLAIA

# Jokin Altuna

Aspeko pilotaria

## Zailtasunean ere, txapeldun



Jokin Altuna, atzo, Amezketako frontoian. GORKA RUBIO / FOKU

**Ezker sorbaldako lesioak sufriarazi egin dio Altuna III.ari. Hori dela eta, balio handia eman dio horri aurre eginda txapeldun izanari. Ez da ariko binakakoaren lehen jardunaldietan.**

### Julen Etxeberria

Jokin Altunak (Amezketako, Gipuzkoa, 1996) gauza bera erantzuten du haren palmares bete-beteari buruz galdetzen dioten aldiro: pilota uzten duenean erreparatuko diola. Horri eutsi zion atzo ere, lau eta erdian laugarrenez txapeldun izan osteko egunean. «Garrantzitsua sentitzen naiz pilotan, eta badakit gauza handiak egiten ari naizela. Baina horri guztiari erretiroa hartzean erreparatuko diot».

Gaur bertan egingo balu, jada sekulakoa litzateke. Zazpi txapel irabazi ditu: lau eta erdian lau, bu-

ruz buru bi, eta binaka bat. Hiru modalitateetan txapeldun izan diren zortzi pilotarietako bat da. Julian Retegi, Fernando Arretxe, Aimar Olaizola, Abel Barriola, Juan Martinez de Irujo, Oinatz Bengoetxea eta Mikel Urrutikoe-txea dira beste zazpiak. Haien artean hiruk baino ez dituzte irabazi Altuna III.ak baino txapel gehiago Lehen Mailan: Retegi II.ak, Olaizola II.ak eta Irujok. Eratsundarrak hogeitaz jantzi zituen, goizuetarrak hamalau, eta iberotarrak hamahiru. Gero dator amezketarra. Urruti ditu oraindik.

Baina, Altuna III.ak 27 urte baino ez ditu, eta, ondo bidean,

urte mordo du garaipen zerrenda betetzen jarraitzeko. Hiru pilotari handi horien arrastoan dabil. Irujoren pare dago: 27 urterekin irabazi zuen hark zazpi-garren txapela. Olaizola II.ak eta Retegi II.ak, ordea, amezketarrak baino geroago jantzi zuten zazpi-garren txapela maila nagusian: goizuetarrak, 28 urterekin, eta, eratsundarrak, 31 urterekin. Jokatuak dituzten finaletan, ordea, aurrena da Altuna III.a: hamahiru jokatu ditu, bere adineko inork baino gehiago.

Ez dago txapelketa errazik. Baina azken lau eta erdikoa bereziki izan da zaila Altuna III.arentzat. Abuztutik ezker sorbaldan duen minak gogotik sufriarazi dio. Baina, hala ere, txapeldun izan da. Balio handia eman dio horri. «Txapel honek balio du ikusteko kirolarion egunerokoa ez dela erraza, eta zailtasunak daudenean asko balio duela sufritzeak, hortzak estutzeak eta aurrera egiteak. Horregatik, oso berezia da txapel hau. Poza latza dut».

Ez dago gaitzik onik ez dakarrenik. Altuna III.ak azaldu zenez, lesioa osatzen buru-belarri aritu izanak «mesede» egin zion finala prestatzeko orduan. «Egunez egun joan nintzen. Adibidez, ilusio handia nuen ostiralean entrenatzeko, eta lanean hasi, eta hobeto nengoela ikusteak sekulako konfiantza eman zidan finalari begira. Hilabete eta erdi neraman horren ondo entrenatu ezinik. Hori gutxi ez, eta mesede egin zidan finalaren hasierak: Peiok [Etxeberria] ez zuen bere egun onena izan, eta nik segituan egin nuen ihes».

### Ondo osatu nahi du

Lehiak ez du etenik, eta gaur aurkeztuko dute binakakoa, Bilbon, Bizkaia frontoian. Altuna III.a aurkezpenean izango da, baina ez da ariko lehen jardunaldietan. Ondo osatu nahi du. «Min txikiena desagertu arte, ez naiz itzuliko, eta denbora daramat minez jokatzeko. Ez du zentzurik nire adinarekin hau luzatzen aritzeak. Medikuek esan dit horrelako lesio bat sendatzeko ebakuntza egindakoa dela. Gelditzeko esan dit, eta errehabilitazio ariketak egiteko. Medikuek uste du horrela sendatuko zaidala lesioa. Bestela, plasma jarri beharko didate, eta gutxienez hilabete eta erdi egon beharko dut geldi, eta gero entrenatzen hasi. Atsedean hartzen eta ariketak egiten osatuko naizela uste dugu. Hala ere, denbora pixka bat beharko dut». Urteberri eguna aipatu zioten. «Seinale ona litzateke. Oso gustura jokatzeko dut egun horretan. Baina ez dakit noiz itzuliko naizen». ●

ANALISIA

## Iritziz aldatzen hasita nago



Ibai Zabala Gandarias  
Pilotari ohia

**G**ero eta zabalduago dagoen mantra edo lelo bat dago kirolean, txapelketaren bateko finala heltzen den aldiro agertzen dena: «Finalaz gozatu egin behar da». Igandeko finalean Peio Etxeberriaren botilero lanak bete zituen ere, Andoni Gaskuek, partidaren atarian egin zioten elkarrizketan, aitortu zuen Peiori horixe bera aholkatu ziola, herriko eta inguruko askok esango zioten bezala.

Badakit halako mezu edo aholkuek kirolaria sosegatzea dutela helburu, bizkar gaineko zama hori arintzea. Baina ez dut uste mesederik egiten diotenik, parean duen erronkaren tamainaren eta biziko duen errealitatearen kontzientzia izan behar baitu kirolariak. Jakin behar du partidak iraungo duen tarte horrek gehiago izango duela sufrikariotik gozamenetik baino, eta horri egin beharko diola aurre; gozatuko duela, baina trantzea bukatu ondoren. Ondotxo zekien hori Jokin Altunak, aurretik jokatuak hamabi finale-

tan pilotutako esperientzia lagun.

Horrelako partida bati heltzeko orduan, komenigarria da berau aurrez irudikatzea, gertaera posible guztien aurrean nola jokatu erabakia izatea. Eta, nire ustez, horixe izan zen finalaren alde handienetako bat.

Izan ere, pilotakada bat jo orduko hurrengo jo nahian aritu zen Etxeberria bat ikusi nuen; berezkoa duen energia horri ezin eutsiz, etengabe airera joan eta erritmo bizia jarri nahian. Baina horrek honako hau eskatzen du: erabaki asko eta azkar hartu beharra. Eta ez da hori barre-nak dantzan dituen pilotari batek partida hasiera batean

### Parean duen erronkaren tamainaren eta biziko duen errealitatearen kontzientzia izan behar du kirolariak

hartu beharreko bidea, ez egokiena behintzat; are gutxiago erabakiak azkar eta zuzen hartzen maisua den aurkari bat baduzu parean.

Beste aldean, berriz, lane-rako prest eta egin beharreko argi zuela kantxaratu zen Jokin Altuna: botera asko jokatuz eta jokaraziz, defenditu behar zenean defendituz, Etxeberriari zabal aldean eta botera jokatzeraren behartuz... tanto ikusgarririk egin gabe, partida zoragarria jokatu zuen.

Imajinatzen dut berea eman ez izanaren pena handia izango duela Peiok. Baina zera esan nahiko nioke: handia egin duzu, eta handiagoak egingo dituzu; segi bidez gozatzen. Eta Jokini buruz, zer esan dagoeneko esan ez denik? Beti aipatu izan dut nire begiek pilotan jokatzeko duten pilotaririk onena Aimar Olaizola dela. Bada, iritziz aldatzen hasita nago. ●



**ARTEA.** Magritten jaiotzaren 125. urteurrenaren harira Bruselan pintatutako horma irudia. EDURNE MOLINERO

zian 1922an, eta, urteetara, Magrittek aitortu zuen lan horrek inoiz ez bezalako sentipen bat piztu ziola barrenean. «Nire begiek pentsamendua ikusi zuten lehenbiziko aldiz». Orduz geroztik, kasik sabuespenik gabe izan zitzaion leial surrealismoari, hark ematen zizkion aukerek txoratu-ta. «Surrealismoa iraultzailea da, mundua egungo baldintza lazgarrietan atxikia duten balio burgesen etsai menderaezina delako».

Publizitaterako eta ilustrazio lanetarako jarduten zuen bitartean, Magritte segituan bihurtu zen surrealismo belgikarraren erreferente handi. Ordea, propio eta bakarrik osatutako lehenbiziko erakusketak ez zuen batere harrera onik izan -1927an ireki zuen, Bruselako Zentauro galerian-, eta, ondorioz, Frantziara mugitu zen, han bide hobe bat aurkituko zuelakoan. Asmatu zuen, nonbait. Izan ere, bertan bai, arrakasta handia lortu zuen, baita surrealismoaren bueltako hainbat artistarekin harremanak ehuntzea ere. Parisen ezagutu zituen, adibidez, Andre Breton, Paul Eluard, Salvador Dali, Max Ernst eta Joan Miro. Dena dela, Magrittek ez zuen luze iraun Frantziako mugimendu surrealistan. Batik bat Bretonekin zituen desadostasunak tarteko, Bruselara bueltatu zen 1930ean, eta bertan segitu zuen pintatzen.

#### Gozamena pinturan

Bigarren Mundu Gerrak erdiz erdi oztopatu zuen Magritten jarduera artistikoa, aldi batez. Ordea, pintura ez beste diziplina batzuetan tinko aritu zen orduan, eta 1939an *Arte burgesaren kontratua* liburua idatzi zuen Louis Scutenairekin batera. Bertan, besteak beste, gogor kritikatu zuen «hipokrisia kapitalista», argudiatuz injustizia soziala ukatu besterik ez zuela egiten. Halaber, gerraz geroztik bere obran bistaratu ziren zenbait aldaketa ere esplikatzen zituen lan horretan. «Niretzat, plazerak eta lilura adieraztea da artea. Gudaren aurretik, nire lanek antsietatea islatzen zuten. Orain, gatazka eta gerraren sufrimendua ezagututa, gehien inporta zaidana gozamena ospatzea da, begientzat eta buruarentzat. Askoz errazagoa baita izutzea, liluratzea baino. Errutinaren itsustasunagatik, gure mundua ez da batere atsegingarria, eta horregatik da nire pintura bataila bat, kontraeraso

## Zirudiena ez zen, eta ez da

Rene Magritte jaio zenetik 125 urte bete dira gaur. Surrealismo belgikarraren erreferente nagusia izan zen artista. Ikuslearen pertzepzioa zirikatzea zuen tema, irudiekin eta hitzekin jostalari.

#### Uxue Rey Gorraiz

Irudipenaren eta egiazko izatearen tartean eta artean aritu zen erosoan Rene Magritte (Lessines, Belgika, 1898 - Brusela, 1967). Surrealismoarekin eta errealismo magikoarekin ia etenik gabeko maite jolasean, artistak behin eta berriz aldarrikatu zuen gauzak inoiz gutxi direla diruditen hori. Are: ideia bat ezin dela begiz ikusi, ezpada, gehienez ere, ideia horren irudikapena. Asmamez, eta konposizio estrainioak sortuz, ikuslearen pertzepzioa zirikatu zalea izan zen Magritte. Margolariaren jaiotzatik 125 urte bete dira gaur, eta urtarriletik ari dira ekinbideak antolatzen. Bruselako zenbait kale artistaren

obra sonatuenetan oinarrituz eginiko horma irudiz apainduta daude udatik, urtarrilaren 7ra arte.

Haurra zelarik hasi zen pintatzen Magritte, baita marrazketa eta pintura eskolak hartzen ere. Chateleten hartu zituen lehenbiziko eskolok, eta Bruselako Arte Ederren eskolan aritu zen gero, 1916tik 1918ra. Garai hartan, lan inpresionistak eta orfistak ondu zituen batez ere. Bruselako Artearen Zentroan ireki zuen bere lehenbiziko erakusketa, 1920an, Pierre-Louis Flouquetekin.

Hala eta guztiz ere, Magrittek laster egin zuen topo surrealismoarekin, bestela bezala. Lagun batek Giorgio de Chirico artista-ren *Maitasun kanta* obra erakutsi

bat. Mundua hain da estrainioa, inoiz lortuko dugu guztiz ezagutzea?».

Mundu erreala antzemateko bere manera utzi zuen agerian Magrittek pinturaren bitartez, eta, jardun horretan, artistak urteetan izan zuen teman, adibidez, objektuen eta hitzezko lengoaiaren arteko harremanari buruzko gogoeta. Erne egin zion so hari, eta jostetarako bide izan zuen sarri, gainera. Alderdi hori aise erakusten du *Irudien traizioa* izeneko serieak. Bilduma horretan, lan bat da sonatu, batik bat: «*Ceci n'est pas une pipe* (Hau ez da pipa bat)» esaldia idatzia duena. Obra hori 1929koa da. Harridura handia sortu zuen garai hartan, eta sarri erantzun zion Magrittek erreakzio hari. Beti antzeko: «Pipa famatua. Zenbat aurpegi-ratzen didaten haren kontura! Baina, bistan da. Pipa hori bete al daiteke? Ez, irudikapen bat besterik ez da! Ezta? Pipa bat dela esanen banu, gezurretan ariko nintzateke!». Hala, beste objektuetara ere hedatzen zuen hausnarketa, gauzen izendapenak dudant jartzearaino. «Ezein objektu ez da hitz bati hain loturik, beste hitz batek hobeki ordezkatu dezakeela ukatzeko beste».

#### Zeru argiak gaeuz

Hitz idatzirik gabeko obren bidez ere jakin zuen irudien «traizioak eta «ezin ulertuak»» ikusarazten. Biziki ezagunak dira margoletan hainbatetan irudikatu zituen kapeluak, sagarrak –aurpegiak estaltzeko erabili izan zituen askotan, *Gizonaren semea* (1964) izeneko obran kasurako-, edo zeru arraroak. Ezagun dira, adibidez, *Argiaren inperioa* bilduman margotu zituenak. Artistak hala esplikatu zuen obra, 1956an Guggenheim saria irabazi berri-tan eginiko elkarrizketa batean: «Gaueko paisaia bat, eta soilik egunez ikus genezakeen zeru baten tankerakoa gainean. Paisaiak gauari egiten dio dei, eta egunari ere bai. Botere horri honela deitzen diot nik: poesia».

Bada sarri errepikatu zuen beste elementu bat: aurpegia oihalez estalita ageri diren pertsonak. *Maitaleak* (1928) da lan horien artean ezagunena; hain justu, kua-dro hori oinarri duen murala da egun Bruselako horma irudietan dagoenetako bat. Hainbat adituk iritzi diote elementu horrek artistaren amaren heriotzarekin dutela zerikusia. Magritten amak bere buruaz beste egin zuen hark 14 urte zituenean, ibai batean itota, eta ohe atorrak aurpegia estaltzen ziola aurkitu ei zuten. Dena dela, artistak inoiz ez zuen baieztatu irudi horretan inspiratu izana. ●

# Haizeak eraman eta ekarritakoak



LITERATURA. Miren Agur Meabe, lan berria eskuetan, atzo, Donostian. MAIALEN ANDRES / FOKU

- Miren Agur Meabek 'Itzulerak' eleberria plazaratu du, gazteengan pentsatuta idatzia.
- Denboran joan-etorriak eginez, Katalin gazteak Martija de Jauregi ezagutuko du, XVI. mendean bizi izan zen emagina.

#### Ainhoa Sarasola

DONOSTIA— Garraitzetara, Haize-Begi etxera heldu berri da Katalin, amarekin eta nebarekin. Bizimodu berri bati ekiteko asmoa dute kostaldeko herri horretan. Baina iritsi bezain pronto jasoko dute lehen ezustekoa: haur jaioberri bat topatuko dute sukaldean, saski batean sartuta. Nork utzi ote du haurtxo hori han, aspalditik itxita egon den etxetzarrean? Hala abiatzen da Miren Agur Meabe idazlearen *Itzulerak* nobela berria. Narrazioan, halere, ez dute ezusteko hori soilik biziko. Izan ere, haiek oraindik ez bada-kite ere, bada pasagune bat etxe zahar horretan, zeinetan denbora eta lekua gurutzatzen diren. Hala, XVI. mendera, duela lauhun urteko Garraitzetara egingo du jauzi Katalinek, eta Martija de Jauregi emagina ezagutuko du. Idazleak azaldu du «gazteentzako nobela interesgarri bat taxutzea» izan du helburu, baina adin guztietako irakurleek gozatzeko modukoa dela iritzi dio Elkar argitaletzeko editore Antxiñe Mendizabalek.

Pertsonaia gehiago ere badiren arren, bi protagonista ageri dira istorioan: batetik, Katalin, 17 urteko neska «ausart eta baikorra», medikuntza ikasi nahi duena; eta, bestetik, Martija, XVI. mendean bizi izan zen emagin eta sendalaria. Haren berri Cira Crespo eta Elene Ziordiaren *Baginen* liburuaren (Txalaparta, 2020) bidez izan zuela azaldu du Meabek; han ageri zen, «historiak bazterrean utzitako» beste andre batzuen artean. Haren aititak mediku jardun zuen Meaberen sorteterrri Lekeitio (Bizkaia), eta, hori jakin zuenean, «sekulako bulkada» sentitu zuen idazleak Martijaren bizitza irudikatzeke. Azaldu duenez, Uharte Arakilen (Nafarroa) bizi izan zen, sendabelarrekin egiten zuen lan, eta prestigio handia zuen, baina, haren aurkako jazarpena zela kausa, erbesteratu behar izan zuen. Haren berri izandakoan «Martija maitatzen hasi» zela adierazi du Meabek, eta bere historia asmatu ahala, «gero eta maiteago» izan duela.

Katalinek XVI. mendeko Garraitzetara egiten duenean ezagu-

tuko du Martija. «Horrenbestez, garai haren eta berearen arteko kontrasteak pairatuko ditu», azaldu du idazleak. Emaginaren laguntzari esker egingo du aurrera, harengandik ofizioa ikasita, eta garai horren lekukotasun bat emango dio irakurleari. Bien bitartean, Katalinen familiako kideek aurrera segituko dute XIX. mendeko Garraitzetan.

Nobela zortzi ataletan banatu du idazleak, eta denen izenburuetan aipatzen dira haizea eta denbora, «funtsezko elementua» dena, Meaberen hitzetan: «Istoria saltoka garatzen da XVI. mendetik XIX. mendera bitartean. Pertsonaia batzuk orainetik iraganera joango dira, eta beste batzuk, iraganetik orainera etorriko». Hortik datorkio *Itzulerak* izenburua. Halaber, narrazioan «sineskerak, mitologia eta herri jakintza» nahasten direla iruditzen zaio egileari, eta «zientzia fikziotik ere puntutxo bat» badiuela. «Gertaerak apailatuz, bortizkeria, iruzurra, samurtasuna, beldurra, ausardia, maitasuna, gorrotoa, heroismoa, saldukeria, elkartasuna eta zekenkeria topatuko ditugu. Eta atzeko oihal gisa, Aro Modernoaren ikuspegi orokor bat, pintzelada batzuk, asko sakondu gabe, baina hor daude Ameriketako merkataritza eta itsas espedizioak, erlijio gerrak, zientziaren eta herri jakintzaren arteko lehia eta abar».

#### Martija «balioesteko»

Halaber, atal bakoitza azpialalaburretan banatu du egileak. Eta uste du hori ez ezik bere obran ohikoak diren beste ezaugarri batzuk ere topatuko dituela irakurleak, hala nola deskribapenak, baliabide poetikoak, elementu sinbolikoen erabilera eta «ahozko testu zaharren eredura egindako testu berriak». Egileak ez du ezkutatu narrazioa garatzen den kostaldeko herria, Garraitzeta, Lekeitio dela; gaztetako liburu batzuetan dagoeneko izen literario hori eman izan zion sorteterrari. Beste toponimo erreala batzuen izenak ere moldatu ditu, baina erraz identifikatzeko moduan eman ditu.

Egileak nahi luke liburuak balio izatea Martijaren irudia «berreskuratuta eta balioesteko», baita historian emakumeek jasan duten zapalkuntzaz pentsarazteko, eta Aro Modernoaren konplexutasunaz nahiz sexuen eta klase sozialen arteko desberdintasunez jabetzeko ere. ●



«Istoria saltoka garatzen da XVI. mendetik XIX. mendera. Pertsonaia batzuk orainetik iraganera joango dira, eta beste batzuk, iraganetik orainera etorriko»

MIREN AGUR MEABE  
Idazlea

## Kolonia usaina



**BEGIZ**  
Haizea Barcenilla

**F**undação Orienteren museora joan ginen, Lisboan. Erakusketa nagusira 8 urte inguruko haurren eskola talde batek jarraitu zigun, eta elkarrekin sartu ginen Portugalgo inperioa Ekialdean atalera. Guk artelanak ikusi bitartean, sarreran zegoen mapa baten aurrean eserarazi zituen irakasleak umeak eta, hari begira, Portugalgo inperio handiak bere menpe izandako lurraldeak erakutsi zizkien, ikasleekin batera izenak errepikatuz: Goa, Macao, Ekialdeko Timor... Portugaldar itsasgizon apartek mundu osoarekin ezarritako harremanak eta trukeak goratu zituen irakasleak, haurren zoramenerako (zein ez zuen liluratuko halako itsas abenturak!).

Ondoren, bionboetara hurbildu ziren, *namban* estilokoak, XVI. mendeko Japonian mendebaldeko merkataritzarako garatu zituzten artelanak, alegia. Japoniarren eta portugaldarren arteko elkartzeak irudikatzen ziren bertan: japoniarrak kimonoz jantzita, portugaldarrak beltzez, ondoan zituzten esklaboak bezain beltzak arropak. Portugalдарren ontzia ere beltza, txo beltzez betea hura ere. Honen aurrean, kulturen arteko elkarretaz hitz egin zien irakasleak, eta ikasleek azal-kolore desberdineko pertsonaiak jatorri desberdineko gisa identifikatu zituzten: hiru kontinenteen elkarketa. Joan ginenerako, *esklabo* hitza oraindik ez zen aditu. Gerora, bi gauza garrantzitsu jakin ditut: lehena, Fundação

Oriente Portugalek Macao Txinari itzultzearen truke sortutako fundazioa dela. Macaoko jokoaren irabaziekin (Asiako Las Vegas da Macao) erosi ziren artelanak eta mantentzen da egitura; horrela ordaintzen dio Txinak Portugal 1999an gauzatu zen hiriaren itzulera, Europak Asian zuen azken kolonia izanik. Inperioa galtzearen truke, inperioaren narrazioa mantentzen duen memoria erreminta estetikoa. Bigarrena, Salazarren garaian ezarri zela portugaldarrak «kolonizatzaile onak» izan ziren diskurtsoa: beste inperio batzuen aldean ez zutela gehiegi hil eta suntsitu, eta trukea izan zela nagusi —portugaldarrek erlijioa eta kultura ekarri zuten, eta besteek lehengai naturalak eta lan-indarra; truke bitxia—.

Berriz ere, salazarismoa amaitu zen arren, kondairak dirau. Ezinegenez eta harridura apur batez ikusi genuen egun horretan museoko eszena. Baina gero etxera begira jarri eta galdetu behar da: oso desberdina al da kontatzen zaiguna? Zorionez, euskaldunok ez genuen koloniarik izan, eta, hortaz, errazagoa zaigu zenbaitek egindako sarraskiak espainiar koroaren ardurapean kokatzea. Errazagoa zaigu Julian Zulueta Amondo eta Manual Calvo gehiegi ez iker-tzea. Errazagoa zaigu Elkanok Filipinetan hartutako hemezortzi esklaboak inauterietako *hula* dantzari gisa irudikatzea Getariako lehorreratzean. Baina badakigu: bestearen akatsak ikusteko antiojo beharrik ez. ●

## (Gain) Azalak (gain) azal

### Garazi Ansa

**A**zkenaldian bisitatu-tako erakusketetatik sentsazio gazi-gozoarekin irten naiz, eta benetan disfrutatzekeo erakusketa bat ikusteko gogoan nuen. Madriletik heldu zitzaizkidan lagunaren hitzetan «bisitatu beharrezko» erakusketen inguruko notiziak, eta etsitzen ari nintzen: hara bertaratzeko modurik izan arte ez ote nuen hemen inguruan halako proposamen atsegini topatuko?

*Argia*-ko artikulua batean kasualitatez ikusitako argazki iradokitzaile batzuek tentatuta, nire etsipenari esperantzazko azken leihoa irekitzeko aukera eman nion: Angel Peris Cuestaren *Naturarekin elkarrizketa* erakusketarenak ziren, Kristinaenea lorategiko

interpretazio zentroan dagoena.

Eguraldian aldaketa izan genuen: aurreko egunetako euriteek tregoa eman zuten, temperaturak ere goxatu egin ziren, eta tarteka eguzki argiak eta zeru urdinak atzematen ziren geure gainean. Kristinaeneko udazkeneko orbelen koloreak eta itzalen dantzak inguruko jendetzaren gaineko protagonismoa hartzen zuten, eta parketik igarotzea beti atsegina bada ere, egun hartako paseoa luzatzeko gogoan ematen duten horietakoa izan zen.

Eguzki gozoa aurpegian sentituz sartu nintzen eraikinera. Sartu eta ezkerretara dagoen paretan daude erakusketako testu nagusiak, aretoetatik kanpo, espazio barneko horri molestatu nahi ez baliote bezala. Testu luzeak dira, eta, gainera, lau hizkuntzatan; euskaraz eta gaztelaniaz ez ezik, ingelesez eta txineraz ere. Nahiko egonari irakurri nituen, erakusketara sartzeko gogoz.

Aretora sartu eta aurrez aurre, pareko hormaren eskuinaldean babesturik dagoen instalazioak txunditzen du bertaraten dena. Airean esekitako oihalak izango balira bezala, beltzetik hasi eta horiraino doan sigi-saga kromatiko bat da; sigi-saga organiko bat. Arrozezko paperaren fintasunarekin bat egiten duten



**ERAKUSKETA.** Angel Peris Cuestaren obra bat. JON URBE / FOKU

lerrotxo bertikalen akumulazioz sorturikoak dira, euri tantak balira bezala, zerutik lurrera doazenak, eguzki argien islen bidezko bideetan tonalitate ezberdinak jaso eta eskaintzen dituzte; orain gardenago, orain aseago.

Artistak aurkeztutako beste lanak ere lerro, ingerada, trazu, keinu eta errepikapenen bidezko lanketak dira, bide ezberdinetatik guztiek ere naturara daramatenak: izan arrozezko paperez egindako gainazalak, belar arrastoak dituztenak; izan zenbait lanetan agertzen diren figuraziozko lore eta landaretzak, edota darabiltzan mineralezko

pigmentuak, tinta txinatarrak. Ohikoa omen da han, tinta hauek egiteko erabiltzen diren pigmentu-hodietako bat jaioberriari oparitzea, hark ondoren bere bizitza guztian zehar berarekin gorde dezan. Pasadizo honek ezin hobeto erakusten du ekialdeko tradizioetatik jaso eta bere lan eta instalazioen bidez Peris Cuestak proposatzen dizkigun naturaren, artearen eta gizakien arteko harremantzeko modu berriak, errespetuan, baretasunean eta harmonian oinarrituak, elkar sostengatzen dutenak.

Peris Cuestaren erakusketak goiko bi areto nagusietan du segida: bata beltza da, bestea,

berriz, zuria. Asiako pentsamendu taoistara daramate bi aretoek, osagarrietan egitura-tutako ideietara, yin eta yang kontzeptuetara. Iluntasuna argipean, eta argia iluntasunean. Bietan, gela iluna da, zalantzarik gabe, azpimarragarriena: argizko basoaren eta lorezko krisalidaren inguruan dantzatzen dira bisitariak; orain enborren artera sartu, orain atera. Murrutetako proposamenek denboraren igarotzea islatzen duten azalak dirudite berriz: larruazalak; enbor-azalak; zuri-beltzezkoak; zauri eta orbainak diruditenez beteak, azalen gainjartzeak balira bezala, lotuak batzuk, josiak besteak, elkarren artean azal berri eta sendoagoa sortzen dutenak. Areto zuriko obra ilunen instalazioak, aldiz, eta penaz, espazio hura etxe izan zela gogorarazten duten elementuen artean nahasten dira, eta ez dute hain indartsu egiten diz-diz.

Erakusketak lurrazpian du amaiera, interpretazio zentroaren barneko eskailerak jaitzita aurkitzen den horretan, hainbat zeramika lan eta lekurako propio egindako esku hartzeekin. Bertan, sabai-leiho borobiletako hormez bestalde dagoen lurra gainazaleratu du Peris Cuestak, materia bera pigmentu gisara baliatuta. Badirudi, ibilbide organikoaren bidez eta goitik jasotzen duen argitasunak indartuta, natura hormigoizko hormak iragaziz azalera industrialaren irensten ari dela.

Irudi haiek buruan, gorantz abiatu nintzen ni ere, argitara, eraikinetik irtetzeko. Kanpoan hodeiak bazeuden ere, eguzkiak oraindik aurpegian gozo ematen jarraitzen zidan. ●

### KRITIKA Artea

#### *Naturarekin elkarrizketa*

**Artista:** Angel Peris Cuesta.  
**Non:** Kristinaenean, Donostian.  
**Noiz arte:** abenduaren 12ra arte.





Sarai Robles Vitas azaroaren 4an, Altsasuko finalurrekoan. IÑIGO URIZ / FOKU

## Zortzikotea, zehaztuta

- Argitu da nortzuk ariko diren kantuan Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean
- Azken hogeitun urteotan lehendabizikoz, bi emakume sailkatu dira: Alkaiza eta Robles

### Uxue Rey Gorraiz

Azaroaren 4an, Altsasun. Azaroaren 11n, Agoitzen. Azaroaren 19an, Lesakan. Egin dira Nafarroako Bertsolari Txapelketako hiru finalurrekoak, eta, orain bai, zehaztu da finalisten zerrenda. Zakuratutako puntuen arabera, bertsolari hauek sailkatu dira: Saioa Alkaiza Guallar, Julio Soto Ezkurdia, Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol, Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Alzuri, Saats Karasatorre Martinez eta Sarai Robles Vitas. Abenduaren 2an lehiatuko dira, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. 17:00etan hasiko da finala, eta sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian eskuragarri daude jada.

Hain justu, igande iluntzean zehaztu zen behin betiko zortzikotea, Lesakako pilotalekuan jokatutako saioaren ondoren. Beñat Astiz, Eki Mateorena, Eneko Lazkoz, Joanes Illarregi, Josu Sanjurjo eta Mikel Lasarte aritu ziren kantuan, eta horietatik hiru dira finalean. Joanes Illarregik irabazi zuen herenegungo saioa, eta, beraz, zuzenean sailkatu da

hurrengo faserako. Eneko Lazkoz eta Josu Sanjurjo, berriz, eskuratutako puntuei esker egin dute aurrera; 521,5 eta 492,5, hurrenez hurren.

Batik bat bertsolari hauek izan dira finalerako sailkatuko ote ziren itxaropenez eta dudan: Saats Karasatorre, Sarai Robles eta Eneko Fernandez. Altsasuko finalurrekoan aritu ziren hirurak, eta aski hurbil ziren sailkapenean -470,5, 468,5 eta 465 puntu, hurrenez hurren-, baina Sanjurjo hirurak gainditu izanak kanpoan utzi zuen Fernandez, ezinbestean. Hain zuzen ere, kanporatua izanik, lehia bazter uztea egiazko bihurtu zaio Fernandezi. Izan ere, lesakarrak Altsasun adierazi zuen agur esanen zela txapelketei, aurtengoa izango zuela azkena. Atzokoa zehaztu artean, ordea, bazen aukerarik Anaitasunakoa izateko azken-azkena.

Finalisten zerrendan hainbat datu izan litezke nabarmentzeko modukoak. Besteak beste, Karasatorre eta Robles estreinakoz izanen direla finalean. Bestalde, azken hogeitun urteotan lehendabiziko aldiz, bi emakumezko ariko dira

kantuan Nafarroako txapelketako final batean: 2021eko txapeldu-na, hau da, Alkaiza, eta Robles. 2003an gertatu zen azkenekoz halakorik, Estitxu Arozena eta Miren Artetxe finalista izan ziren hartan. ●

### SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-19:00  
[www.santelmomuseoa.eus](http://www.santelmomuseoa.eus)  
Gaur, museorako sarrera doakoa da.



#### • Instalazioa

Museo Bikoitza

#### Ez du pausorik debalde ematen

Hinrich Sachs

Josune Urrutia eta Leire Vergararekin elkarlanean

# STM

San Telmo Museoa

## HITZ GUTXITAN

### Gaur hasiko da Musika Erbestean nazioarteko batzarra, Donostian

**MUSIKA**— Hamaika Bide elkarteak eta EHUK antolatutako nazioarteko kongresuak XVIII. aldia du aurtengoa, eta erbestean egindako musikari, dantzari eta kantuei erreparatuko diete lau egunez. Hitzaldi eta kontzertu guztiak Donostiako Carlos Santamaria liburutegian egingo dituzte, hasiera ekitaldia izan ezik.

### Jane's Addiction eta Black Halos taldeak ere Azkena Rock jaialdian izango dira

**MUSIKA**— 2024ko ekainaren 20tik 22ra bitartean iraganen da Azkena Rock jaialdia, Gasteizen, eta talde zerrenda osatzen ari da jada. Lehendik iragarrita zeuden taldeei Jane's Addiction, Tarque & La Asociación del Riff, Psychedelic Porn Crumpets eta The Black Halos taldeak batu zaizkie.



TALDEKAKO XILABA. Irabazleak. GUILLAUME FAUVEAU

### Nahia Sasco, Irantzu Idoate eta Ortzi Idoate gailendu dira Taldekako Xilaban

**BERTSOLARITZA**— Aiherran (Lapurdi) finala jokatu ondoren, Nahia Sasco, Irantzu Idoate eta Ortzi Idoatek osaturiko taldea (Hazparke) izan da nagusi Taldekako Xilaban. Irati Alcantarilla, Ibai Lekuona eta Haize Lekuonak osaturiko taldea (Muttikoak) izan zuten aurkari finalean.



## HERNANIKO UDALA

### IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrek, 2023ko urriaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituzten:

**LEHENEA.** Hasierako onarpena ematea LEH.01 Zabalaga eremuko Plan Bereziari. Dokumentua DEBOR ARQUITECTOS taldeak idatzia da eta 2023ko urtarrileko data du. Hasierako onarpena ondorengo baldintza hauekin ematen da:

I.- Gipuzkoako Foru Aldundiak eremua zeharkatzen duen bidegorria eta espaloieren proiektua egikaritzeko beharrezkoak diren lursailak, jabeak erakunde horri laga beharko dizkio. Betebehar hori araudian jaso beharko da.

II.- Behin betiko onarpenaren dokumentuan bertatu beharko dira ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariaren ebazpenaren bitartez (2023ko uztailearen 24koa) Zabalaga LEH.01 eremuko plan bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoan ezartzen diren baldintzak. Zehazki planaren araudian artikulua bat gehituko da aipatu Ingurumen Txosten Estrategikoan adierazitako neurriak beteko direla xedatuko duena eta ebazpenaren kopia atxikiko da dokumentuan.

**BIGARRENA.** Dokumentua jendaurrean jartzea 20 eguneko epean, interesatuek dokumentua aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal dituzten. Horretarako hasierako onarpenaren erabakia GA0n, Gipuzkoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan eta Hernaniko Udalaren web orrian argitaratuko da.

**HIRUGARRENA.** Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturak Sailera bidaltzea 2006ko ekainaren 1/2006 Foru) Dekretu Arau Emaleak onartutako Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Testu Bateratuaren 94. artikuluan aurreikusitako txostena eman dezaten.

**LAUGARRENA.** Ebazpen hau eremuko jabeak jakinaraztea.

**BOSGARRENA.** Plan Berezian jaso diren zehaztapenek indarreko hirigintza-arabidean berrikuntzarik dakarte LHE. 01 Zabalaga eremuari begira; hortaz, edozein motatako onarpenak, baimenak eta lizentziak ematea etengo da urtebetez. Etete hori berez iraungiko da gehienez ezarritako epea amaitzen denean, edo, izapidetzen ari den planari behin betiko onespina ematean, epea amaitsu baino lehen ematen bazaio.

Hernanin, 2023ko azaroaren 10ean

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra




ENERGIA AURREZTEKO  
AHOLKUAK  
Iturria: Energiaren Euskal  
Erakundea

Ahal bada, saihestu bonbilla asko dituzten lanparak.



## EGURALDIA



### Negu itxurako giroa

Euria erruz egingo du isurialde atlantikoko zenbait lekutan, eta hegoaldean ere giro euritsua izango da. Baliteke zaparradak mardulak eta trumoitsuak izatea tarteka. Elurra egingo du 1.500 metrotik gora. Ipar-mendebaldeko haizea bizi ibiliko da kostaldean eta Ebroren ibarrean. Hoztu egingo du.

	Bihar	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
BILBO	10/13	7/12	7/12	8/13
DONOSTIA	8/12	5/11	5/11	7/12
GASTEIZ	5/10	2/9	3/10	4/10
IRUÑEA	5/10	3/9	2/11	4/11
BAIONA	7/12	3/10	4/10	6/12
TUTERA	7/12	5/12	4/12	5/13
DONIBANE GARAZI	4/10	3/9	3/10	5/11
MAULE	6/10	3/9	3/10	5/10

### JOERA


Osteguna, 23  
Ostirala, 24  
Larunbata, 25

### ITSASOA

Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, 4-5eko indarrarekin. Itsaskia edo itsaski handia eragingo du, itsaso zakarreko guneeekin eta 6ko tarteeekin. 3-3,5 metro arteko olatuak izango dira.

ITSASALDIA	ORDUA	METROAK
Itsasbehera	04:25	1,57
Itsasgora	10:58	3,73
Itsasbehera	17:13	1,35
Itsasgora	23:47	3,51

### ISOBARA MAPA



EGUZKIA	SORTU	GORDE
	08:12	17:43

EGUZKIA	EGUNA
Ilbetea	Azaroak 27, astelehena
Ilbehera	Abenduak 5, asteartea
Ilberria	Abenduak 12, asteartea
Ilgora	Abenduak 19, asteartea

### BIHAR

Euri asko botako du goizean, baina atertu egingo du arratsaldean. Ilunabarrean, hodeitza saretu egingo da, eta nabarmen hoztuko du. Tenperaturarik beroenak ez dira askorik aldatuko.

## EKITALDIAK

1



### Bertsolaritza: Emakumeen ahotsen

Miren Artetxe, Maddi Ane Txoperena, Nerea Elustondo eta Janire Arrizabalaga bertsotan ariko dira gaur, Bilboko Bira kulturgunean, emakumeen errealitateak oinarri hartuta. Sarrerak salgai daude, 5 euroan —birakideek, 3 euro—.

'Señora' bertso saioa. Gaur, 19:30ean, Bilboko Bira kulturgunean.



2

### Musika: Pianoa jotzea arte bihurtuta

Astearte musikalak zikloaren barruan, Ignasi Cambra piano jotzaile kataluniarraren saioa izango da gaur, Gasteizen. Mozart, Schubert eta Mompouren obrak joko ditu Cambrak. Sarrerak 8 euroan daude salgai.

Ignasi Cambra piano jotzailea. Gaur, 19:30ean, Vital Fundazioa kulturunean.



3

### Hitzaldia: 'Lili eta biok' aztergai

Miren Billelabeitia idazle mungiarak —eta irakasle ohiak— Ramon Saizarbitoria-ren *Lili eta biok* liburua izango du mintzagai gaur, Bilbon. Ez da sarrerarik ordaindu beharko, eta streaming bidez entzun ahal izango da hitzaldia, oso-osorik.

Hitzaldia. Gaur, 19:00etan, Bilboko Foru Liburutegian.



Emaguzu zure inguruko ekitaldien berri <https://www.berria.eus/zerbitzuak/agenda/bidali/>

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Gobierno de Navarra



Nafarroako Gobernua



## EKITALDIAK

**Bilbo** Antzerkia: Bilboko Nazioarteko 42. Txotxongilo Jaialdia: *Baleazaleak*. Gaur, 18:00etan, Campos Eliseos antzokian.

**Bilbo** Antzerkia: Bilboko Nazioarteko 42. Txotxongilo Jaialdia: *The Quacksalver*. Gaur, 18:00etan, La Fundicionen.

**Bilbo** The Sadies. Gaur, 20:00etan, Kafe Antzokian.

**Donostia** *Euskal Herriaren historia Historiaurretik XVIII. mendera arte*. Bisita gidatua. Gaur, 11:00etan, San Telmo museoa.

**Donostia** Moko-txirula eta gitarra emanaldia. Gaur, 19:00etan, San Telmo museoa.

**Gasteiz** Antzerkia: Ipuin-kontakteta saioa: *Kar kar ipuin mitologikoak*. Gaur, 18:00etan, Arriaga gizarte etxeko liburutegian.

**Gasteiz** Zurrumurruen Aurkako Giza Liburutegiak. Gaur, 18:30ean, Lakua gizarte etxean.

**Gasteiz** Feline. Gaur, 20:30ean, Parral tabernan.

**Gernika-Lumo** Santa Zezilia kontzertua. Gaur, 19:00etan, Lizeo antzokian.

**Hernani** *Emakumeen euskal literatura* mintegia: *Zomorrotu* (Aintzane Usandizaga). Gaur, 18:30ean, Biterin.

**Ordizia** Larrunarri elkarteko abesbatza. Gaur, 19:00etan, herrigunean.

**Orio** Santa Zezilia kontzertua. Danbolin musika eta dantza eskola. Gaur, 18:00etan, plazan.

**Urretxu** *Haurren, nerabeen eta gurasoen mugikorren erabilera*. Gregorio Montero. Gaur, 18:00etan, Labeagan.

**Zizurkil** *Deitora zaitzala* *Tigrisek* liburuaaren solasaldia, Oihana Iguaranekin. Gaur, 18:00etan, liburutegian.

**Zumaia** *Mugikorren auzia*. Telmo Lazkano. Gaur, 18:00etan, Sagarbiden.

## DENBORA-PASAK

### HITZ GEZIDUNAK

Hiltzaile Inprenta, noldiztegia	Ardura, arreta Urduri	Musika nota Kilimakor	Musika nota Basamortu	Fruitu mota Igitaiaz ebaki Nafarroako arroila	Jira, itzulia Israelgo goi ordokia	Bi ken bat Oso urruti	Errusiako uhartedia Gizon izena
→	↓	↓	↓	→	↓	↓	↓
Ardiaren ile Gaizto, maltzur				Amorotoko herritar Irensten du			
→			Jarduera fisikoak Boliviako herritar	↓			Musika nota Gizonezkoen jantzia
Egile atzizkia Asiako estatua		Errezilgo auzoa Antzerki lan arina	→			(Infin.) Ibili Erraz egiten du ihes	→
→		↓			Potasio nitratoa Asiako herritar	↓	
Musika nota Emakume izena Emea gurasoekiko	→					Honakoa Zatia	Potasioa Hitzak, berbak
→	↓	Gaixo Zoriontsu, dohatsu		Pasarte larri Atera, jalgi	→	↓	↓
Gure planera Sare konpontzaile	→	↓	Lituaniako hiriburua Gu, guhaur	→		Edo Erdi, hitz elkarketan	→
→			↓		Libre H2O	↓	Einstenioa Musika nota
Punpak Basauriko herritar				Erraz urtzen direnak Lehenengo letra	→	↓	
→				↓			Bitarteko

### HITZ GURUTZATUAK

**izker-eskuin.** 1. Emakume izena. 2. Eibarko ibaia. Leku hezeetan hazten den landare. 3. Dardara. Dihu zoli eta luze, uhuri. 4. Hurrupatzean egiten den hotsaren onomatopeia. Europar Batasuna, abur-labur. 5. Ipar Amerikako aintzira handia. Arau. 6. Atzizki hau gabe jainkosarik ez. Adunako ieritar. 7. Arnas ezak hil. Zazpigarren alaba. 8. Urtaro beroa. Nekazarien lanabes. 9. laratxuriaren burua edo laranja eta antzeko fruituak banaturik dauden zati bakoitza.

**ioitik behera.** 1. Ihes eginez. 2. Zuberoan, gelditu, lasaitu. 3. Asko. Olerki lirikoa. 4. Eraikin garaia: ta meharra. Kanpo, landa. 5. Bokala. Urrearen ikur kimikoa. Dago. Lehenengo letra. 6. ehenengo pertsona. Ez singular. 7. Euskal Herriko Unibertsitatea, labur-labur. Txori bidaiaria. 8. z du ilerik. 9. Itsasontzi batek uretan uzten duen arrastoa..

### SUDOKU ERRAZA


	2		6					
			9			7		1
3	8	1						2
2						5		
		3	5	4	7	8		
		7						6
5						1	9	8
1		2			9			
					3		4	

### AURREKO ERANTZUNAK

R	A	D	I	O	O	K	A	A	K	O	R	D	I	O	A
S	A	B	L	E	A	E	K	E	B	A	S	L	E	A	K
T	A	I	L	U	A	T	E	T	E	I	L	A	T	U	A
U	B	E	R	A	Z	E	R	Z	U	B	E	R	E	R	A
X	A	I	A	K	L	E	R	X	A	K	E	L	A	R	I
Z	A	B	A	R	E	T	A	B	A	R	A	T	Z	E	A
A	B	A	R	O	E	K	I	A	B	E	R	K	O	I	A
B	A	G	A	K	A	R	I	I	G	A	R	A	B	A	K
D	A	M	A	K	O	I	N	M	A	N	D	I	O	A	K
E	D	A	N	A	Z	U	T	A	T	Z	E	N	D	U	A
F	A	S	E	A	D	I	O	D	E	S	A	F	I	O	A
G	A	I	A	K	B	A	R	G	A	R	A	B	I	A	K

Ez txantxetan, ez zinez, lagunaren lepotik barrerik ez

8	4	6	3	2	5	1	9	7
5	3	9	1	8	7	2	4	6
7	1	2	4	6	9	3	8	5
1	6	7	8	5	3	4	2	9
3	8	5	9	4	2	7	6	1
9	2	4	6	7	1	5	3	8
2	9	1	5	3	8	6	7	4
4	7	8	2	1	6	9	5	3
6	5	3	7	9	4	8	1	2



## Musika iruditan



**EKOGRAFIAK**  
Lide Hernando

**J**endeak usteko duenaren kontrara, ez ditut oso gustuko izaten musikaren industria gai duten telesailak. Kontraesana dirudien arren, uste dut, apur bat pentsatuta, bere logika baduela; hobeto ezagutzen dugun hori fikziora eramaten denean, orokorraz gozatu baino gehiago, xehetasunari begira egon ohi gara askotan, eta irudikatu den hori errealtatera zenbat gerturatzan den epaitzen hasten gara instintiboki.

Antzekoa gertatzen omen da horren zabaldua dauden abokatuen telesailak: nire lagun minetako bat abokatu da, eta

epaketak ardatz dituzten telesailen bat gomendatzen diodan bakoitzean, muturra okertu eta «ziurrenik ez zait gustatuko» esan ohi dit. Gogoan dut *American Crime Story: People v. OJ Simpson* ikusi eta zirraraz beteta joan nintzaioneko hura, esanez baietz, hau bai gustatuko zitzaiola. Nire uste apal eta ezjakinean, oso modu fidelean erretratatu zuen epaiketa mediatiko hark defentsako abokatuari ekarri zion lana. Argi utzi zidan lagunak handik pare bat astera: «Bi kapitulu iraun dut».

Bada, gauza bera gertatzen zait niri musikarekin. Hasita *Glee*-tik, *Daisy Jones & The*

*Six*-etik igarota, *The Idol*-eraino, normalean erdibidean utzi ohi ditut eduki horiek; eta erdi haserre, gainera. Iruditzen zait modu erromantikoegian irudikatzen dutela musikaren atzetik dagoena, gehiago zentratuz maitasun istorioetan edota mota ezberdinetako gehiegikerietan —droga eta alkohol kontsumoa, indarkeria, klixeetan erortzen diren beheranzko espiralak...—. Eta niretzako garrantzitsuenak diren gauza horiek, ibilbide musikal bat jorratzeko orduan dauden zailtasun errealek, aspergarri direlakoan edo, alde batera utzi ohi dituzte.

Bada telesail bat, alta, sal-

batuko nukeena —nahiz, hau kontuan izan, asko eta asko ez ditudan ikusi—: *Tremé*. David Simon sortzaile txalotuaren lana da —*The Wire*, besteak beste—, eta New Orleans-eko brass band-en eta jazz musikaren gorabeherak ezin hobeto erakusten ditu, Katrinaren ostean hiria nola berreraikitzen doan azaltzearekin batera. Hamarkada bat baino gehiago du telesailak, eta hori nabari da gauzak konartzeko moteltasunean. Gaur egungo ikusleak duen pazientzia murriztarenzako erronka bat dela ohartarazi beharko nuke. Baina ikusi, mesedez; merezi du eta. ●

# Euskarazko eduki gehiago eskatu dituzte

→ Kulturen eta ikus-entzunezko politiketan «euskara erdigunera ekartzeko» eskatu dute 'Aldatu gidoia' kanpainako ordezkariak, Legebiltzarreko Kultura Batzordean egin duten agerraldian.

## Unai Etxenausia

GASTEIZ— Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarreko alderdiei 2024ko aurrekontuetan euskarazko ikus-entzunezkoetara «aurrekontu sendoak» bideratzeko eskatu zuten *Aldatu gidoia* kanpainako ordezkariak, Eusko Legebiltzarreko Kultura batzordean egin zuten agerraldian, atzo, Gasteizen. Batik bat, egungo testuingurua aztertu eta kultura eta ikus-entzunezko politiketan «euskara erdigunera ekartzeko» proposamenak ekarri zituzten hizpidera.

Irailaren 9an *Aldatu gidoia euskararen alde* kanpaina abiatu zuten Euskal Herriko hainbat eragilek, Jaurlaritzari eta EITBri eskatzeko kultura eta ikus-entzunezkoen politikak «errotik» aldatzeko. Sinadura bilketa bat abiarazi zuten. Eta, atzo legebiltzarrean eman zituzten datuen arabera, 2.450 sinadura baino gehiago jaso dituzte. Euskal Herri osoko 32 eragilek bat egin zuten eskaerarekin. Kopuruez harago, baina, esanguratsua da era

askotako taldeek, eragileek eta elkarteek eman diotela babesa egitasmoari.

Sinatzaileen artean daude Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabel, ELA sindikatuko idazkari nagusi Mitxel Lakuntza, LAB sindikatuko idazkari nagusi Garbiñe Aranburu, UEMAKo lehendakari Martin Aramendi, EAB Euskal Aktoreen Batasuneko ordezkari Rakel Ezpeleta, Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzaile Libe Mimenza eta Pantailak Euskaraz mugimenduko bozeramaile Alex



«Euskarazko bikoizketa hankaz gora eta arautu gabe dago. Jaurlaritzak hitzarmenaren alde egin beharko luke»

**MITXEL ELORTZA EXEA**

'Aldatu gidoia' kanpainako kidea



'ALDATU GIDOIA'. Mitxel Elortza eta Intza Gurrutxaga, atzo, Eusko Legebiltzarrean. BERRIA

Aginagalde. Norbanakoen artean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, Josu Martinez zinemagilea, Mirari Martiarena gidoilari eta umorista, Juan Kruz Lakasta Euskalerrria Irratiko zuzendaria, Arkaitz Zarraga soziolinguista eta Itxaso Paia bertsolari eta gidoilaria daude, besteak beste.

Kanpainaren aurkezpenean iragarritakoa bete dute: Jaurlaritzara eta alderdi politikoetara jo dute, datorren urteko kultura politiketan eta aurrekontuetan euren eskariak aintzat har ditzaten. Mitxel Elortza Exeak hartu zuen hitza lehenbizi. «Urgentziaz» euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza erakargarria behar dela ohartarazi zuen, eta eskatu EITBk «gauzak aldatzeko audientziaren aitzakia» alboratzeko. Berziki euskarazko bikoizketaren alde egin zuen interbentzioan. «Euskarazko bikoizketaren gainbeherak» erantzun bat behar

duela gaineratu zuen: «Hankaz gora eta arautu gabe dago. Bai erakundeek eta bai Jaurlaritzak bikoizketa arloko hitzarmenaren alde egin beharko lukete».

## Aurrekontuaren %5

Intza Gurrutxaga Loidi kanpainako beste ordezkariak, berriz, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren urteko aurrekontuaren %5 euskarazko ikus-entzunezkoetara bideratzeko eskatu zuen, euskarazko ekoiztiko lanak finantzatzeko eta zinema eta plataformetako edukiak euskarara bikoizteko diru laguntza lerro propioak sortzeko.

Azken hilabeteen plataformak egindako eskakizunak berretsi zuten: EITBk urtean edukietarako jarritako diru sailaren %75 euskarazko programetarako jartzea; helduentzako film eta telesailen emanaldien erdia gutxienez euskaraz eskaintzea; Primeran pla-

taforman, ikus-entzunezko eduki guztiak euskarara bikoiztuta eta azpidatuta eskaintzea; bi urtean, haur eta gaztetxoentzako edukietarako aurrekontua progresiboki handitzea; euskarazko bikoizketa urtean 1.500 orduko produkzioa itzultzea; eta ikus-entzunezko lanak finantzatzeko diru sailen %75 euskarazko ekoizpenak laguntzera bideratzea.

Garikoitz Mendizabal EAJko legebiltzarkideak nabarmendu du aurrerapenak egiten ari direla, eta ez daudela «geldi». Jasone Agirre EH Bilduko legebiltzarkideak, berriz, adierazi du kanpainaren eskakizunek alderdi abertzalearen nahiekin bat egiten dutela. Eta PSE-EEko Alberto Alonsok adierazi du «kultura aniztasuna askatasunaren giltza» dela.

Carmelo Barrio PPko legebiltzarkidearen arabera, herritarrek «kontsumitu nahi dutena aukartzeko askatasuna» dute. ●

# Denda

Osatu Gabonetako saskia Euskal Herriko produktuekin!

Bidalketa  
gastuak  
**DOAN**

Eskariak egiteko azken eguna, **azaroaren 23a**.  
Eskariak abenduaren 2tik aurrera banatuko dira.

**(0034) 943-30 43 45**

[Berria.eus/berrialaguna/denda/](https://Berria.eus/berrialaguna/denda/)

## Remelluri ardoak



147€

99€

## Brut Nature Mainegra

Mendabiako cava



## Biba ardoak

EHko ardo ekologogikoak  
6 botilako kutxa



## Lezaun ardo ekologikoak



34€

58€

## Mahala sorta

Saskia



## Manuel Quintano ardoak



57€

48€

## Alfar olioa

Oliba olio birjina estra



## Urdetxe

Basatxerri beso ondua • Paleta



## Hatsa ardoa

BERRIaren 20. urteurreneko ardoa



## Erroiz olioia

Oliba olio birjina estra, premium



## Pedro Luis kontserbak

Tomatea • Potxak



## Iturri kontserbak

Zainzuri estra lodiak, 8-12 ale  
3 potoko kutxa



## Serrats kontserbak

Kontserba sorta





# Postontziak hodeietan

Testua **ENEKOITZ TELLERIA SARRIEGI**  
Argazkiak **URDABURU MENDIZALE ELKARTEA**

Euskal Herriko ohitura da mendien gailurrean postontziak jartzea. Bilboko Club Deportivo elkartekoek jarri zuten aurrenekoa, Anboton, 1915ean. Geroztik, gailur ia guztietan dago postontziren bat. Duten balioa aitortzen hasi zaizkie orain.

**G**ailurraren parte dira, esfortzua-  
ren lekuko, iritsi  
izanaren berme,  
hodeietan aitzin-  
dari, tradizioaren  
zaindari, eta den-  
boraren zelatari.  
Euskal Herriko ia  
gailur bakoitzean  
dago postontzi  
bat: aizkora bat  
enberrari itsatsita eta suziri bat  
zerura begira jarrita. Etxola, etxe,  
baserri eta gaztelu formakoak.  
Sardeak, laiak eta aitzurrak. Pe-  
rretxikoak, onddoak eta ezku-  
rrak. Eguzki loreak eta landareak.  
Txoriak, txakurtxoak eta basur-  
deak. Lokomotorrak eta autoak.  
Herdoilak jan zituen lehenak, eta  
altzairuz egin zituzten azkenak.  
Jada ez dute euren hasierako  
funtzioa betetzen, baina haien ba-  
lioaz eta utzitako ondareaz ohar-  
tu dira mendi federazio gehienak  
aspaldian.

Horixe baita duela gutxi arte  
inork ematen ez zion balioa:  
Euskal Herrian sortutako ohitua  
dela mendi gailurrean pos-  
tontziak jartzea. Bilboko Club  
Deportivo elkarteak jarri zuen  
aurrenekoa, Anboto mendiaren  
gailurrean, 1915ean. Eta bada  
ohitura hori Alpeetan sortu zela

dioenik, baina gezurtatu egin du  
hori Antxon Iturriza idazle eta  
euskal mendizaletasunaren iker-  
lariak: «Alpeetan eta Pirinioetan  
ohitura bestelakoa izan da: libu-  
ruena. Liburuxkak izaten zituzten  
tontorretan jarrita, kutxa baten  
barruan babestuta. Liburuxka bat  
edo koaderno bat zegoen kutxa  
barruan, eta han jartzen zituen  
jendeak bere apunteak: zer-nola  
igo zen, norekin, zer giro egiten  
zuen... Liburu horiek historia  
hutsa dira, eta hango museoetan  
daude gordeta: Pauen [Okzitania],  
Luxonen, Chamonixen [Fran-  
tzia]...».

Bestelakoa da Euskal Herri-  
ko postontzien ohitura. «Gure  
mendietan dauden azpiegitura  
gehienak Antxon Bandres zena-  
ren egitasmoetatik sortuak izan  
dira, eta postontzien kontu hori  
ere bai», azaldu du Iturrizak. Eta  
kontatu du horren guztiaren abia-  
puntuak kezka bat zegoela: nola  
lortu jendea mendira eramatea.  
«Bandresen mendi irteerak bul-  
tzatzen zituen, talde handietan,  
Gorbeia aldera. Juntatzen zen  
jendea, baina berak pentsatzen  
zuen: 'Hau oso ondo dago, baina  
ezin da izan egun bakarreko kon-  
tua'. Horri jarraipen bat emateko  
antolatatu zituen mendiko lehiake-  
tak».

**1 | LARRAONE**

Aralar mendilerroan dago, Amezketan (Gipuzkoa). 1.194 metroko mendia da, eta Txindoki dauka parez pare.

**2 | TXURRUMURRU**

Aiako Harria mendilerroan dago, Irunen (Gipuzkoa). 821 metroko mendia da. Aiako Harriak hiru tontor dituela aintzat hartuta, hiru horien artean erdikoa litzateke.

**3 | LARRE**

Uzturre mendilerroan dago, Berastegin (Gipuzkoa). 808 metroko mendia da.

**4 | GAZUME**

Hernio mendilerroan dago, Errezilen (Gipuzkoa). 997 metroko mendia da, eta Hernio dauka parez pare.

**5 | URDABURU**

Urdao ere esaten diote, eta Hernanin dago (Gipuzkoa). 599 metroko mendia da. Errenteriako mendi elkartearen izena ere bada.

**6 | ANDUTZ**

Izarraitz mendilerroan dago, Deban (Gipuzkoa). 613 metroko mendia da.

**7 | ARBIL**

Izarraitz mendilerroan dago Arbil ere, Deban (Gipuzkoa). 434 metroko mendia da.



**«Ondare kuriooa da, eta bakarra munduan. Zaintzen ari dira orain, erreferente gisa eta lekuko gisa»**

**ANTXON ITURRIZA**

Idazlea eta ikerlaria

**«Orain, argazkiak eta sare sozialak dira gure igoera, abentura eta momentu ororen lekuko eta komunikatzaile»**

**URDIN ELORZA**

Gipuzkoako Federazioko teknikaria



zetozenentzat. Dokumentazio oso gutxi zegoen-eta orduan».

Eta txartel bat tontorrean uzteko, behar zenez non utzia, orduan sortu ziren postontziak. «Ondare kuriooa eta bakarra da, munduan beste inon ez dagoena. Eta zaintzen ari dira orain, ez ziurrenik lehengo helburuarekin, jada txartela inork ez baitu han uzten, baina hor jarraitzen dute, erreferente gisa, eta lekuko gisa», hausnartu du Iturritzak. «Asko pozten naiz halako inbentarioak egin dituztelako. Zaindu egin behar dira, eta dagokion elkartearen ardura da horiek txukuntzea eta zaintzea. Duela hamabost urte ez zen horretaz inor arduratzen».

Izan ere, aurreneko hura jarri ostean, batean eta bestean hasi ziren mendi elkarteak postontziak jartzen. Batez ere, 1929tik aurrera, orduan sortu baitzuen Euskal Mendizale Federazioak Ehun Mendien Lehiaketa. Bost urteko epean, gehienez hamar urtekoan, Euskal Herriko ehun mendi igotzea zen erronka, eta aurretik esplikaturako hori zen sistema: gailurrera igotako mendizaleak postontzian txartel bat utzi behar zuten, hurrengoak jaso zezan, eta zegokion mendi elkartera postaz bidal zezan. Horrela baieztatzen zuten mendizale batek ehun gai-

lurretara igoa zela ofizialki, eta agiri bat ematen zitzaion: Ehun Mendien Finalista.

«Badago jendea oraindik buzoiak erabiltzen dituen. Eta Ehun Mendien Lehiaketa hori egin egiten da oraindik. Nagusiak dira gazteak baino gehiago, hori ere hala da. Lehen, jende askok parte hartzen zuten, Finalistaren Eguna ere egiten zen, eta ehun tontorrek egin zituenari ematen zitzaion oroigarria. Oraindik ere egiten da», azaldu du Urdin Elortzak, Gipuzkoako Mendi Federazioko teknikariak.

Bizirik dauden ohiturak direla baina «dezente» aldatu direla ere onartu du Elortzak: «Orain, argazkiak eta sare sozialak dira gure igoera, abentura eta momentu ororen lekuko eta komunikatzaile. Gaur egun, Aizkorriko postontziaren atzean, hango aizkoraren alboan argazkia egin eta Instagramera igota baieztatu dezakezu tontorrera iritsi zarela». Eta zer egin dute Gipuzkoako Mendi Federazioan? «XX. mendeko mendizaleen jardura hura eta XXI. mendeko gizarte ohiturak nolabait uztartu». Nola? Webgune baten eta aplikazio baten bidez.

2021eko udaberrian, pandemia zela-eta, Errenteriako (Gipuzkoa) Urdaburu mendizale elkar-

**Jakingarriak**

● **Non jarri zuten aurrenekoa?** Bilboko Club Deportivo elkarteko kideek jarri zuten, Anbotoren gailurrean (Bizkaia), 1915. urtean. Jarri eta egun gutxira, eraitsi egin zuten mendira jendea trumilka joatearen kontra zeudenean.

● **Zenbat daude?** Mendi federazio bakoitzak bere inbentarioa dauka eginda —batzuek ez dute egin, edo ez dute behintzat horien berri eman; Nafarroakoak, kasurako—. Araban, 484 kontaktu dituzte; Bizkaian, 405; eta Gipuzkoa izan da kontaketa egin duen azkena: 310.

● **Non ikus daitezke?** Arabako federazioak bere webgunean ditu jarriak, PDF formatuan. Bizkaikoak webgunean ditu denak, eta Gipuzkoakoak, berriz, *Mendiak.eus* webgunean eta *Mendiak* aplikazioan daude ikusgai.

● **Nork kudeatzen ditu?** Mendi elkarteek jartzen dituzte normalean postontziak, eta haiek arduratzen dira horiek zaintzeaz. Badaude norbana-koek jarritakoak eta zaindutakoak —edo bertan behera utzitakoak—. Udaletan eskatu behar da halakoak jartzeko baimena. Federazioek badiutuzte euren webguneetan araudiari buruzko argibideak.

teak erronka bota zien klubeko bazkideei: Gipuzkoako mendi guztietara igo eta postontzien argazkiak ateratzea. Zerrenda osatu zuten, 310 mendi aukeratu, guztietara igo, eta postontzi guztien argazkiak atera. Proiektuaren helburua zen Gipuzkoako mendi guztien zerrenda ofiziala osatzea, eta baita postontzi guztien katalogoa egitea ere, horien kokapen zehatza eta argazki eta guzti. Erronka arrakastatsua izan zen, eta Gipuzkoako mendi eta postontzi guztiak katalogatu zituzten. Gipuzkoako Federazioak zer egin du? «Webgune edo aplikazio batean eman nahi genituen, baina konturatu ginen Codesyntaxek bazeukala jada sekulako aplikazioa egin, eta haiekin egin genuen tratua, guk geneukan datu base hori haien aplikazioari gehitzeko», argitu du Elortzak.

Alegia, eremu digitalean ere, postontziak daude hodeietan. ●



## «Musean zortea behar da, baina ondo jokatu gabe ez zara inora joango»

**RAUL GARTZIA** *Muslaria*

Euskal Herriko Mus Txapelketan izena emateko epea zabalik dago. Raul Gartzia antolatzaileak esan du «primeran pasatzea» dela helburua: «Euskal Herriko karta jokorik propioena da».



ENDIKA PORTILLO / FOKU

Mikel Elkoroberezibar Beloki

Euskal Herriko Mus Txapelketa egiten ari dira zazpi herrialdeetako herri eta auzo askotan. «Irabaztea denoi gustatzen zaigu, baina gure helburua ez da hori», nabarmendu du Raul Gartziak (Gesaltza Añana, Araba, 1965); Euskal Herriko Mus Federazioko kidea da, eta txapelketaren antolatzailea. Esan du txapelketaren helburua «parte hartzea, primeran pasatzea eta Euskal Herriko herrialde desberdinetako jendea ezagutzea» dela.

**Zer da ezinbestekoa muslari ona izateko?**

Esperientzia. Jolastea da kontua, eta hori denborarekin ikasten da. Ez du beste misteriorik. Trebea izateko, engainuak beharrezkoak dira, baita keinuak ere.

**Benetako muslariak keinurik egin gabe jokatu dezake?**

Bai, jokatu dezake, baina zure bikotekideak ez du jakingo zer daukazu. Gero, esperientziarekin eta denborarekin, jokatzeko moduaren arabera badakizu zure bikotekideak zer daukan; susmatu dezakezu zer jokaldi egingo duen.

**Oso harreman berezia izaten da museko bikoteena.**

Bai, oso ondo ezagutzen dute elkar. Bizi osorako harremana izaten da; jokaldi txar baten ondorioz haserretzen badira, hori ere betiko izan daiteke. Harremana oso estua da.

**Zer da garrantzitsuagoa musean: zortea edo abilezia?**

Bietatik behar da. Musean zortea behar da, baina ondo jokatu gabe ez zara inora joango. Zortea izan

behar da karta onak izateko — lau errege, adibidez—, baina ez da ohikoa izaten. Zortea denbora guztian ezingo duzu izan; hortaz, jokatzeko ere jakin behar.

**Muslarien garai bateko estereotipoa gaitzuta dago ja?**

Bai. Jokalari guztiak oso desberdinak dira.

**Zenbat bikotek eman dute izena**

**Euskal Herriko Mus Txapelketan?**

Denetarik izan da urte batetik bestera, baina azkenaldian 2.100 bikotek baino gehiagok hartu dute parte.

**Izena emateko epea irekita dago?**

Bai. Euskal Herriko Mus Txapelketa hiru fasetan dago antolatuta.

### LOTSABAKO

**Zer da bizitzan eskutik 31 izatea?** Zortea izatea, baina bikotekidea behar da!

**Hordagoa jo zalea zara?**

Bai, noski.

**Zenbat erregetara jokatzen duzu?** Lautara.

Lehenengo fasea herrietako eta auzoetako kanporaketek osatzen dute. Hasita daude batzuk, eta otsailera arte jokatzeko arituko dira, bakoitza bere erritmoan. Beren ohituren arabera antolatzen dira. Bigarren fasea herrialdeko finalek osatzen dute. Auzoetatik zenbait bikote sailkatzen dira, eta martxoan egingo dituzte lehenengo herrialdeko finalak. Horietatik sailkatutakoak Euskal Herriko finalera joango dira. Zuberoako Altzai herrian izango da, 2024ko martxoaren 23an.

**Nazio ikuspegiari ere garrantzia ematen diozue.**

Hasi ginenean, konturatu ginen Euskal Herrian bi mus txapelketa zeudela: bat Nafarroan jokatzeko zuten, Orreaga elkarteak antolatuta; bestea Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Iparraldean egiten zuten. Biekin hitz egin genuen, eta adostu genuen Euskal Herriko Mus Federazioa sortzea. Horrela hasi ginen Euskal Herri osoko mus txapelketa antolatzen.

**Zer leku du musak euskal gizarteetan, zure ustez?**

Euskal Herriko karta jokorik propioena da musa, haren izenagatik eta erabiltzen den hizkeragatik. *Mus* hitzaren jatorri bat *musua* da, keinua ezpainekin egiten zelako. *Hordago* eta *enbido* esaten baduzu, argi dago euskarazko hitzak direla. Hitz horiek Madrilen, Mexikon eta Parisen erabiltzen dituzte, konturatu gabe euskaraz hitz egiten ari direla.

**Esan duzu txapelketaren helburua ez dela soilik irabaztea, baina txikira jokatzeko duena beti da galtzailea?**

Ez. Mus jokaldi desberdinak daude herrialde edo eskualde desberdinen arabera. Batzuek zortzi erregetara jokatzeko dugu, eta beste batzuek, lautara. Euskal Herriko Mus Txapelketaren araua lautara jokatzeko da, baina herrietan haien arauarekin jokatzen dezakete. ●